

Antzuolako 8 Milien bigarren aldia etzi

Zirkulazioan eragina izango du; 10:30ean hasiko da | 25 eta 29

Oñatiko errota lanean dihardu betiko eran | 18



Olabarrietako errota. | JULEN IRIONDO

Jon Zabaleta arrasatearra bihar Markeliñeren 'Kapsulak' saioan | 32



Ospitalearen eta osasun zentroen erabilera, gora | 4



Herriko sagardoarekin txotx egingo dute bihar Antixena gaztetxean | 17



BIZIA SALBA DEZAKETELAKO

Ezbeharrak direla-eta, instalazioetan desfibriladoreak egotea oso garrantzitsua dela azpimarratu dute; Arrasaten iaz bizi bat salbatu zuten hari esker | 2

Sergio Serrano Musakolako soroslea bihotz masajea egiten, desfibriladorea (gailu urdina) ondoan duela. | JAGOBA DOMINGO

Mikel Laboa antzeztokietara Mireia Gabilondoren begietatik



GOTZON EGIA



TANTTAKA

Mikel Laboa gertuko laguna eta artista erreferentea izan du beti Mireia Gabilondok. Hark utzi zion hutsunea irensteko beharrezko urte batzuk pasatuta, Laboaren omenezko ikuskizuna sortu du: Tanttakaren *Zazpi aldiz elur*. Gasteizen estreinatu zuten atzo, eguna. | 31

SINADURAK

Etor zaitzete Antzuolara | 6
BERNARDO KORTABARRIA

6 | Desfibriladoreak eta kirola
MIREIA BIKUNA

Bihotza erre aurretik | 26
SONIA ETXENAUZIA

40 | Oparitu maitasuna
IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37
ESKELAK 37 | NON-ZER 38



943 71 48 45

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.



Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Zumaian bizi



aukeratu etxebizitzarik egokiena

edo zure 2. etxebizitza

RESIDENCIAL
Ortiz
BIZIGUNEA

Facebook.com/immoloiola



AUKERA

Estan, zuri egokituakoa finantzazioa

ETXEBIZITZAK 170.000 €



info@inmololola.com

606 957 532

www.vivirenzumaia.com / www.zumaianbizi.com

BIHOTZKOAK EMANEZ GERO



EGOERA AZTERTU Arnas bidea zabaldu eta arnasa hartzen duen edo ez egiaztatu. Jendea egonez gero, aldentzeko esan, eta eskatu 112ra deitzeko eta desfibriladorea ekartzeko.



KONPRESIO TORAZIKOAK Materiala iritsi bitartean, ekin. 30 konpresio toraziko, minutuko 100 erritmora. Eskuak bularraren erdialdean jarri behar dira.



BI AIREZTAPEN Ordurako materiala edukiz gero, behintzat, bizkortze baloiarekin, eta, balego, oxigenoarekin; ahaz ahokoa baino hobeto, gaitzak kutsatzea saihesteko.

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Iragan otsailaren 2an gertakari tristeja jazo zen Donostiako futbol zelai batean: Tolosako jokalaririk Urtzi Gurrutxaga ormaiztegi-rrari –Arrasaten ikasketak egindakoa, bide batez– partidua jokatzen ari zela bihotzekoak eman eta hil egin zen 26 urteko gaztea. Zelaian bertan saiatu ziren jokalaria erreanimatzen, lehian ari ziren taldeetako masajistak eta harmailan zegoen mediku bat, aurrena, eta ondoeza izan eta hamar minutu igaro ondoren iristen joan ziren anbulantziatako osasun zerbitzuak ondoren. 40 minutuz jardun zuten zelaian bertan, eta ospitalera eraman zuten gero. Han hil zen Urtzi Gurrutxaga, Ormaiztegi gaztea. Gertaera lasgarria jazo eta gutxira, hildakoaren anaiak idatzi hunkigarri bat zabaldu zuen sare sozialetan; hunkigarria, eta eskaera bat jasotzen zuena.

Ondorengo galdera botatzen du Urtziren anaia Enetzek aipatutako idatzian: "Zer gertatu izango zatekeen futbol zelaian defibriladore bat eduki izan balute?". Eta ondorengo da eskaera: "Izan dadila derrigorrezkoa kirol instalazio guztietan desfibriladoreak egotea", horrek izan dezaken kostua dela-eta, gisa honetara jarraituz: "Ze inporta du diruak bizitzak salbatzeari buruz ari garenean?". Bere eskaera bete dadin eskatzeko sinadura bilketa ere jarri du martxan, bere anaiaren heriotzak balio izan dezan, "behintzat, beste pertsona askok bizirik jarrai ahal dezaten, desfibriladoreei esker".

Desfibriladoreak bizia salba dezake, nahiz eta ez beti

- Osasun zentroetako gain, dozena bat desfibriladore daude bailaran
- Kirol instalazioetan eduki beharra hizpide da, Urtzi Gurrutxaga hil ostean

Debagoieneko egoera

Debagoienean, osasun zentroetakoak alde batera utzita –zenbait lantegitan ere badaude–, dozena inguru desfibriladore –11 zenbait ditugu– daude eraikin publikoetan edo zerbitzu publikoen eskura, leku horietan edo kalean horrelako ezbeharren bat gertatuko balitzateke erabiltzeko moduan: bat dute Oñatin –kiroldegian–; bi dituzte Eskoriatzan –kultura etxean eta kiroldegian– eta Bergaran –udaltzaingoan eta Agorrosinen–; eta hiru, Aretxabaletan –Arkupen, udaltzaingoan eta kirol-etxean– eta Arrasaten –udaltzaingoan, Iturbide egoitzan eta Musakolako kiroldegian–.

Urte batzuk badaramatzate gailuok –Arrasaten, adibidez, 2008tik daude–, eta –eman dizki-

guten datuen arabera– erabiltako aldi guztiak zenbatuta, lau izan dira: behin erabili dute Oñatin –iazko ekainean; ezin izan zuten bihotzekoa izan zuen lagunaren bizitza salbatu–, eta hiru

aldiz Arrasaten –bitan udaltzainek, emaitza onik gabe; bestea, Musakolan–.

Lau aldi horietatik, azkena aipatutakoan lortu zen ezbeharra izan zuen lagunak bizirik jarraitzea. Iazko otsailean gertatu zen, Arrasateko kiroldegiko gimnasioan: kirola egiten ari zela bihotzekoa gertatu eta igerilekuko sorosleak eta lekuan zeuden bi irakasle eta erizain batek, elkarlanean eta desfibriladorearen laguntzaz, lortu zuten guztia ondo amaitzea.

Derrigortasunik ez

Urtzi Gurrutxagari gertatutakoak mahai gainean jarri du, berriz ere, desfibriladoreen gaia. Hasteko, eta bihotzeko batzuen kasuan "oso eraginkorrak" izan

daitezkeen bezala, egia da, baita ere, beste batzuetan ez dela nahikoa, Arrasateko Udaleko Lan Arriskuen teknikari Yoli Pastorek dioen bezala: "Kasu batzuetan, nahiz eta desfibriladorea era egokian erabili, zoritxarrez, bihotzekoari aurre egitea ezinezkoa izaten da".

Kirol instalazio guztietan horrelako gailuak egon daitezkeen hildako futbolariaren anaiak egindako eskaria aintzat hartuta, Lan Arriskuen teknikariak dioskunez, Espainian ez dago, gaur egun, inor horretara behartzen duen legerik; desberdin da beste leku batzuetan, eta Mexikoko adibidea ematen du: "Han araututa dago zein eraikinetan egon behar diren desfibriladoreak, langileen kopuruaren arabera, bertan egiten diren ekintzen arabera...". Dena dela, "laster, urte batzuen bueltan", hemen ere arautzea espero dela dio.

Desfibriladoreen zenbatekoa, oraingoz behintzat, kopuru handian gehitzeko aukerari buruz, berriz, zera dio Pastorek: "Egun dugun krisia kontuan hartuta, zaila izango da eraikin guztietan dauden hirurak aipatutako lekuetan jartzea erabaki zutela haieran "erabilera handiagoa" izan zitekeelakoan; bestalde, udaltzainek autoan eramaten dutela, "larrialdi batean eurak izaten direlako lekura iristen lehenengoak". Hala ere, "hurrengo urteetara begira", ez du baztertzeko herriko beste eraikin batzuetan gailuok jartzea: "Amaia antzokian, Kulturaren...".

DESFIBRILADOREAK BAILARAN

Arrasaten Musakolan, Iturbiden eta Udaltzaingoan.

Aretxabaletan Arkupen, kirol-etxean eta Udaltzaingoan.

Bergaran Agorrosinen eta Udaltzaingoan.

Eskoriatzan Kultura etxean eta kiroldegian.

Oñatin Kiroldegian.



Debagoieneko eskaintza onenak
Aurreztu.com-en dituzu.
Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste
batzuk Aurreztu.com webgunean!

Negozio baten jabea zara eta
Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?
Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05

goiena

NEREA.M DANCE&FITNESS
Modan dagoen Zumba dantza
probatu gura duzu?

59€

LEHEN:
131€

DESKONTUA:
%55





4 DESFIBRILADOREA Piztu eta elektrodo partxeak jarri. Bertan dator marraztuta non jarri behar diren. Jarri aurretik, bular alde lehorte eta ilerik balu, moztu.



5 AGINDUEI KASU EGIN Makinak berak esaten ditu, ahotsez, jarraitu beharreko urratsak. Azterketa egiten du, eta deskarga egin behar den edo ez erabaki; adi entzun.



6 DESKARGA Desfibriladoreak horrela agintzen badu, deskargarako botoiari sakatu. Sakatu aurretik, ziurtatu inguruko jendea aldendu dela; makinak hala agintzen du.

laz, ondo atera zen

Aurreko urtean Musakolan gertatutako hartan parte-hartze zuzena izan zuen Sergio Serranok, kiroldegiko sorosleak. Berak gidatuta, taldeko lan ederra egin zuten bihotzekoa izan zuen laguna bizkortu nahian jardun zutenek. Hain izan zen horrela, Osakidetza larrialdietakoek zoriondu egin zituztela. Horrela gogoratzen du Serranok gertatutakoa: "Goizeko 09:30ak jota izango ziren deia jaso nuenean. Leku-ira joan eta, horrelako kasuetan, balorazio bat egin behar da, eta egoera aztertuta lanak banatu: bati esan 112ra deitzeke; beste bati, harrerara joan eta desfibriladore hartzeko; eta hirugarren bati, jendea apur bat aldentzeko, lasaitasunez lan egin ahal izateko. Kasu hartan, erizain baten laguntza izan nuen [aurretik bi irakasle jardun zuten], eta bion artean aplikatu genuen bizkortze teknika [modua da goiko argazki sekuentzian ageri dena, gutxi gorabehera; amaitzean, errepikatuz. Makinak bi minuturo egiten du azterketa, eta egin beharrekoa ahots mezu bidez agindu]".

Anbulantziak iristerako lortu zuten bihotza berriz ere taupaka hastea. Egonkurtu eta ospitalera eraman zuten haiek. Kontuan izan behar da, oro har, larrialdietara dei egin eta osasun zerbitzuek hamar bat minutu behintzat behar izaten dituztela iristeko. Denbora horretan –lehenengo lauzpabost minutuak gako dira, ondorioak ahalik eta txikiak izan daitezkeen–, bihotzekoa

izan duen pertsonaren bizirau-pena inguruko menpe egoten da, haien jarduna bizkorra eta egokia izatearen menpe. Bihotz-birikak berpizteko aurreneko maniobren –kompresio torazikoak eta aireztapenak– ondorioz, biderkatu egin daitezke biziraupen aukerak, desfibriladore unean bertan erabiltzerik ez dagoen kasuetan –desfibriladore iristean ere konbinatu egin behar da konpresioekin eta aireztapenekin–.

Hauetaz guztiez gain, baina, bihotzekoaren ostean bihotzak berak duen erritmo elektrikoa ere bada beste gakoetako bat, bizkortzea lortu ahal izateko. Gisa honetara azaltzen du Musakolako sorosleak: "Normalean, kasuen ehuneko oso handi batean, fibrilazio bentrrikularrean

ESANAK

"Zoritxarrez, batzuetan ezin da ezer egin, nahiz eta desfibriladore ondo erabili"

YOLI PASTOR | LAN ARRISKUEN TEKNIKARIA

geratuko da bihotza, eta orduan bai erabili daiteke desfibriladore, eta bihotzekotik pasa den denboraren arabera handitzen dira arrakastarako aukerak. Denbora pasa ahala, aukerak

gutxitu egiten dira, eta gerta daiteke fibrilazio bentrrikular hori asistolia bilakatzea –miokardioak batere aktibitate elektrikorik ez izatea–. Eta asistolia egoeran, nahiz eta desfibriladore indartsu bat eduki, ezin da ezer egin. Beraz, mirariak ere ez ditu egiten".

Esanda bezala, gorputzarekin kontaktuan jartzean makinak berak egiten du azterketa, eta agintzen du egin beharrekoa. Alde horretatik, ez da zaila desfibriladore bat erabiltzea. Dena dela, hobe prestatuta egotea, inoiz halakorik esku artean ibiltzea tokatzen bada ere: "Makinak berak badu informazioarako botoi bat hala adierazita, eta sakatuz gero berak esaten dizu zer egin behar duzun. Baina aurretik

ikastaroren bat egin baduzu honen ingurua, ba hobe", dio Serranok. Zentzu honetan, uste du erakundeek "baliabideak eskaini" behar lituzketela: "Instituzio batzuk ari dira horretan, baina badago zer eginik".

Prestaketa saioak

Hain justu ere, Arrasateko Udalak, adibidez, antolatzen ditu prestaketa saioak, Lan Arriskuaren teknikari Yoli Pastorek azaltzen duenez: "Guk, udaletxean, desfibriladore simulagailu bat badugu praktikak egin ahal izateko, eta, noizbehinka, hura erabiltzeko ikastaroak antolatzen ditugu". Iazko azaroan egin zuten azkena.

Horrez gain, desfibriladoreak dituzten eraikin edo zerbitzu publikoetako langileek ere jasotzen dute prestaketa; horrela dio Pastorek: "Desfibriladoreak edukitzeaz gain, berebiziko garrantzia du nork eta nola erabiltzen dituen. Desfibriladore lehen aldiz instalatzean prestakuntza konkretu eta homologatua jaso behar da, legeak hala esanda. Beste zenbait komunitatetan derrigorra da birziklapen ikastaroak egitea ere".

Hona, beraz, txanponaren bi aldeak: 2014ko otsailean, 26 urteko gaztea hil da, futboleko ari zela bihotzekoak emanda. Suspertzeko lagungarri zatekeen gailua lekuan ez edukitzeak amorrarioa eragin du gertukoengan; urtebete lehenago, Arrasaten, bizirik atera zen beste lagun bat, gailua eduki eta han zirenek dena ondo egin zutelako.

ALBERTO GARAI | KIROL MEDIKUA

"Bihotzekoetan, desfibriladore bat gertu edukitzea oso garrantzitsua da"

Derrigorra ez den arren, zenbait lekutan, behar lukeela dio kirol medikuak.

Desfibriladore batek zenbateraino lagundu dezake bizitza salbatzen?

Lagungarria dela argi dago. Neuk ere irakurri dut Urtzi Gurrutxagaren anaiaren idatzia. Eta, bai, bihotzekoetan, desfibriladore bat gertu izatea oso garrantzitsua da. Egun ez dago derrigortasunik, baina nire iritzia da ekintza fisikoa egiten den lekuetan, leku publikoetan eta jende asko biltzen den lekuetan derrigorrez egon beharko lukeela. Eta, gainera, Urtziren anaiak dioten bezala, ez dira garestiak.



LEIRE KORTABARRIA

Eta erreakzio bizkorra gako da.

Gakoa da, bai. Bihotza gelditzen bada oxigenoa ez da burura iristen. Eta denbora igarotzen bada, bizirik irtenda ere, ondorioak gera daitezke. Gogoan duzu zer gertatu zitzaion mutiko hari Oñatin 2012ko San Silvestrean? Mutiko hark izugarritzko zortea izan zuen, larrialdietako medikuak zeudelako lasterketa ikusten eta desfibriladore zegoelako; bestela, mutiko hori...

Denok behar genituzke sorospenerako gutxieneko ezagutzak?

Kultura kontua da hori. Bakoitzaren esku geratzen da halako ikastaro bat egitea.

Baina eskoletan, unibertsitatean eta lantokietan landu behar litzateke hori. Erakutsi eta, noizean behin, freskatu, ze teknikak–eta ere aldatu egiten dira. Inportantea da denok zerbait jakitea.

Arrasateko hipermerkatua



zurekin



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

ZATOZ GUREKIN EUSKAL GIROAZ GOZATZERA!

Otsailaren 14an arratsaldean eta otsailaren 15ean goizean

- Taloak
- Sagardoa
- Eta giro aparta

Talo solidarioa: 2,50 euro

MUNDU ZABAL



G.K.E-rentzat laguntza solidarioa



Gora egin du ospitale eta osasun zentroen erabilerak

Arrazoi nagusia da ahalegin berezia egin dutela bertako gaixoak bailarako zentroetan bertan artatzen

UBANE MADERA | DEBAGOIENA
Debagoieneko Ospitalearen eta bailarako bederatzi osasun zentroen (Aramaio barne) jarduna handitu egin da azken urtean. Hala erakusten du 2012ko eta 2013ko datuen arteko konparazioak. Igoera hori orokorra da; hau da, osasun zentroen zerbitzu gehienetan gertatu da, salbuespenak salbuespen.

Ospitalean, azken horien artean larrialdietako zerbitzuak daude: %1,5 egin dute behera. "Joera hau Euskadiko osasun sare publiko osoan antzerakoa izan da", esplikatu dute Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratutik (ESI).

Baina beherakadarik handiena itxaron zerrendetan gertatu da: kirurgiako itxaron zerrendan %31,77ko jaitsiera izan dute eta kontsulta espezializatuetan, berriz, %16koa.

Gertutasuna bermatu guran
Ospitalearen jardueraren handitzeari dagokionez eta zerbitzu bakoitzaren berezitasunetatik haratago (datuak ondoko taulan), bada arrazoi orokor bat igoera esplikatzen duena: Debagoieneko ESIren helburu estrategiko garrantzitsu bat Debagoieneko erabilitzaileei gertutasuna bermatzea da. Hau da, ahal den kasu guztietan, gaixoak egin beharreko guztia (kontsultak, ebakuntzak...) Debagoieneko Ospitalean egin ahal izatea, pazienteak Donostiara edo Gasteizera bideratzen ibili beharrean. "Hori lantzen dihardugu aspalditik, eta emaitzetan antzematen da. Garrantzitsua dela uste dugu. Ez bakarrik gaixoari berari dagokionez, bai-



Ospitaleko langileak ebakuntza egiten. | VERBAX

IGOERA DATUETAN ETA ZERBITZUKA		
ZERBITZUAK	PAZIENTEAK	IGOERA
Familia medikuntzako kontsultak	270.825	%4
Pediatriako kontsultak	53.879	%4
Kontsulta espezializatuak, lehenak	30.582	%9
Kontsulta espezializatuak, hurrengoak	76.044	%8
Proba diagnostikoak	13.148	%13
Oftalmologia	20.507	%16
Traumatologia	16.614	%11
Urologia	5.818	%12
Programatutako kirurgia	2.180	%18
Kirurgia handi anbulatorioa	1.786	%22
Ebakuntzak, guztira	4.696	%12
Ospitalizazioko altak	5.951	%11
Larrialdiak	36.373	-%15
Etxeko ospitalizazioa	742	%11
Eguneko ospitale kirurgikoa	2.522	%20
Eguneko ospitale medikua	2.415	%12
Itxaron zerrenda, kirurgian	450	-%31
Itxaron zerrenda, kontsultetan	1.962	-%16

DEBAGOIENeko ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA

ta haren familiakoendako ere. Eta Debagoieneko Ospitaleko datuen gorakadan ikusten da jendeak baduela gudan konfiantza", azaldu dute.

Ospitale berria
Horri gehitu diote ospitale berriak ere izan duela eragina osasun zerbitzuaren jardueraren gorakadan. "Asko lagundu du. Erosotasun aldetik gaixoei asko irabazi dute, adibidez, ospitale-ratu behar izan dutenean. Gelak oso erosoak dira; eta batzuk bikotzak izan arren, gela osoa gaixo bakarrai egokitu dakioke behar-raren arabera. Hala, esperientzia horiek zeharka edo ahoz aho zabaltu egiten dira bailarako herrietan, eta gero osasun zerbitzuen datuetan igarri egiten da", adierazi dute.

Igoera handiena: oftalmologia
Bestalde, eta osasun zerbitzuen jardueran igoera orokorra eman bada ere, igoerarik nabarmenena oftalmologiako kirurgian sumatu dute: %65 handitu da. Emandako azalpenaren arabera, besteak beste gaixoen adinaren luzatzeak ekarri du kirurgia mota horren handitzea. Eta adinaren arrazoi berarengatik eta orokorrean kirurgia gehiago bertan egiten delako, eman da, baita ere, ospitalerazetan izandako %4ko igoera.

Beherakada: itxaron zerrendak
Behera (eta nabarmen) egin dute, berriz, itxaron zerrendek, bai itxaroten egon beharreko egun kopuruari dagokionez, eta baita itxaroten egon den gaixo kopuruari dagokionez ere.

Kontsulta espezializatuetan, esaterako, 2012an batez beste 43,04 eguneko itxaronaldia izan zen, eta iaz, berriz, 29,03 egunekoa. Kontsulten kasuan, ospitalearen atzerapen estrukturala da haien atzerapenaren arrazoietakoa bat; beste bat gaixoei eurek jartzen dituzten arrazoiak.

Kirurgiako itxaronaldiari dagokionez, berriz, 450 gaixo izan ziren itxaroten 2013an (%31,77ko beherakada 2012arekiko) eta kontsulta espezializatuetan, berriz, 1.962 (%16 gutxiago).

'Talo solidarioak' Mozambikeko proiektuaren alde

Gaur arratsaldean, egubakoitza, eta bihar egun osoan, Arrasateko Hiper Eroskin Markinako Munduzabal gobernu kanpoko erakundeak *talo solidarioak* salduko ditu. Munduzabalek makina bat lan egiten du garapen lankidetzan, eta Eroskin jasoko duen dirua Mundukidek Mozambiken duen Marrupa programara bideratuko dute. Mundukide eta Munduzabal orain 15 urte sortu ziren.

Fagorreko soldatapeko langileendako irtenbide eskean

"Babesik gabeko egoera latz honetan daude Grumal eta Edesa lantegietako bazkide ez diren langileak; enpresa batek ere ez du ardura bere gain hartzen; ez dago bilerririk egiteko aukerarik, eta erakundeek ere ez dute laguntzarik ematen". Modu horretan salatu du ELA sindikatuak Fagorren soldatapeko langileekin jarraitzeko asmorik ez dutela. Eta haiendako irtenbidea eskatu du.

Larrialdi kasuetarako ikastaroa egingo du Gurutze Gorriak

Lehen laguntzak emateko eta sorospen lanak egiteko ikastaroa antolatu du Debagoieneko Gurutze Gorriak. 40 ordukoa izango da, otsailaren 21etik martxoaren 22ra. Egubakoitzetan eta zapatuetan izango dira eskolak, 18:00etatik 21:00etara eta 09:00etatik 14:00etara, hurrenez hurren, Oñatiko Enpresa-zientzien fakultate zaharrean. 125 euro ordaindu behar da. Izena emateko: 619 00 35 00 telefono zenbakian edo *altodeba@cruzroja.es* helbide elektronikoan.

Burujabetza eta elkartasun soziala bultzatzeko ekimenak

Debagoieneko EHBilduk hitzaldi sorta antolatu du, eta martxoaren 12rako mobilizazioak herri guztietan

AMAIA TXINTXURRETA | DEBAGOIENA
Krisiaren gordintasuna Debagoienera ere iritsi dela salatu du asteon Debagoieneko EHBilduk prentsaurreko baten. Bailarako biztanleek bizi baldintzak kasikartu egin direla azaldu dute, eta gaineratu horren aurrean ez direla isildu eta geldituko. Tokiko garapena eta eraldaketa soziala bultzatzen ari direla adierazi dute eta elkarlanean Debagoiena eraldatzen dihardutela. Bada, besteak beste, hitzaldi sorta iragarri dute,

datorren astean hasi eta martxoaren 26ra bitartean, herririk herri, hain zuzen ere.

Joseba Permach, Pello Urizar...
Hala, eguaztenean, otsailaren 19an, lehena egingo dute Josu Lizarralde Debagoieneko Garapen Agentziako lehendakariak eta Jone Etxeberrria EHBilduren ekonomia arduradunak: *Ehun industrialaren galera eta tokiko garapena*. Antzuolako Olanaren da, 19:00etan.



Debagoieneko EHBilduko ordezkariak, eguazten iluntzean. | AMAIA TXINTXURRETA

Bigarrena, berriz, martxoaren 5ean izango da; kasu horretan, Oñatiko kultura etxean. *Kutxa-bank, banku publikoa eta soziala?* galdera abiapuntu duen hitzaldia egingo dute Ainhoa Beola eta Ino Galparsorok, EHBilduk Kutxa-banken dituen ordezkariak.

Industria krisia eta balore kooperatibistak berba izango ditu, berriz, Pedro Iturbek, Gipuzkoako Diputazioko Garapenerako diputatuak, martxoaren 12a, Arrasateko Kulturaten.

EHBilduren proposamen sozioekonomikoa azalduko dute martxoaren 12an Joseba Permach eta Pello Urizar EHBilduko ordezkariak, Bergarako Irizar jauregian. Azkenik, *Balioen krisia eta politika sozialak Gipuzkoan* izenekoak landuko dute Arantxa Urkaregik eta Ander Rodriguezek martxoaren 26an, Aretxabaletan.

Aratuste ostean egingo dituzte beherapenen azoka gehienak gurean

Arrasaten, ostera, otsailaren 22rako dihardute antolatzen Merkemerka

J. IRIONDO/ U. MADERA | DEBAGOIENA
Nahiz eta beherapenak egiteko datak norberak aukeratzeko bidea izan, eta promozio eta bestelakoak beherapenen data ofizialetatik kanpo egin, neguko beherapenak iristen direnean, ibarreko bezeroei eskaintza erakargarriak egiteko ahaleginarekin segitzen dute Debagoieneko saltoki gehienek. Hala ere, Arrasaten izan ezik, beherapenak poliki samar doa-zela adierazi dute Bergara, Oñati eta Aretxabaletako dendari elkarteetatik.

Oso lasai edo oso poliki
"Poliki-poliki doa, oso lasai; hiri-buruetan-eta lehenagotik beherapenetan zeuden-eta... Bakoitzak egiten du nahi duena. Batzuk azaroaren azkenetarako ipinita zeuden, baita hiriburuetan ere; Gabonetako eskaintzak, beherapen bereziak... Hori bai, aurten eguraldiak lagundu egin du. Ze urtarrila oso txarra egin baitu. Beherapenak poliki joatea oraingoan ez da izan eguraldiaren errua", esan du Edurne Gallastegik, Bergarako Bedelkar dendarien elkarteko presidentea. Eta galdetuta ea igartzen duen orain lehen baino herritar gehiagok erosketak herrian bertan egiten dituztela, erantzun horren gaineko kontzientzia "epe luzera" hartuko dela adierazi du. "Jendeak ohitura handia du hiriburuetara joateko", esan du Gallastegik.
Oñatin ere beherapenen sasoi "oso poliki" doala esan du Argiloain Perosteneak, Txanda dendarien elkarteko presidentea. Eta hiriburuetako saltokien beherapenen eragin negatiboa ere azpimarratu du. "Gabonen aurretik beherapen bereziak jartzen hasten dira, hiriburuetan-eta %70-eta ipintzen dute, eta hemen jartzen badugu %20, esaten digute ez dela ezer. Ia erregalatuta eman ezean, jendeak ez du gura. Zirkulu horretan sartu gara: dena



Saltokiak beherapenak iragartzen, Arrasaten. | UBANE MADERA

da merkatzea, erregalatzea... horrela ezin dugu jarraitu; ez dugu ezta argia ordaintzeko ere. Jendea beti dabil merkeago dagoenari begira, eta jakin beharko litza-teke merkeago jarri duenak zenbat kargatu duen aurretik. Guk horrela kargatuz gero... dagoeneko lapurrak garelako esaten badigute, gehiago kargatuz gero...".
Eta antzerako dabilta Aretxabaletan. "Gabonetako kanpaina nahiko ondo joan zela uste dut, eta beherapenak bestetan baino hobeto joan dira, baina larri gabilta. Hasiera ona izan zen, baina jaitsi egin zen... eta 15 egunotan-edo eguraldiak ez du askorik lagundu", adierazi du Nerea Letek, Aretxarte dendarien elkarteko kidea.
Arrasaten, baikorra
Ikuspuntu positiboagoa dute, berriz, Arrasaten. Ibai Arte merkataria elkarteko kide Angel Alonsok ere eguraldi txarraren eragin onuragarria aipatu du, eta adie-

razi du ezin direla beherapenen garapenarekin kexatu. "Aurten eguraldiak gure alde egin du, eta salmenta aldetik, ondo doa. Ez da etxafuegoak botatzeko, baina nahiko ondo. Eguraldi txarrak beherapen sasoiarekin bat egin du eta horrek ondo egin digu".

Beherapenen azokak
Beherapenak beherapen, baina, Oñatiko Txandako presidente Perosteneak esandako moduan, erosle gehienak Debagoieneko dendari elkarteek neguan egiten dituzten beherapenen azoken zain daude. Aurten inoiz baino beranduxeago egingo dituzte gehienak. "Aratusteetako zapatuan ezin da hori kalean ipini, eta horregatik egingo dugu martxoaren 7an eta 8an", esan du Bedelkarko Gallastegik. Hala, data bera aukeratu dute oñatiarrek euren azokarako. "Martxoaren 7an egun osoan eta martxoaren 8an zapatu goizean egingo dugu. Dendari gehienek dendaren aurreko aldean egingo dute. Eta horren bueltan egongo da kale animazioa... lotzen dihardugu".
Martxoaren 15era atzeratu behar izan dute, berriz, Ixa Debalde azoka Aretxabaletan. "Egun osoan, eten barik egingo du. Txarra egiten badu, frontoian. Bestela akaso kalean. Eskaintza oso onak izango dira. Eta kalean giro ona sortzen da; batez ere eguerdi aldean. Iaz 15 saltoki inguruk parte hartu genuen, eta aurten gehiago izango gara", dio Letek.
Eta esandako moduan, beherapenen azokan goiztiarrenak arrasatearrak izango dira: otsailaren 22rako egin dute Merkemerkaurako hitzordua. Zapatua da, eta egun osoan aterako dituzte eskaintzak kalera; gehienek saltoki aurretara; beste batzuk Herriko Plazara, edo bestelako kale zentraletara.

Bailarako bi ikastetxe saritu egin ditu Jaurilaritzak

Arrasate Institutua eta Oñatiko Zuazola Larraña ikastetxea dira saridunak, bideo lehiaketa batean

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA
Gaztetxoek elikagaiak hondakin ez bihurtzeko proposamenak bideoan jasotzeko helburuarekin antolatutako bideo lehiaketan saritu dituzte gure ibarreko ikastetxe bi horiek. *Zure janaria ez da hondakina* izenburuarekin, lehiaketaren helburua izan da hiritarrak, bereziki gazteenak, sentsibilizatzea sortzen dugun janari-hondakinen kopuru handiari buruz. Eguaztenean jaso zuten saria, Bilbon.

Gipuzkoarrak garalle
Epaimahaiak hiru proiektu saritu ditu: Lanbide Heziketa kategorian, Easo Politeknikoko ikasleak izan dira irabazle; DBH kategorian, Andoingo Aita Larramendi ikastolakoak; eta Batxilergoan, Arrasate Institutukoak (goiko bideoa da eurek aurkeztutakoa). Sare sozialetan boto gehien jasotako bideoari

emandako sariak, bestalde, Andoingo Aita Larramendiko eta Oñatiko Zuazola Larraña ikastetxeko ikasleek jasoko dituzte.
Ikusten den moduan, beraz, nahiz eta lehiaketa Euskadikoa izan, saridun guztiak Gipuzkoako ikastetxeetako ikasleak izan dira. Eta, horren harira, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako zuzendari Ainhoa Iraolak poza agertu du saritu guztiak gipuzkoarrak direlako: "Argi dago kontzientziazioa zabaltzen ari dela Gipuzkoan; gero eta garbiago dugu ezin dugula xahutu eta baliabideak aprobetxatu behar ditugula, baita jana bera ere. Ikastetxetan ere lan polita egiten ari dira hondakinen alorrean, sentsibilizazioa eta jardunbide egokiak ikasleen artean zabaltzen. Joera horren erakusle dira sariak".

Bihar, zapatua, Elorregin aurkeztuko dute Debagoieneko Ernairen kanpaina: 'Hazi, hezi, izan'

Eguerdian egin dute aurkezpenarako hitzordua. "Ekimen xumea" izango dela iragarri dute. "Herrietatik oinez abiatuko gara eta Elorregin egingo dugu topo. Bertan, asanblada antzeko baten bidez, gure ekimenaren nondik norakoak azalduko ditugu eta jendearen ekarpenak, galderak, e.a. jaso. Ondoren, luntxa egingo dugu; sorpresaren bat ere egon daiteke". Bihar aurkeztuko duten kanpaina udara bitartekoa izango dela jakinarazi dute Debagoieneko Ernaiko ordezkariak.



JAGOBA DOMINGO

Parte-hartzea irakurgai

Gipuzkoako hamar eskualdetan garatutako 137 esperientziak (baita Debagoieneko 20 esperientziak ere) jasotzen dituen liburua aurkeztu dute asteon Arrasaten, Kulturaren. Gipuzkoako Diputazioak landutakoa da, hain zuzen, herritarren parte-hartzea bultzatzeko esperientziaren gainekoa. *Herritarrek. Parte hartzeko esperientziak Gipuzkoan (2011-2013)* da izenburua, eta Imanol Azkue egilea.

ESANAK

"Oraindik jendeak ohitura handia du hiriburuetara joateko"

EDURNE GALLASTEGI | BEDELKAR

"Aurtengo beherapenen hasiera ona izan zen, baina gero jaitsi egin zen"

NEREA LETE | ARETXARTE

"Ia erregalatuta eman ezean, jendeak dagoeneko ez du gura"

ARGILOAIN PEROSTENEA | TXANDA

"Aurten eguraldiak gure alde egin du, eta salmenta aldetik ondo doa"

ANGEL ALONSO | IBAI ARTE

ZABALIK

BEÑARDO KORTABARRIA
goiena.net/komunitatea/



Etor zaitezte Antzuolara

Aurrekaririk ez duen eta aurrekaririk ezarriko ez duen ekintza burutuz, behingoagatik, antzuolar baten partez, zorionak, Bergara! Zorionak, Santa Ageda bezpera seinalatuan aterik ate atez atekoarekin hasteagatik. Ea ohitura zahar bihurtzea lortzen duzuen!

Hori bai, kostatu zaizue! Astero-astero ia modu obsesiboan idatzi dituzuen gutun labur eta luzeen bidez, majo asperrarazi gaituzue GOIENAKo gainerako irakurleak, eztabaidak egin dituzue, prentsurrekoak, bina-ka-hirunaka-launaka... plastikozko poltsez bete dituzue etxeetako balkoiak, bailaraz haratagoko komunikabideen arreta modu erraz susmagarrian erakarri duten manifik antolatu dituzue... eta gutxi, oso gutxi, izan zarete Antzuolara zuzenean galdetzeraz, ikustera, edo beste barik, bisita egitera etorri zareten bergararrak. Eta harritzen nau, gure gauzatxoak badauzkagun arren, oro har bergararrari harrera ona egin izan diogulako herri honetan.

Usain txarrez inguraturik bizi ei gara Antzuolan, arratoiak ez zapaltzeagatik malabarismoak egiten maisutza hartu ei dugu, eta gainera masokismotik oso gertu ei gaude, hondakinak biltzeko sekulakoak eta bi egin behar izaten dugulako eta gainera beste inon eta beste inork baino diru gehiago ordaintzen. Gutxi gorabehera, hori izan da gutaz, han eta hemen behin eta berri, esan izan dena.

Esatetik izatera, baina, aldea handi samarra izan ohi da. Atez atekoaren inguruko guztiari hasiera eman zitzaienetik, bergararra Antzuolara gutxienez behin etorri izan balitz, herria garbi samar aurkitzeaz gain, argi ikusiko zukeen: esatetik izatera alde handia dago. Atez atekoa erraz egiten da, herrian ez dago usainik, eta gauzak txintxo eginda, birziklatze-tasek nabarmen egiten dute gora, denok nahi omen dugun moduan. Arazoak nahita gaizki egindakoan sortzen dira, hori hemen ere bizi izan dugu. Etorri, ikusi eta ikasi, txikiak ere zer irakatsi badu-eta.

USTEAK USTE

MIREIA BIKUÑA | mbikuna@goiena.com

Desfibriladoreak eta kirola

Urtzi Gurrutxagaren ezusteko heriotzak berriro areagotu du kirol instalazio guztietan desfibriladorea egotearen garrantzia eta beharra. Kirolari naizen aldetik, baina batez ere kirola egiten duten bi alabaren ama naizen aldetik, kezkatuta nago. WhatsApp bidez jaso dut Tolosako jokariaren arrebak idatzitako mezua, desfibriladoreen garrantzia azpimarratuz. Gainera, Eusko Jaurlaritzari eskaera bera egiteko mezua dabil aurrera eta atzera Facebooken. Oñatin, adibidez, Zubikoa kiroldegian eta Azkoagain futbol zelaian badaude desfibriladoreak, baina beste herri batzuetako kirol instalazioetan? Nik Facebookeko eskaera partekatu dut.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.net/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Otsein, Bergarako morroia

Marijo Deogracias
blogak.goiena.net/marijo/

"Badirudi Roomba aspiragailu elektronikoak ireki duela bidea beste batzuk ere etxerako otsein elektronikoen merkatuan sudurra sartzeko, eta niri neuri arreta eman didaten hiru adibide ekarri nahi dizkizuet gaurkoan", irakurri diot Joxe Rojasi bere *Teknopata* blogean. Eta, Maite Goñiren *#gaurkohitza* tarterako berba egokia iruditau zait *#otsein*. Izan ere, Bergarako MAYCen egiten ziren etxekotresna txikien marka hari esangura topatu diot, nahi gabe! Joxeren artikuluan ikusi ahala, *euskalbar* erabili dut eta hainbat emaitza jaso ditut bueltan: *Elhuyar*, *Orotariko Euskal Hiztegia*, *Hiztegi Batua*. Hainbeste urte eta gero *otsein* izenak esangura duela deskubritu dut (nire ezjakintasunaren erakusle).

Eta, horrela, ba, Google orojakitunari galdetu diot "Otsein Bergara" eta Hoover enpresaren webgunera eraman nau. Izan ere, Otsein eta Hoover etxeak batera ari dira

azkenaldian. *Otsein-Hoover Historia* atalak dioenez, 1951n kaleratu zuen Bergarako MAYC-ek etxeko lehenengo garbigailu automatikoa Otsein markarekin. 1992an Candy etxeak erosi zuen MAYC, baina Otsein markari eutsi zioten. [...] Azken boladan, beraz, Otsein-Hoover batuketaren ondorioz Hoover da merkaturatzen den marka; gure *#robocom* aspiragailu robota, esaterako, Hoover da eta italieraz zekartzan argibideek diotenez "ritorno automatico alla base di ricarica" egiten du; nik ere nahi gabe, etxe ondora jo dut, "automatikoki".

Onintza Enbeitak gaztelaniaz errimatu beharko ez duen egunaren zain

Onintza Irureta
argia.com/blogak/onintza-irureta/

Onintza Enbeitak ez du inondik ere bertsolari sena galdu Madrilgo diputatuen kongresuan. Atzo, PPK ezarri

nahi duen Abortuaren Lege berriaren harira, errima polita osatu zuen "moño" eta "coño"-rekin. [...]

Zertara datozen atzoko "moño" eta "coño"? Bada, gaur, Madrilgo diputatuen kongresuan, beronen araudia aldatzeko eztabaida prozesua abian jarriko dute. [...]

Araudia aldatzeko proposamenak gisa honetakoak dira: kongresura joan ez denari (arrazoitze gabe) isuna jartzea; diputatuen sartu-irtenak fitxatzea; oporrak abuztuan izatera behartzea; eta abar.

Baina, badira gai batzuk bereziki arantzatsuak direnak, alderdiek adostasunik lortu ez eta 1982ko araudia iraunarazten dutenak. Horietako bat Hego Euskal Herriko alderdi abertzaleek eskatutakoa da, alegia, kongresuan hizkuntza koofizialak erabiltzea.

2007an egin zen araudia aldatzeko azken saiakera eta porrot egin zuen, besteak beste hizkuntzen gaian alderdiek bat egin ez zutelako. Ea oraingoan bestelako berriak ditugun, eta Enbeita kongresuan zarra-zarra euskaraz errimatzen entzuten dugun. Kongresuen diputatuen araudia aldatzeaz informazio gehiago eldiario.es-en.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Uliane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOTZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Diffusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRTIZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Atez atekoarekin %8,1 gutxiago birziklatuko dut

Anjel Guridi
Aretxabaleta

Aretxabaletan badira urte batzuk hasi ginela bosgarren edukiontzia probatzen; sistema hau erabilia, 2012. urtean etxeko hondakinak neurtu genituen: 582,7 kilotik %96,6 izan ziren birziklatzeko (562,7 kilo) eta %3,4 zaborra edo errefusa (20 kilo).

Orain atez atekoa jartzeko asmoa dute ekainerako, ariketa txiki bat egin dut 2012ko etxeko emaitzarekin eta Oñatiko atez ateko sistema hartuta: hau da, organikoa 3 aldiz ateratzen da asteen kakora, ontzi arinak 2, paper-kartoia 1 eta errefusa 1 (beira edukiontzi berdean batzen da; hortaz, Aretxabaletan bezala).

Errefusaren kasuan ez dago arazorik, berdin banandu daiteke. 52 aldiz ateratzen da urtean eta gure etxean 15 aldiz atera dugu 2012an.

Ontzi arinarekin, kontuan hartu behar da urtean 104 aldiz ateratzen dela atez atekoarekin eta gure etxean 149 aldiz atera dugula 2012an. Baina bi poltsa jarri daitezkeenez egun berean, ez dago arazorik dena jasotzeko.

Paper-kartioen kasuan hasten gara arazoekin; atez atekoan, kaxa urdin baten atera behar da (bat bakarrik), urtean

52 aldiz. Gure etxean 59 aldiz atera dugu 2012an (111,5 kilo); horrela, 13 kilo gutxiago batuko ziren atez atekoan.

Organikoarekin antzerakoa pasatzen da, kaxa marroi baten ateratzen da (bat bakarrik), urtean 156 aldiz. Gure etxean 175 aldiz atera dugu 2012an (315,4 kilo); honek ematen du atez atekoarekin 34,2 kilo gutxiago batuko zirela.

Konklusioa: gure etxean bost edukiontzi sistema erabilia %96,6 banatu badugu birziklatzeko, atez atekoarekin %88,5 lortuko genuke; hau da, %8,1 gutxiago.

Aretxabaleta eta atez atekoa

Xabier Basabe
Aretxabaleta

Aretxabaletan ere, Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, hilabeteak dira zaborraren auziarekin gora eta behera gabiltzala, esango nuke jadanik aditu bihurtu garela zaborrak kudeatzeko sistemetan. Eta ez da gutxiagorako! Izan ere, Euskal Herriak bizi duen garai honetan ez dago ezer garrantzitsuagorik!

Horrela, bada, Aretxabaletan, 2012ko azaroan, udalak ideien zaparrada deitu zuen, herritarrok zaborra kudeatzeko sistemei buruzko proposamenak egin genitzan. Proposatutako hondakin bilketa

sistemak lau baldintza bete behar zituen: derrigorrezkoa, selektiboa, pertsonalizatua eta %80tik gorako gaikako bilketa tasa zuena.

Uste dut bosgarren baldintza bat ahaztu zitzaiela: "Atez atekoa izan behar da". Baina tira, hala ere, herritar batzuk animatu ginen proposamenak egitera.

Aretxabaletarrok aurkeztutako sei proposamen jaso zituzten, horien artean ez zegoen atez atekoa, itxuraz ez zegoen proposamen horren beharrik edota sistema honen aldekoek bazekiten hau guztia "antzerki" bat besterik ez zela eta proposamena aurkeztu beharrik ez zutela.

Sei proposamen horietatik bakar batek ere ez omen zituen lau baldintzak betetzen, gehienek ez zuten "pertsonalizatu" hori ziurtatzen. Dirudienez, atez atekoak bai! (Egia esan, herritarren borondaterik ez badago, eta beste herri batzuetan bezala, jendeak ohiko zabor poltsa zintzilikario ondora jaurtitzen badu, badute norena den asmatzeko biderik?...).

2013ko apirilean, berriz, udalak deituta, mankomunitateko teknikari eta herritarrekin batera batzar bat egin zen zaborrei buruzko kudeaketaz eztabaidatzeko. Bertan oso garbi gelditu zen herritarrek aurkeztutako proposamen bat bera ere ez zela onartzen. Aurrerago, beste batzar bat egingo zutela ere esan zuten, baina...

lehenengoarekin nahikoa izan zaie hasieratik zuten ideia aurrera eramateko.

Kontuak kontu, bilerak bilera, pasa den asteen Aretxabaletan atez ateko hondakin bilketa sistema jarriko dela martxan iragarri digute.

Guztiz zilegia iruditzen zait hauteskundeetan gehiengoa lortu zuen Bilduk berari aproposena iruditzen zaion sistema abian jartzea, baina zertarako aurreko "antzerki" hori guztia? Aretxabaletako atez atekoa herriaren parte hartze prozesu demokratiko baten ondorio dela esateko?

Hurrengo baten, gure agintariok egin ezazue ondoen iruditzen zaizuen, baina eziezaguzue iritzirik eskatu benetan entzuteko intentziorik ez baduzue, eta aurretik erabakiak hartuak badituzue, politikatik bizi ez garenok ez baitugu denbora alferrik galtzeko!

Aldaketa klimatikoa

Josu Garitaonandia
(Equo Bergara)
Bergara

Gure etxeak, Lurrak, aldaketa klimatiko ugari izan ditu, izotz garaiak eta guzti; aldaketa bakoitza izaki bizidunek sufritu dute eta aldaketara denboraz ez direnak egokitu desagertu egin dira. 10.000 urtean hozberoa

bost graduko aldaketak egon dira eta izaki bizidunek denbora horretan egokitu behar izan dute.

Orain, gizakiak sortutako aldaketa klimatikoarekin, 2050ean bost gradu inguru gehiago edukiko dugu. Izaki bizidunek ez dute denborarik egoera berriari ohitzeko, eta, gainera, etengabe berotzen joango den arriskua daukagu.

Venus planetan CO2 asko dago eta 500 gradu inguruko hozberoa, eguzkitik gertuago dagoen Merkurio planeta baino 100 gradu gehiago ditu.

Ekonomian galera galantak ekarriko ditu; orain dela 500 urte egon zen hotzaldi txikian Valentziako laranja eta limoi zuhaitzak desagertzen joan ziren. Orain jasango duguna aldaketa bortitzagoa izango da, batez ere, herrialde txiroetan.

Gizakiaren historiako une kritiko honetan ezin dugu galarazi aldaketa klimatikoa, bertan gaude murgildurik; ziur asko, aurtun gure kostaldean jasan ditugun ekaitz eta olatu handiek eragindako kalteak aldaketa klimatikoaren froga bat izango dira.

Kontua da bere ondorioak gutxitzea, eta ezinbestekoa da gure Ama Lurrean bizi garen gizaki guztiak elkarlanean hastea; planeta bat daukagu eta gure etxea balitz bezala bere hozberoa kontrolatzen ikasteko asko falta zaigu. Bitartean, gure eskuetan dagoen dena egin dezagun: ingurugiroa zaintzeaz gain, esaten diguten aholku guztiak praktikan ipintzen.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizenziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00




Tel.: 943 08 10 50
banaketak@batubanatu.com

Banaketa aukera ezberdinak

- Banaketa **masiboa**.
- **Autoz auto** banatzea.
- **Kartelak** ipini.
- **Banaketa pertsonalizatua** (bezero edo hartzaile konkretuei).
- **Goiena paperarekin** batera (astelehenetan eta ostiraletan).

Banaketaren jarraipena eta kalitate kontrola egiten dugu.



Gure langileak Gizarte Segurantzaren altu emanda daude eta lan-arrikuaren prebentzio legegia betetzen dugu.

Eskatu aurrekontua konpromiso barik!

Chiharu Nakanishi | Tokioko Kunitachi unibertsitateko doktorea

"Harritu egin gaitu ingelesa ikasteko ikasleen kontzentrazio gaitasunak"

- Nakanishi doktore japoniarra Euskal Herrian da ingelesa ikasteko metodoak ikertzen
- Japoniako unibertsitate ikasleek duten ingeles maila eskasa dela-eta etorri dira gurera

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Chiharu Nakanishi doktorea eta bere taldea Euskal Herrian dira egunotan. Ikastolen Elkartek ingelesa erakusteko darabilen metodo berritzailea ikertzen ari dira. Izan ere, Japonian ardura-tuta daude unibertsitatera heltzen diren ikasle gehienek ingeles maila kaskarra dutelako. Egunitan zenbait ikastola bisitatzen ibili dira; tartean, Bergarako Aranzadi Ikastola.

Noiz etorri zarete Euskal Herrira eta noiz arte egongo zarete?

Joan den egubakoitzean heldu ginen eta aste osoa emango dugu hemen. Egubakoitza aprobetxatuko dugu turismoa egiteko, inguru hauek ezagutzeko. Donostian, Zurriola eta Santo Tomas Lizeoa ikastoletan, Lazkaon eta Bergarako Aranzadin izango gara, bertatik bertara, irakasleekin eta ikasgeletan bertan.

Ze iruditzen zaizue Bergaran ikusi duzuen?

Ikaragarria. Txundituta geratu gara ikusi dugunarekin. Batez ere harritu egin gaitu zelako motibazioa duten ikasleek ingelesezko ahozketasuna lantzeko. Harrituta gelditu gara, baita ere, ikasleek duten kontzentratzeko gaitasunarekin.

Europako beste toki batzuetan izan zarete?

Italian egon gara, Sardinian, eta ikusi ahal izan dugu han zela ematen dituzten ingeleseko klaseak Informazio eta Komunikazio Teknologietan. Bestalde, udan izan nuen Euskal Herrian ingelesa erakusteko darabilzuen CLIL eta Eki metodologiaren berri, Ikastolen Elkarteko Phil Ballen bitartez. Harremanak egin genituen eta hemen gaude.

Japonian ze adinekin hasten dira ikasleak ingelesa ikasten?

12 urterekin, baina 10 urterekin hastea da asmoa. Horrek, hala ere, arazoak eta eztabaida sortzen ditu. Iraultza izango litzateke guretako. Bi eztabaidagai daukagu horri dagokionez: alde batetik, ingelesa ikasten hasteko adin mugak non egon behar duen zehaztea; eta bestetik, ingeles klaseak japonieraz ematen direlako Japonian eta hori aldatzea eta klaseak ingelesez ematen hastea sekulako iraultza izango litzatekeelako. Ikusi dugu Euskal Herrian 4 urterekin hasten direla ingelesa ikasten eta bertatik bertara ikusi ahal izan dugu Aranzadi Ikastolan gizarteko



Chiharu Nakanishi martitzenean Bergaran. | ENEKO AZKARATE

klase bat ingelesez ematen DBH-ko 4. mailan. Benetan inpresionatuta geratu gara ikasleen jarre- rarekin eta klasean daukaten parte hartzearekin.

Japonian zenbat denbora behar dute ikasleak ingelesa menderatzen hasteko?

2.000 ordutik gora. Baina, esandako moduan, 12 urterekin hasten dira Japonian ingelesa ikasten eta, hortaz, unibertsitatera iritsi orduko, 900 bat ordu bakarrik eman dituzte. Hori oso gutxi da. Horregatik. Horregatik nahi dugu hemen

"Ahozketasuna lantzeko ikasleek duten motibazioa nabarmena da"

"Japonian, 12 urterekin hasten dira ikasleak ingelesa ikasten"

aplikatzen duzun CLIL metodoa aztertu eta ikusi horren zatiren bat aplika genezakeen Japonen. **Japonian unibertsitatean dauden ikasleen ingeles maila kaskar samarra dela diozue. Zergatik da hori?** Ordu gutxi eskaintzen zaiolako eskolan ingelesa ikasteari, 900 ordu inguru, esan dudan moduan. Baina, bestalde, ikasleak unibertsitatera heltzea da Japoniako hezkuntzaren helburu nagusia eta ikasleek ingelesezko idatzizko proba pasatzeko gogor ikasten dute, nahiz eta, gero, ahozketasu-

nean hutsune handiak eduki. Eta, horregatik, guri oso interesgarriak iruditzen zaizkigu ikastolek dauzkaten Eki edo CLIL moduko metodologiak, ahozketasunean eta jarduera praktikoa edo proiektuetan oinarrituta daudelako.

Azterketetan oinarritutako sistema da zuena?

Bai, eta inportantzia handia ematen zaio horri. Japonian oso gutxi hitz egiten da ingelesez eta unibertsitateko ikasleen %80k oso maila kaskarra daukate. Hezkuntza sistemak ez du astirik ematen ikasteko ingelesa ganoraz berba egiteko. Baina ahozketasunari ere garrantzia eman nahi zaio eta gauzak aldatzeko bidean gaude, aukera bat eman nahi zaio aldatetari, ahozketasunari. Sistema aldatu nahi dugu, baina etsamintetan dago oinarrituta guztia. Japonian unibertsitatera sartzeko ikasleei ingeleseko A-2 maila eskatzen zaie. Hemengo ikastoletan, frantsesean DBH bukaeran lortzen duten maila bera.

Europar ingelesaren eragina oso nabaria da, hedabideetan, Interneten, IKTetan... Japonian ere bai?

Ez, ez da horrenbestekoa, japoniera babestuago dago eta ingelesetik asko itzultzen da. Interneten dena dago itzulita japonierara... Baina jabetuta gaude ingelesari garrantzi handiagoa eman behar diogula, badakigulako oso hizkuntza garrantzitsua dela munduan. Horregatik gabil-tza ikertzen munduko beste toki batzuetako ereduak.

Lortu nahi duzuen ereduak da Euskal Herriko ereduak?

Zati batean, eta dosi txikietan, aplikagarria dela iruditzen zait. Zelanbait esateko, pausoz pauso aplikatzen joan beharrekoa. Orain, arazoa da motibazioa. Japoniako ikasleak ez daude ingelesa ikasteko motibatuta, idatzizko azterketa larregi gaitzitu behar izaten dituzte-eta. Ikusten dugu Euskal Herrian lanen edo egitekoen bitartez ikasten dutela ikasleak, proiektuak egin ahala eta ez buruz, etsamina gaitzitzeko. Motibazioa oso garrantzitsua da eta Eki proiektuan, esaterako, erabiltzen da sarri. Hori oso interesgarria da guretako.

Ikastoletan jasotako esperientziarekin ze egingo duzue?

Ikerketa idatzia prestatuko dugu eta saiatuko gara urkezten Hezkuntza Ministerioan, unibertsitatean... Nahiko genuke lehenengo aplikatu geure eskolan eta poliki-poliki zabalduz joan.

Bertakoa eta sasoikoa

Telebistako programazio berria
Hainbat berritasun otsailean eta martxoan

- ▶ Programazio berria prestatu dugu familia guztiarendako.
- ▶ Protagonistak eta gertaerak bertatik bertara aurkeztuko ditugu.
- ▶ Edukiak, gauzak kontatzeko modua eta itxura, berrituta.

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

DUELA 10 URTE

2004-02-13

'Asteleheneko Goienkaria' jaio zen

Otsailaren 16an kaleratu zen *Asteleheneko Goienkaria*-ren lehen zenbakia. 32 orri zituen, 0,80 eurotan saldu zen lehen zenbakia eta lantalde bat propio eratu zen aste-kari berriarentzat. Lehen zenbakiaren aurreko egunean egin zen aurkezpen ofiziala Arrasateko udaletxeko osoko bilkuren aretoan, eta ibarreko elkarte, talde eta enpresen babes zabala izan zuen. Elkarlarenako beste bide bat zabaldu zen.



Aurkezpen ekitaldiko argazkia. | XABIER URZELAI

2004-02-13

Zerrajerako sarrera, monumentu

Orain dela 10 urte izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak Zerrajerako lantegiko sarrera monumentu, *erlojuaren eraikina* izenez ezagutzen dena. Euskal Kulturaren Ondarearen Zerrendan sartu zen horrela. Arrasateren izaera industrialaren lekukotza ematen duen monumentu bakanetakoa da Zerrajerako eraikina eta Udalak ordenamendutik kanpo mantentzen duen eraikinetako bat da.

DUELA 5 URTE

2009-02-13

Candy Hoover krisian

Krisiak eragindako lehen lan erregulazio eskaerak hasi ziren ordurako. Debagoieneko dozena bat enpresak zeukaten eskaera egina eta zerrendara batzen hurrengoa Bergarako Candy Hoover izan zen. 420 langile zituen orduan enpresak, eta, zenbait hilabeteen, hainbat egunez ekoizpena geratzeari eskatu zuten.

BERGARA

Karmele Agirre Bergarar peto-petoa da jaiotzez argentinarra den Agirre. Hemengo bizimoduaren parekorik ez dela dio; gusturen tabernako barraren osteko aldean egoten da. | JON BEREZIBAR

"Kalean ibili eta jendea agurtu edo berba egiten geratzeari gauza ederra da"

Gaztelarazko azentuarengatik ez balitz, ezer gutxi salatu luke Karmele Agirre (Buenos Aires, 1957). Bergarako du ama, Mari Carmen Arantzabal, eta hark inoiz ez zuen jaioterriarekin katea eten. Banandu eta gero, 47 urterekin etorri zen lehen aldiz amaren herrira, hemen geratzeko. Bada, heltzerakoan, bizi osoa Bergaran egin zuela iruditu zitzaion, amari hainbestetan entzundakoak ezagun egiten zitzaizkiolako; hunkitu egin zen.

Argentinaren euskaldun petoa, baina guztiaren gainetik bergararra jadanik, ezta?

Argentinan bizi ginenean ere bertako euskaldunen inguruan egiten genuen bizimodua. Gure aitak danborrada antolatzen zuen, Lomaseko euskal etxeaz arduratzen zen, txikitatik egin izan ditugu euskal dantzak... Euskal etxean hazitakoa naiz ni. Realekoak ginen, Argentinan bizita ere, imajinatu zer den hori futbolaren herrialdean!

Ondo ikasita etorrita ere, egokitzea beti izaten da nekeza.

Lehen urtea zailagoa egin zitzaidan, kulturak oso desberdinak direlako; askoz ere modernoagoa da hemengoa, eta alde dago. Halere, asko gustatu zitzaidan

bizimodua eta primeran egokitu nintzen. Konparaezina da hemengo bizimodua hangoarekin: segurtasuna, ekonomia maila...

Han krisia atzean laga eta hona etorri eta hemen ere atzeraldia hasi berri...

Baina alde ederra dago. Desbeldina da. Argentinan eskola baten sarrerara joanez gero, atentzioa ematen du, oraindik ere, zapatilak apurtuta zenbat ume ikusten diren, egoera latza da.

Aldea ere ederra Buenos Aires bezalako hiri batetik herri batera etortzea, ezta?

Bergara herri bat bada ere, ez da hain "herria", gauza asko dago. Nik nahiago dut Bergara, duda barik. Jaiotzez argentinarra banaiz ere, ni Bergara eta Donostia maitatuz hazi ninduten.

Erraza egin zaizu sustraiak hemen sartzeari?

Lagun berriak egiteko kontu hori hemen oso-oso itxia da. Benetako lagunak ezin izan dit hemen egin. Lagun moduan har ditzakedanak orain euskaltegira joaten hasi naizenean egin ditut, eta, artean ere, perutarrek, txiletarrak... denak gara etorkinak. Ez da nahi ta egindako gauza bat, baina gizarteak ez ditu bertan sartzeko ateak irekitzen. Nik hemen, hala ere, familia osoa daukat; oso

HERRITARRAK



Karmele, Kayak tabernan, egungo lantokian. | JON BEREZIBAR

"Konparaezina da hemengo bizimodua hangoarekin zentzu askotan"

"Askok edaten du euskaldunak, baina edaten ere jakin badaki"

familia ezaguna herrian, arantzabaldarrena, osaba-izebak, lehengusuak... Askok lagundu didate senide guztiek eta baita Bergarako herritar askok ere. Nire euskarri nagusi izan dira. **Jator hartu zintuzten, orduan.**

Hainbat tabernatan jardun izan dut eta herriko jendearekin oso harreman estua daukat. Bihotzez maite ditut bergararrak, baina zaila da inork elkartera afaltzera gonbidatzea, esate baterako. Kua-drilla baten sartzeko modurik ez dago. Esan beharra dut, dena dela, mundu guztian horrela dela, ziurrenik, eta nire Argentinako auzora kanpotar bat baletor ez dakit etxera zerbait hartzera gonbidatuko zuketen. Euskal Herrian immigrazioa berria da, nolabait esatearren, eta ikasten gabiltza. Aldatzen dabilelakoan nago, hala eta guztiz ere.

Zer da Bergaran egitea gehien gustatzen zaizuna?

NIRE HERRIAN

SAN PEDROKO IKUSPEGIA

"Bergaratik gehien gustatzen zaidana da toki baten geratu eta aldi berean ikusi ahal izatea mendia, Deba ibaia eta herria. Zoragarria da. Bolun bizi naiz eta San Pedron gora joaten naiz, handik mendi eta inguru eder guztiak ikusten baitira. Mendira igotzea ez horrenbeste, baina ikustea ederra da".

EURIA ETA URTAROAK

"Ohitu egin naiz, baina euria eta sarri luzaroan eguzkirik ez ikustea deigarria eta gogorra egin zitzaidan hasieran. Otsaila zen etorri nintzenean eta ezin nuen ulertu nola bizi zitekeen eguzkirik gabe. Gainera, urtarok Argentinan alderantziz dira eta ezin kokatu ibili naiz urte askoan. Oraindik ere arraroa egiten zait".

Barraren beste aldean egotea, jendearekin hitz egitea.

Taberna, hain zuzen, bizitza sozialaren bizkarrezurra da hemen.

Hori banekien, bai, eta Argentinan deigarria egiten zitzaion hori, aitzak sekula ere ez baitzion ohitura horri laga eta ulergaitza zen lan ostetik etxera baino lehenago tabernara joatearen kontua. Askok edaten du euskaldunak, baina esango nuke edaten ere jakin badakiela; izan ere, tabernan lanean egin ditudan urteetan ez dut eztabaida gogorrik edo borrorarik ikusi.

Zein da Bergarako zure txoko kutuna?

Santa Marinako zubia ederra iruditzen zait eta San Pedroko elizara noanetan, amaren istorioek gainez egiten didate; leku maitea da. Kalean ibili eta jendea agurtu edo hitz egiten geratu ahal izatea ere ederra da. Hemengo bizimodua gogoko dut.

HERRIAK

ARRASATE

Ezinbesteko konponketa lanak Santa Agedako elizan

Gesalibar auzoko Santa Ageda elizaren teilatua eta aterpea konpontzen dabilta urtarrila ezker

MIRARI ALTUBE | ARRASATE
Aldamiozko soinekoa jantzi diote Gesalibar auzoko elizari, konponketa lanak egiteko ezinbesteko trajea. Aramaiora bidean dagoen Arrasateko auzoak eliza dotorea dauka errepide ertzean, harrera egiteko gertu, auzora datozen kanpotarrei; baina urteotako euri jasek, haizeteek eta tenperatura aldaketek apurketak eragin dizkiote han eta hemen. Horiek konpontzen dabilta orain.

Aterpea, egoera arriskutsuan
Urtarrilean hasi zituzten lanak, Gabon jaiak bukatu eta berehala. Eta ondo bidean, hiru bat hilabetean bukatuta izango dituzte. Teilatua berritzen dabilta: "Teilak aldatuko dira, baina egitura ia ez dute ukituko, bi egur handi bakarrik aldatuko dituzte", jakinarazi du Horacio Argaratek, Arrasateko parrokoak. Eta aurrealdeko aterpea bota egin dute berria egiteko. Azken horrek zuen premiarik handiena, hainbat pusketajausita zituelako; hori horrela, itxi beharrean izan ziren azken asteetan inor ez pasatzeko bertatik. Aterpe hori, gainera, askoren babesleku izan ohi da: elizara datozen auzotarrena, autobusaren zain egoten diren bisitariena eta denbora-pasa erretzen egoten direnena. Eta disgusturik izan aurretik ekin diote konpontzeari. Bertatik kendutako zutabeak gorde egin dituzte berriro jartzeko: "Urte asko dituzte eta halakoak gordetzea komeni da".
Kanpotik egingo dizkioten eraberritze lanekin batera barruan



Aramaiora bidean, errepide ertzean dagoen Gesalibarko Santa Ageda eliza. | MIRARI ALTUBE

ere egingo dute konponketa txiki bat. Aldarera igotzeko zegoen egurrezko eskailera kendu egin dute, pipiak guztiz janda zegoelako: "Hileta batean, eskailerrak igotzen hasi eta barruraino, belauraino, sartu nuen hanka", argitu du Argaratek. Izan ere, ura eta hezetasuna ez dira egurraren lagun; bai, oster, termitena, eta elizaren azpialdea urez inguratuta dago.

DATUA

180

MILA EURO

Gesalibarko elizaren eraberritze lanek 180.000 euroko kostua dute.

Hori horrela, harrizko eskailera jarriko dute orain, hareharriz egindakoa.
Behin adostutako eraberritze lanak eginda, zergatik ez margo-tu hezetasun arrastoak dituzten barruko hormak? "Eta gero argiztapena aldatu eta hau eta hori... Konponketa batek beste bat ekarriko luke eta ez dagoenean ez dago. Oraingo, ezinbestekoa egin-

da konformatu beharko dugu", dio. 180.000 euroko aurrekontua dute lanok eta Arrasateko parrokiek egingo diote aurre gastuari, hasiera batean: "Auzoari ere eskatuko diogu gero, poliki-poliki, ahal duen heinean, eta interesik gabe dirua bueltatzeko, eta eskaeraren bat ere egingo dugu".

Balio historikoa eta artistikoa
XIII. menderako ba omen zegoen elizatxo bat Gesalibarren, data hori jarri diete, behintzat, aurrealdeko arrasto batzuei. Eta egungo eliza XVI. mende erdialdean eraikitakoa da, aurrekoaren aztarnen gainean. Hainbat balio dituen eliza da gainera: "Kanpotik begiratuta ermita handi bat ematen du, baina barruan baditu bere balioak eta hainbat alditan izan da ikertua", dio Argarate parrokoak.
Balio historikoa dauka, batetik, eta orain arkeologoaren zain daukendu duten egurrezko eskailera azpia azter dezan: "Aztarna batzuk topatu izan dira, eta arkeologoa etorriko da begiraturtxo bat emateko eta haren oniritzia jasotzeko barruko obra taxuz egiteko". Baina garrantzitsuagoak dira balio artistikoak: "Erretaula dago, batetik, ikertua izan da eta doktore tesia ere egin dute horrekin. Hortaz, bere apaltasunean, badu balioa; eta bestetik, sabaiko nerbadura dago, artistikoki berezia".

Hurrengoa, Bedoñako eliza
Bedoña auzoko Santa Eulalia eliza konponduko dute hurrengo, Gesalibarko lanak bukatu orduko: "Era ederrean konpondu zela ez dira urte asko pasatu, polit askoa jarrita dago, baina, haizete lekuan dagoenez, teilak hondar bihurtuta daude, desegin egiten dira. Gainera, horma batetik eta kanpandorretik ur asko sartzen da", dio Argaratek. Bi obretarako materiala batera erosi dute, teilak, esaterako, gastua murriztu aldera.
Eta bi horiek egindakoaan bukatuko dituzte elizei dagozkien obra guztiak. Beste batzuek ere izango dituzte premiak, baina, oraingo, itxaron egin beharko dute.

ESANAK

"Eskailerrak igotzen hasi eta barruraino sartu nuen hanka"

"Aterpeko zutabeak gordeta daude berriro jartzeko"

HORACIO ARGARATE | PARROKOA

Eliza apala, baina balioduna

Balio artistikodun eliza da Gesalibarkoa. Santa Agedari eskainitako erretaula apal baina dotorea dauka aldare gainean. Auzoko zaindaria erretaularen erdi-erdian dago eta haren bi alboetan beste bi emakumezko martiri: Santa Katalina eta Santa Maria Madalena (zalantzan). Goiko partean eta azpian, oster, santuaren bizitzako pasarte batzuk daude irudikatuta. Otxandioko Andres Garzia de Urigoitia eskultoreak egindakoa da, eta Ana Isabel Ugalde historialari arrasatearrak aztertu eta ikerketa lanean jasotakoa.
Eta XIV-XV. mendeko nerbadura dotorea du sabaian, irudi bitxiak dituela zizelkatuta.
Aztarnak ere aurkitu izan dira eliza azpian, "harri luze batzuk", dio Argaratek, mende askotan bizi izan direla auzotarrak frogatzen ei dute. "Auzoan dauden iturriekin zerikusia ei dute aztarnak, buztzingintzarekin edo...". Aldundiko adituek aztertuta daukate kontua, eta orain ere etorriko da arkeologo bat begiratzera.




Santa Agedari eskainitako erretaula. | M.A.

Maite Albese egin du Aratusteetako kartel irabazlea

J.B. | ARRASATE

"Arrasaten dugun artista kua-drilla ikusita, harrituta jaso dut albiste. Sorpresa atsegin izan da", hala azaldu digu Maite Albese atzo jaso zuen berria. Harena da aurten Aratusteetako kartela; herriko ikurra den sardina erabili du kartela egiteko, eskuz hainbat zirriborro egin ostean. Aratusteak direla-eta, asteleheneko *Goiena* paperean erreportaje berezi bat kaleratuko dugu argazki zaharrekin, pertsonaia historiko batzuen ahotik.



Kartel irabazlea. | MAITE ALBES

Elkartruke ekimenari esker, mozorro trukea egongo da bihar

Trukearen kultura hedatzeko helburua duen Elkartruke ekimenak mozorroak trukatzeko aukera eskainiko du bihar Azoka plazan. Mozorroen trukea 12:00etan egingo dela iragarri dute antolatzaileek: "Ganbara berriz erabiliko ez dituzun mozorroz beteta duzula? Hau da zure lekua!", diote. Era berean, arropa, liburuak, jostailuak eta bestelako materiala trukatzeko aukera egongo da Azoka plazan bertan, 10:00etatik 14:00etara.

Arrasate Zero Zabor taldeak argazki lehiaketa antolatu du

Arrasate Zero Zabor taldeak argazki lehiaketa antolatu du kontsumismoaren gainean. Gaiarekin lotura duen argazki bat bidaltzeaz gain, izenburu bat proposatu beharra dago. Bi sari egongo dira, epaimahaiarena –asteburu bat landetxe baten– eta publikoarena –Zuberoako ikastolek eskainitako otarra–. Lanak aurkezteko edo bozkatzeko arrasatezerozabor@gmail.com helbide elektronikoa eman dute. Lanak entregatzeko azken eguna otsailaren 23a da.

Baserritarrendako zuhaitz eskaintza zabala bihar

Euskal Herriko sei mintegi izango dira bihar goizean Seber Altubeko azokan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hileko hirugarren zapatuko baserritarren azokarekin batera Zuhaitz FERIA antolatu du Udalak biharko. Zuhaitzak landatzeko garaia da bete-betean, eta, horregatik, Euskal Herriko sei mintegi ekarriko dituzte Seber Altube plazara (09:00-14:00). Hala, kalitate handiko zuhaitzen eskaintza zabala egongo dela aurreratu du Ingurumen Sailak.

Ohiturak berreskuratzen

Bizkaitik zein Gipuzkoatik sei mintegi etorriko dira eta ekarriko dituzten landareak bertakoak izango dira. Hau da, bertako mintegietan hazitako arbolak dira, ez dute zerikusirik kanpotik datozen mintegi handiekin. Lurrari lotuta daude; azoka egunaren bezperan ateratzen dituzten landareak dira. Fruta-arbolak, koniferoak, landare autoktonoak –haritzak, gaztainondoak...– eta fruta txikiak egongo dira salgai, besteak beste. Gaur egun ez da zuhaitz feriarik egiten, baina duela ez asko Zaldibarko pilotalekuan elkartzen ziren baserritarrek landareak erosteko: "Neguko hilabeteetan,



Urtarrileko baserritarren azoka, 2014ko lehena. | GOIENA

Zuhaitz Eguna Arizmendin eta Herri Eskolan

Urtero egiten den Zuhaitz Eguna ez du hutsik egingo aurten. Gaur Arrasate Herri Eskolako eta Arizmendiko ikasleendako txanda izango da; ia 200 ikasle daude deituta. 10:30ean elkartuko dira Uribe eta 10:45 aldera Garagartzara bidean dagoen Garbiguneari landatuko dituzte arbolak. 56 haltz, 20 haritz, 20 lizar, hamar astigar, hamar ezki, bost altzifre eta bost erramu landatuko dituzte. Espezie horiek aukeratu dira lursailaren inguru botanikoa aztertu ondoren. Parte hartzaile guztiendako hamarretakoa eta opari bana prestatu ditu Udalak.

Bestalde, helduendako deialdia datorren zapatutako egun dute, hilaren 22rako.

martitzen zein egunen, mintegiak Zaldibarko pilotalekura etortzen ziren eta inguruko baserritarrek era natural baten etortzen ziren landareak erostera. Nahiko genuke, urtean behin bada ere, antzeko zerbait egin eta ohitura berreskuratzea. Hala, baserritarrei aukera emango genieke Arrasatera etorri eta landareak bertan erosteko", dio Ingurumen teknikari Pello Garaik.

Ibilbide luzeko ekimena

Udalak lehen sektorea indartzeko apustuaren barruan kokatzen du azoka. Sasoiko produktuak kontsumitzearen alde, hilerok zerbait berezia antolatu gura dute. Otsailean zuhaitzak izango dira eta martxoan babarrunak. Izan ere, baba lehiaketa antolatzen dihardute herriko zenbait elkarte gastronomikorekin. Orain arteko balorazioa egin digu Enplegu eta Garapen Saileko teknikari Marga Garmendiak: "Ibilbide positiboa egin du eta helburuak betetzen doaz". Garmendiaren arabera, Udalak jakin badaki ibilbide luzeko ekimena izan behar dela eta epe motzera ez dituela emaitza ikusgarririk emango. Era berean, baina, ari da fruituak ematen.

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

"Praktikak du garrantzia hemen, tailerrean ordu asko ematen ditugu"

Iker Arkauz ofatiarra Mantentze-lan Elettromekanikoen erdi mailako heziketa zikloa ikasten ari da Zuazola-Larraña Institutuan. Bigarren maila egiten ari da, eta laster praktikak egitera joango da enpresa batera.

Nola heldu zara Lanbide Heziketan ikasketak egitera?

DBH ikasten ari nintzen, eta hura utzi eta Lanbide Hastapenera joan nintzen. Lanbide Hastapenean Elektrizitateko espezialitatea egin nuen. Bitartean, DBHko titulua ateratzeko eskolak jasotzeko aukera genuen; horrela, bi urtean, elektrizitatearen arloa hurbildu eta DBHko titulua atera nuen. Horrek aukera eman zidan heziketa ziklo baten hasteko.

Zergatik erabaki zenuen elektrizitatearen arloan segitzea?

Mantenua asko gustatu izan zait beti, baita etxean aitari ere. Arlo hori horren gustuko izanda, eta gainera herrian bertan, mantentze-lanak egitea erabaki nuen.

Beraz, ezaguna zenuen aurretik Lanbide Heziketa, ezta?

Bai, hemen ibilitako jendea ezagutzen nuen, eta haiek gomendatu zidaten. Etxean ere ideia ona iruditu zitzaion.

Aurten bigarren mailan egonda, ze asmo duzu bukatzen duzunarako?

Goi mailako zikloetarako sarbide proba prestatzen ari naiz arratsaldeetan, hemen bertan. Maiatzean da azterketa, eta, gaituz gero, Bergaran edo Arrasaten segiko dut goi mailako ziklo batekin.

Zer azpimarratuko zenuke Lanbide Heziketaz?



Teoriari ematen dioten pisua batxilergoan ematen diotenarekin konparatuta askoz txikiagoa da. Praktikak du garrantzia hemen; izan ere, tailerrean ordu asko ematen ditugu.

Enpresekin izan duzu harremanik?

Bai. Lanbide Hastapenean nenbilela Debagoieneko Ospitalean egin nituen praktikak eta oso gustura ibili nintzen. Eta joan den udan ere lan egin nuen, Garain. Orain, martxoan, hiru hilabeteko praktikak izango ditugu.

Zein izango litzateke zure gustuko lana?

Enpresa batean mantentze-lanak egitea edota eskolako mantenuaz arduratzea izango litzateke nire gustuko lan bat.



GOIAZ! 2014

Lanbide Heziketaren Azoka
Martxoak 26 eta 27an;
Kulturaren, Arrasaten.



NiNeu / YoMism@ BideoCV
lehiaketa antolatu du.

Pentsatu, grabatu eta bidali
zure bideo curriculum-a!

Informazio guztia:
www.debagoiena.net



www.facebook.com/goiazdebagoiena



www.twitter.com/goiazdebagoiena



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntza, Lan, Garapena
eta Turismo Departamentua
Departamento de Innovación,
Desarrollo Rural y Turismo

Gipuzkoa
BERRIA



ESKUARTEAN

Eskuartearen taldea, solidario

Eskuartearen Arrasateko artisau taldeak asteon entregatu du Gabonetan antolatu zuen azoka solidarioan jasotako dirua Gipuzkoako Elikagaien Bankuan. Goiko argazkian Eskuartearen artisau taldeko Laura Irizar eta Arantzazu Lagunilla ageri dira, Bergarako Elikagai Bankuaren arduradunari Gabonetan bildutako dirua ematen.

Terrazak egokitze-ko baimena behar dela gogoratu du Udalak

Bide publikoa okupatzearen urteko tasa bat ordaindu behar da, "metro lineal bakoitzeko"

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasateko establezimenduen kanpoan beladore, mahai-aulki, jarleku zein kupelak jartzeko alde aurretik udal baimena eskuratzeko eta fidantza ordaintzea beharrezkoa da. Hori eka- rri du gogora Udaleko Hirigin- tza Sailak; izan ere, baimena urtero berritu beharra dago. Baimen hori BAZen eskatu behar da, terraza egokitu aurretik.

Fidantza jarri beharra

Bide publikoa okupatzearen urteko tasa jakin bat ordaindu behar da, hartutako "metro lineal bakoitzeko". Eskaera

egiteko fidantza bat jarri behar- rra dago, Udalaren baldintzak betetzen direla bermatzeko: kupela ipintzearen 100 euroko fidantza ordaindu behar da eta 600 euro, berriz, mahai hankabakar edo beladoreen kasuan.

Baimena eskatu barik bide publikoa okupatzen denean, administrazio arau-haustea gertatzen dela jakinarazi du Udalak: "Kasu horietan Udala behartuta egongo da dagokion zigor espedientearekin irekitzera". Baimenik ez duten ostalariei gutuna bidali zaie dagoeneko, BAZera jo dezaten.



Kupela, mahaiak eta aulkiak Arbolapetako taberna baten atarian. | J.BEREZIARTUA

Bonifikazioa autokonpost programan sartuta dauden herritarrendako

J.B. | ARRASATE

Hondakinen sorkuntzan murriz- keta bultzatzeko helburuarekin, 2013ko ordenantza fiskaletan urteko bigarren seihilekotik aurrera autokonpost organi- koaren atal osoarekin bat egiten dutenei zaborraren tasan %25e- ko bonifikazioa edo hobaria ematea erabaki du Udalak.

Mankomunitateak prestatu du behin betiko zerrenda eta zerren- da horretan dauden herritarrei 2013ko bigarren seihilekoari eta 2014ko lehen seihilekoari dagozkien itzulketak egingo dizkiete. Ingurumen batzordea- ren proposamena ontzat eman ostean, Ogasun batzordeak asteen onartu du akordioa.

Abaroak Eskoziara joateko bidaia antolatu du ekainaren 3tik 8ra

Abaroa erretiratu elkarteak irteera antolatu du Eskoziara ekainaren 3tik 8ra. Bazkideek otsailaren 17tik 28ra eman behar dute izena; bazkide ez direnek, berriz, hilaren 24tik 28ra. 50 bat lagunenda- ko lekua egongo da, baina bidaiak aurrera egin dezan gutxienez 35 pertsonak eman behar dute izena.

Festak antolatzeko auzotarrengana jo du San Andresko alkateak

San Andresko jaiak antolatze- ko auzotarren laguntza behar du auzo-alkatetzak: "Jende gaztea erakarri gura dugu, ideia berriak behar ditugu -eta", dio Jon Barriocanal auzo -alkateak. Lagundu gura dute- nei dei egin diete gaur alka- tetzan (16:00) -Etxaluzeko azken solairuan- egingo duten bile- ran parte hartzera.



ENEKO FERNANDEZ

1983an jaio- tako lagun kuadrilla ederra elkar- tu zen zapatuan

Sei urtez elkar- tu barik egon ostean, 1983an jaio- takoak joan den zapatuan elkar- tu ziren iraganeko garaia- k gogoratuz parranda ederra egiteko. Eguerdian trikitilari- ek giro- tutako poteoa egin ondoren, 56 lagun elkar- tu ziren Sara merenderoan bazkaltzeko. Bapo bazkalduta, autobusean jaitsi ziren Arrasatera parranda borobiltzeko asmoz: "Oso gustura ibili ginen, aspalditik ez ginen elkartzen", adierazi dute antolatzaileek.

Monika Arzuaga | Garoa biodendako arduraduna

"Kalitatezko produktuak prezio onenean eskaintzeko ahalegina egin dugu"

Arrasateko Maala kalean Garoa biodenda zabaldu dute. Eskaintza zabala daukate 80 m² dituen denda eta horri buruz hitz egin digu biodendako arduradun Monika Arzuagak.

Nolakoa da Garoa bio- denda?

Medikuntza alternatibo- ri lotutako produktuak dituen denda da. Patolo- giaren bat edukiz gero hori sendatzen laguntzen duten marka askotako produktuak ditugu; adibidez, Sakai, Robis edota Salus etxee- takoak. Saluskoek, esate- rako, farmazietako produk- tuek pasatzen duten BMP kontrola gaindituta dauka- te. Beraz, kalitatezko produk- tuak ditugu eta ahale- gindu gara horiek prezio onenean eskaintzen.

Nolako produktuak ditu- zue, besteak beste?

Oso eskaintza zabala dau- kagu. Artikulazio arazoak dituztenenako produktuak daukagu, defentsak igo- tzekoak, bitaminak eta jaleak indartzeko, produk- tu digestiboak, nerbio sis- tema zaintzekoak, diureti- koak, zirkulazioarendako egokiak direnak, emakumei bereziki zuzendutakoak, belarrak, hainbat infusio, umeendako jarabe eta anti- biotiko naturalak... Horiez gain, kirolariei zuzenduta- ko zona zehatz bat ere badaukagu eurendako produk- tuekin, eta kosmetika naturala eta biologikoa ere bai, besteak beste.



Mediku naturistek, osteopatek eta nutrizionistek errezetatutako produktuak daukagu denda. Hala ere, bestelako produktu zehatzen bat nahi izanez gero, eskaera egiten dugu eta 24 orduan denda izaten dugu.

Bai. Pisua kontrolatzeko produktu ugari daukagu; adibidez, likidoak eta gan- tzak kentzeko. Baina jana- ri makrobiotikoa eta gluten gabekoa ere badaukagu. Baita fruta eta barazki ekologikoak ere. Produktu batzuk soltean erosteko aukera ere ematen dugu, nahi den kantitatea prezio onenean hartzeko. Bezeroentzako txartela ere badaukazue, ezta? Bai. Egiten dituzten eros- ketetan deskontuak egiten ditugu txartel hori edukiz

gero. Eta eskaintza bereziak ere jartzen ditugu, hama- bost egunean behin alda- tzen ditugunak. Beste ezer gaineratu nahi duzu? Informazio gehiago behar dutenak etor daitezela eta zuzenean erantzungo ditu- gu euren kezka, inongo konpromiso barik. Denda zabalik izaten dugu aste- lehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:30etara eta 16:30etik 20:30era; eta zapatuetan, 10:00e- tatik 13:30era.

ZURE OSASUN LEKUA

Maalako Arrabala 7, behea. Arrasate.

Tel.: 943 79 70 57

garoa@euskalizadi.com



"Oso lehiakorra" den Azpeitiko taldea hartuko du bihar MUK

Azken jardunaldian galdu ostean, garaipena behar dute Larreategiren mutilek

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak Azpeitiaren aurka jokatu du bihar Iturripen (18:00). Sailkapenari begiratuz gero eta etxean jokatzeko dutela jakinda, arrasatearrek ez lukete arazo handirik izan beharko partidua irabazteko: MU bigarrena da sailkapenean eta talde azpeitiarra, berriz, zazpigarrena.

Joan den zapatuan galdu egin zuen Josu Larreategiren taldeak, eta, hain zuzen ere, azken jardunaldiko hutsegitea konpontzeko "lehenbailehen" irabaztea izango da onena. Gainera, talde arriskutsua izango da Iturripen: "Azpeitiko taldearen kontrako partidua oso parekatuak izan ohi dira, bi taldeetako jokalariek oso motibatuta egoten dira", esan du entrenatzaileak.

Azpeitiarrak, "lehiakorrak"

Horrek ez du esan nahi bi taldeen arteko harremana txarra denik, baina, Larreategiren arabera, kantxan beti egoten da "lehiakor-tasun handia". Talde azpeitiarra "oso indartsua" da, Eskoriatzako entrenatzaileak dioenez: "Oso gogorak dira eta eskarmentu

handiko jokalariek dituzte. Hori bai, beste denboraldi batzuekin alderatuz gero, arazo gehiago izan dituzte aurten. Hala ere, oso lehiakorrak izaten dira beti".

Azpeitiko taldea aurkari arriskutsua da, beraz: "Garaipena lortzeko ondo izerditu behar dugu, ez da erraza izango",

dio Larreategik. Bestalde, azken jardunaldian galdu arren, ondo helduko da MU biharko norgehiagokara: "Markel Balantzagetik ezin izango du jokatu kanpora doalako, baina beste jokalariek guztiak gurekin egongo dira. Horrenbestez, ez dago aitzakiarik: gure esku dago".



Markel Balantzagetik baloiarekin; bihar ez du jokatu. | GOIENA

Mondrak Urolaren aurka neurtuko ditu indarrak bihar (16:30)

Ohorezko Erregional Mailara igo gura badu, irabazi beharreko partidua jokatu du bihar Mondrak Mojategin (16:30). Arrasatearrek Urola izango dute aurkari; sailkapeneko bigarren postuan daude Zumarragakoak, 36 puntuarekin. Mondra, zazpigarrena izan arren, 33 punturekin dago eta, beraz, Gotzon Urzelaireren mutilek garaipena lortzen badute gora egingo dute sailkapenean. Era berean, Legazpin galdutako puntuak berreskuratu gura ditu Mondrak.

Mendi ibilaldia eta sagardotegia etzi Besaidekoen eskutik

Besaide Mendizale Elkarteak mendi irteera antolatu du etziko. Usurbilgo Urdiaga auzoan hasi eta Adunan amaituko dute 16 kilometro inguruko ibilbidea. Ibilbidean zehar Andatza (562 metro) eta Belkoain (488 metro) gainak egingo dituzte eta gero bazkaria egingo dute Adunako Zabala sagardotegian.

Irteera ordua 07:30ean izango da Garibaiko autobus geltokitik; itzulera, aldiz, 17:00etarako edo 17:30erako aurreikusten dute.

Ford Mugarrik azken-aurreko postuan dagoen Urdanetaren aurka jokatu du etzi Iturripen

J.B. | ARRASATE

Sailkapenean azken-aurreko postuan dagoen Urdaneta taldea hartuko du Ford Mugarrik domekan Iturripen (12:30). Sailkapenean beheko postuetan egon arren, "talde ona" dutela dio zuzendaritza taldeko Andoni Arandok, baina denboraldi hasieran hainbat lesio izan zituztelako ez dira nahi moduan aritu: "Azken jardunaldietan puntu batzuk lortzen ari dira, baina orokorrean nahiko makal dabilta".

Gutxinaka bada ere, Ford Mugarri beherantz doa sailka-

penean. Joera hori honela azaldu du Arandok: "Lehen itzulian momentu puntualetan alde irtezen ziren jokaldiak eta bigarren itzulian, ordea, ez da horrela. Lehen, aurkaria berdintzeaz zegoenean hiru goleko aldea egiten genuen, eta orain, berriz, berdindu egiten digute".

Jorge Santosen itzulera

Bestalde, Pablo Gartzia entrenatzaileak Jorge Santos jokalarik betetako kantxaratzeko aukera izango du. Denboraldi hasiera ezkerreko belaunean min hartuta egon da Santos.



Kepa Kruzeta jokalaria gola sartzeko jaurtiketa baten aurretik. | GOIENA

Iturripeko itoginak

Bestalde, euria egiten duenean itoginak direla-eta, Iturripeko kantxaren egoera arriskutsua bertan entrenatzen eta jokatzeko duten klubetako ordezkarien ahotan egon da azken asteotan. MUKo jokalariek badakite zer den kantxa labainkor dagoenean jokatzeko; partidu bat ia bertan behera geratu zen jokalariek mina hartzeko zegoen arriskuagatik. Bada, aste bukaera honetarako arazorik ez dela egongo espero du Larreategik: "Euria egiten badu itoginen bat egongo da, baina espero dugu lehia hasi aurretik konponduko dugula eta ez dela arazorik egongo jokatzeko".

Izan ere, bertan behera gertatzeaz egon zen jardunaldiaren aurretik euria barra-barra egin zuen; eguraldi iragarpenen arabera zapatura bitartean euria egin dezake, baina ez du askorik egingo.

ESANAK

"Garaipena lortzeko ondo izerditu behar dugu, baina ez dago aitzakiarik: gure esku dago"

JOSU LARREATEGI | ENTRENATZAILEA

ZALDIBAR

EMAITZAK

Abokajarro - Lasagabaster	0-2
Iluntz - Aldatz	6-4
Cantauri - Betrayar	3-4
Haizea's Weah - Jibaros F.C.	3-1
Birigarruak - Fidel & Discipulos	2-4
Dribling - Sport in tus bragas	9-2
Ostantz - Sonografos	2-6

SAILKAPENA

TALDEA	J	P
1 Dribling	10	30
2 Aldatz	10	22
3 Haizea's Weah	10	21
4 Lasagabaster	10	21
5 Iluntz	10	20
6 Betrayar	10	19
7 Sonografos	10	19
8 Sport in tus bragas	10	13
9 Fidel & Discipulos	10	11
10 Abokajarro	10	9
11 Ostantz	10	7
12 Jibaros F.C.	10	6
13 Cantauri	10	5
14 Birigarruak	10	0

PARTIDUAK

HILAK 15, ZAPATUA
10:00 Birigarruak - Sonografos
Sport in tus bragas
11:00 Abokajarro - Sport in tus bragas
Birigarruak
12:00 Dribling - Fidel & Discipulos
Abokajarro
13:00 Ostantz - Haizea's Weah
Dribling
HILAK 16, DOMEKA
10:30 Cantauri - Jibaros F.C.
Betrayar
11:30 Iluntz - Betrayar
Cantauri
12:30 Lasagabaster - Aldatz
Iluntz

Oharra

Partiduen atzerapena edo orduetegi aldatzea aurreko domekan egin behar da nahitaez.



Maialen Axpe domina jantzita, Jonathan Perez entrenatzailearekin. | F.ZUFIRIA

Urrezko domina Axperendako eta brontzezkoa Uribarrenendako

J.B. | ARRASATE

Espainiako promes mailako txapelketak jokatu ziren joan den asteburuan Antequera (Malaga) eta urrezko eta brontzezko domina banarekin itzuli ziren Arrasateko atletak. Maialen Axpek pertikan lortu zuen urrezkoa 3,75 metroko salto eginda (4,01ekoa du markarik onena), eta Iñigo Uribarrenek brontzezkoa jantzi zuen salto hirukoitzean 15,36ko salto eginda (bere marka onena 15,60 metrokoa da).

Anoetan, Ruiz de Azua bigarren

Anoetan, oster, Gipuzkoako Txapelketa Nagusia jokatu zuten, pista estalian. Atletak arrasatearrak ederto ibili ziren: Malen Ruiz de

Azuak zilarrezko domina lortu zuen pertika-saltoan (3,80 metro) eta Istar Dapenak, modalitate berdinean, urrezkoa lortu zuen (4,50 metro).



Uribarren, brontzezkoarekin. | F.Z.

Olatz Pagaldai | Aktorea

"Euskaldun berria izatea ohikoa da; erdaldun berria izatea, ez"

'Erdaldun berrien kluba' AED elkarteak ekoiztu duen bigarren antzezlan da, 2011ko maiatzean 'Buah txabal!' monologo dibertigarria estreinatu ostean

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Gaur estreinatuko du Olatz Pagaldai aktoreak *Erdaldun berrien kluba* gaztetxean (22:30). Azken entseguetan murgilduta dabil, eta, logikoa den moduan, "urdu-ri samar" dagoela onartu du eskoriatzarrak. Publikoarengan euskararen erabileraren inguruko gogoeta bultzatu gura du *Erdaldun berrien kluba*-k. Betiere, umorea erabilia eta ikusleengan ikuskizun dibertigarri batez gozatu izanaren sentsazioa uzteko asmoz. Baliteke, baina, ikusle bati baino gehiagori kontzientzian azkura apur bat sortzea.

Nor da Irantzu?

Irantzu Eskoriatzako neska bat da. Bere bizitza osoa inguru euskaldun batean egin ostean, Gasteizera joan eta bertan gaztelaniarekin topo egingo du. Ez da bere eremu naturala, eta, gainera, gaztelaniaz mintzatzea kosta egiten zaio.

Hortaz, Gasteizko bizipenak ez dira esperientzia errazak izan.

Ez da bere bizitzako esperientzia onena izan, edo, beste modu batera esanda, Irantzu kokoteraino dago. Ahalegindu da, baina bere egoera ez da batere erraza. Inork ez du ulertzen, inork ez du kontuan hartzen... Euskaldun berria izatea ohikoa den moduan, erdaldun berria izatea ez da batere egoera arrunta. Gizarteak ez du kontzeptu hori barneratu.



Olatz Pagaldai aktorea. | I.G.

"Ez zaigu burutik pasatzen erdaraz ez dakien baten bat dagoenik ere"

Arraroa egiten da erdaldun berri batekin topo egitea.

Hor dago akatsa. Gaztelera normaltasun osoz barneratu dugun hizkuntza da. Mundu guztiak jakin behar du; ongi, gainera. Ez zaigu burutik pasatu ere egiten erdaraz ez dakien baten bat dagoenik. Euskararekin, aldiz, ez da horrelakorik gertatzen. Pentsatzen hasita, guztiok izan gara inoiz

Irantzu. Noiz edo noiz, guztiok sartu dugu hanka erdaraz hitz egiterakoan.

Egia da inguruan pertsona nagusiren bat edo beste ezagutu arren arraroa egiten zaigula.

Zoritxarrez, hori askotan gertatzen da. Argi dago pertsona nagusiek ez dutela hezkuntza euskaraz jasotzeko aukerarik izan, eta hortik dator zenbaki jakin batzuk gaztelera esateko ohitura hori. Gaur egun, aldiz, gazte batek bere bizitza eta hezkuntza euskaraz egin ditzake. Hortaz, ulergarria da gaztelaniaz mintzatu behar duenean akatsak egitea.

Irantzu kokoteraino egon arren, umorez hartu du hau guztia.

Eskerrak! Irantzu une honetan elkartasun bila dator. Harentzako eta egoera berean dagoen jendearentzako ere.

Nola harpide daiteke jendea Erdaldun Berrien Klubera?

Lehen pausoa Irantzu gehiago topatzea da. Eskoriatzarra plaza askotan ibiliko da berak izandako esperientzia antzekoa izan duen jendearen bila. Horiek topatu ostean, kluba eratuko da. Une honetan baina, klubak aurrera egin dezan, pauso garrantzitsuenak gaztetxea betetzea da. Jendeak oso ondo pasatuko duela uste dut, eta sarrera ezin da merkeagoa izan, 2 euroren truke ordu-betez barre egiteko aukera eskaintzen dugu. Mauka ederra!

Gaur da palindromoak aurkezteko azken eguna

Palindromoak posta elektronikoz bidali beharko dira 'aed@aedelkartea.com' helbidera

I.G. | ARRASATE

AED euskara elkarteak antolatutako IV. Palindromo Lehiaketan parte hartu nahi dutenei ordu gutxi geratzen zaie proposamenak aurkezteko, epea gaur amaitzen da-eta.

Palindromoa zer den? Bada, aurretik atzera nahiz atzetik aurrera berdin irakurtzen den hitza, zenbakia edo esaldia.

Lehiaketaren oinarriak

Parte-hartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkez ditzake. Palindromoek ulergarriak eta hizkuntza aldetik zuzenak izan beharko dute, aurretik argitaratu gabeak eta beste lehiaketa batean saritu gabeak.

Palindromoak posta elektronikoz bidali beharko dira aed@aedelkartea.com helbidera. Posta berean bi doku-

mentu atxiki beharko dira: batean, palindromoa aurkeztuko da, ezizen batekin; bestean, erabilitako ezizena eta egilearen datuak: izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa.

Epaimahaia Markos Gimeno palindromogileak, Arrasateko Udal Euskaltegiko irakasle taldeak eta Erdue-AEK euskaltegiko irakasle taldeak osatuko dute.

Lanak epaitzeko orduan ondorengoa baloratuko da: palindromoaren balio literarioa eta artistikoa, luzera eta aberastasun semantikoa. Aurkeztutako lanek gutxienezko kalitatezko erabakia har lezake epaimahaia.

Irabazleak martxoaren 4an emango dira ezagutzera AED Elkartearen webgunean.



ARRASATE MUSIKAL

Never Surrender eta The Potes, gaztetxearen alde

Gastuei aurre egiteko kontzertua eskainiko dute bi taldeek bihar (22:30); sarrera bost euro da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Never Surrender eta The Potes taldeek gaztetxearen aldeko kontzertua eskainiko dute bihar (22:30). Bi taldeek bat egin dute gaztetxeak gastuei aurre egiteko duen beharrarekin, eta, beraz, jasotako diru guztia bertan geratuko da. Sarrera bost euro da.


Never Surrenderren geldialdia

Gainera, Never Surrenderrek martxoan geldialdia egingo du eta horrek are bereziago egingo du emanaldia: "Etxean jotzea beti da berezia eta denboraldi bat herriko jendearen aurrean jo gabe egon ondoren gogotsu gaude", esan du bateria-jotzaile Asier Uribetxeberria *Atxi*-k. Gaztetxearen alde jotzeko prestutasuna honela azaldu du *Atxi*-k: "Gaztetxeak dena eman digu beti eta bertan zarata askotxo ateratzeko aukera izan

dugu urte hauetan. Batzuetan, badirudi ez garela behar beste ohartzen inguruan daukagunaz. Merezitako moduan baloratu eta zaindu beharra daukagu". Kontzertua "amorruez eta sentimenduz" jositakoa izango dela aurreratu du: "Kontzertu bizia izango da. *Bide Zuzenetik Oker* diskoaren kantuak abesti zaharrekin uztartuko ditugu. 12 urteotan gudan eragina izan duten taldeei keinuren bat ere egongo da...".

The Potes, Poguesen erritmora

Aurretik The Pogues taldearen folka oinarri –hortik taldearen izena bera ere– duen The Potes taldeak joko du. Zortzi lagun igoko dira taula gainera askotariko bertsoak jotzeko. Ordu eta erdi inguruz arituko dira giroa berotzen; Never Surrenderrek ez du aitzakiarik izango.




Never Surrender zuzenean. | I. SORIANO.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

PUB HAIZEA





Martitzen iluntzean aurkeztu zuten bigarren fasea jendaurrean. | JULEN IRIONDO

Eteon zer eta nola egongo den zehazteko fasea hasi da

Gaur egun herriko hamabi taldek erabiltzen dute eraikin hori

T.M./O.E. | OÑATI

Eltzia proiektuak aurrera jarraitzen du eta Eteo eraikinean zer eta nola egon behar den aztertze-ko faseari ekin diote.

Horretarako, hainbat talde eta *eltzetan* banatu dituzte herriko eragileak: *sormen eltzia* (sorkuntzarekin lotutako eragileena), *gorputz eltzia* (dantzekin eta mugimenduarekin lotutakoa), *herri mugimenduen eltzia*, *musika eltzia* eta *udal eltzia*.

Talde bakoitzarekin bi bilera egingo dituzte martxoaren 10etik aurrera. Bilera horietan talde horiek zer, noiz eta nola behar duten zehaztuko dute. Gainera, maiatzean beste bi batzar orokor egingo dituzte taldeka ateratako ondoriok bateratzeko.

Bost talde horiez gain, beste bi talde berezi ere eratuko dituzte: auzoekin lotutakoa izango da bata, eta *herritar ekintzaileen eltzia* bestea.

Ekarpen aberatsa

Martitzen iluntzean egin zuten Eltzia egitasmoaren bigarren fasearen aurkezpena, eta bertan, orain arte egindako lanaren eta ateratako ondorioen xehetasunak eman zituzten. "Bi helburu zituen lehen faseak, egitasmoa gizarte-ratzea eta herriko kultur bizitzaren erradiografia egitea. Hortik atera dugun ondorioetako bat da herria oso bizia dela kultur ekarpenetan, baina eragileen artean

ez dagoela koordinaziorik, nor berea egiten duela. Izaera ezberdina duten taldeak ere badaude; horietako batzuk, esaterako, urte askoko esperientzia dute eta beste asko berriak dira. Talde asko sortu dira Oñatin", azaldu du Johana Olaberriak, Bagarako kide eta Eltzia egitasmoaren koordinatzaileak.

Egungo erabiltzaileak

Gaur egun Eteoko eraikina ez dago hutsik; izan ere, leku premia zuten hainbat taldek eta dagoneko erabiltzen dituzte bertako lokalak. "Erabiltzaileen Koordinazio Taldea izena jarri diegu. Inbertsiorik egin behar ez duten taldeak dira eta badakite erabilerara probisonala izango dela. 12 talde dira egungo erabiltzaileak, eta horien artean daude, besteak beste: Acesma, Bertso Eskola, Gurutze Gorria, Ilunpetan eta Potx eta Motx. Gainera, elkarrekin funtzionatzeko behar dituzten oinarritzko arauak finkatu dituzte, garbitasun txandak antolatu dituzte eta lau ordezkariz izendatu dituzte eguneroko gorabeheren jarraipena egiteko. Eteo gero izango denaren lehen pausoa izan daiteke", azaldu du egitasmoaren koordinatzaileak.

Erabakita dago baita ere musikarekin lotutako hainbat talde, besteak beste, Errekaldeko lokalatan entseatzeko duten 30 talde Eteoko sotoan egongo direla. Talde horietako ordezkariek, udal arkitektoa eta udal zinegotzia dagoeneko lanean dabiltza espazioaren diseinuan. "Bestetik, talde eragileak ere lanean jarraitzen du. Udaleko bi taldeetako ordezkariek, herri mugimenduko hiru ordezkariek, kultur dinamizatzaileak, Gaztedia teknikariak daude talde horretan eta horrek du proiektuaren gidaritzak", zehaztu du Olaberriak.

Udal adierazpena, Bellonen harira

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko Udaleko bozeramaileen batzordean testu bateratua adostu dute Bilduk eta EAJk, Arkaitz Bellon preso elorriarraren heriotzaren harira. Udalak "irmoki eskatzen du Arkaitz Bellon Blancoren heriotzaren inguruabarrak berehala argitu daitezela" eta "espetxe politikaren salbuespen egoerarekin amaitzea aldarrikatzen du". Era berean, "Oñatiko Udalak bat egiten du Arkaitz Bellon Blancoren familiaren saminean/atsekabeen eta bere elkartasuna adierazten dio familiari une latz honetan".

"Sakabanaketarekin amaitzea" ere eskatzen du alde biek adostuta udal adierazpenak, "herri honetan gehien-goak aldarrikatzen duenarekin bat eginez".

Txirrindularitza taldeak aurkeztuko ditu Aloña Mendik

Aloña-Mendiko txirrindularitza sailak denboraldi berriko taldeak aurkeztuko ditu bihar, zapatua. Bertan, aurtengo denboraldian gazte, kadete, infantil eta alebin mailetan arituko diren taldeak ezagutaraziko dituzte. Aurkezpena Etxe-Aundi jatetxean egingo dute, 12:00etan.

Enpleguaren inguruan plana baduela esan dio Gobernuak EAJri

Bailarako jeltzaleen salaketaren erantzuna da

O.E. | OÑATI

Urtarril amaieran zabaldu zuen Debagoieneko Euzko Alderdi Jeltzaleak Mankomunitatearen kontrako salaketa. Bilduk atez atekoari lehentasuna emanez enplegu plangintzarik ez zuela salatu zuen. Orain, Oñatiko Udal Gobernu taldeak prentsa oharra atera du, datuekin, enpleguaren gainean plana baduela argitzeko.

Datuekin

Joan den urtean Udaleko Sozio-ekonomia batzordearen babesean Oñatin 24 enpresa proiektu aztertu zirela dio Udal Gobernuak bidalitako oharra. Gehienak pertsonen autoenplegu azterlanak izan zirela zahazten da eta horietatik 16k aurrera egin dutela, enpresa bihurtu direla gaineratzen du. Gauzatu diren 16 enpresa berri horiek, gainera, 17 lanpostu sortu dituztela aipa-

tzen du. Azterlanak egin eta enpleguak sortzeagatik Udalak 32.500 euro eman zituen iaz, Udal Gobernu taldeak jakinarazi duenez.

Datu horiek aurreko agintaldian izan zirenekin alderatu ditu Bilduko udal taldeak: 2007-2011 urte tartean orotara 37 proiektu aztertu zirela eta agintaldi honek bete dituen bi urte eta erdietan 69 aztertu direla dio. Bestalde, aurreko gobernu-aldian 26 enpresa sortu zirela eta oraingoan jada 39 sortu direla zehazten du. Lanpostuei erreparatuta, azkenik, aurreko agintaldian 23 eta oraingoan 39 lanpostu sortu direla dio idatziak.

Bilduko plangintzen helburua pertsona eta haien laneratzea dela dio Udal Gobernuak. Sozio-ekonomia batzordearen beste zutabeetako bat prestakuntza izan dela ere badi oharra.

Erleen garrantzia azalduko dute zuhaitz azokan

INGURUMEN JARDUNALDIEN EGITARAU

OTSAILAK 17

19:00 Poesia errezitaldia kultura etxeko erakusketa gelan.

OTSAILAK 18

19:00 Hitzaldia: *Agortzeaz dauden hidrokarburuen azken tantak frackingaren bidez?* Kultura etxeko areto nagusian.

OTSAILAK 19

19:00 Hitzaldia: *Yasuni: petrolio, ekonomia eta bioaniztasunaren kontserbazioa.* Kultura etxeko areto nagusian.

OTSAILAK 20

20:00 Zinekluba: *Yasuni: dos segundos de vida* filma.

OTSAILAK 23

10:00 Zuhaitz landatzea herriguneko parkeetan.

OTSAILAK 25

19:00 Hitzaldia: *42.000 miliako itsaspeko bidaiak; Malaspina 2010: zirkumnabigazioa-espedizioa.* Kultura etxeko areto nagusian.

OTSAILAK 27

20:00 Zinekluba: *Guadalquivir*.

MARTXOAK 1

09:00 Zuhaitz feria. Mintegiak, erlezainak eta eztigileak egongo dira.

MARTXOAK 2

09:30 Zuhaitz landatzea Durun Aloñako Lagunak taldearekin.

OTSAILAK 17 - MARTXOAK 2

Erakusketa. *Egurra eta natura*, Imanol Artolaren eskulturak kultura etxeko erakusketa gelan.

O.E. | OÑATI

Aurten ere antolatu ditu ingurumen jardunaldiak Oñatiko Natur Eskolak. 18. aldia da.

Eztigileak

Datorren astelehenean, otsailak 17, hasiko dira aurtengo jardunaldiak eta martxoaren 2a bitartean, erakusketa, poesia errezitaldia hitzaldiak, filmak, azoka eta zuhaitz landatzeak egongo dira, besteak beste.

Imanol Artolaren *Egurra eta natura* eskultura erakusketak eta Andoni Salameren poesia errezitaldiak emango diote hasiera aurtengo egitarauari. Hitzaldietan, berriz, *fracking*-az, petrolioaz eta itsaspeaz jardungo dute. Bestalde, zineklubeko lagunekin elkarlanean, ingurumenarekin lotutako bi film emango dituzte.

Bestalde, zuhaitz, landare, lore eta fruta arbolen hainbat mintegi gonbidatu dituzte martxoaren 1ean egingo den zuhaitz azokara. Aurten, gainera, erlezainak eta eztigileak ere egongo dira eta erlearen garrantziaren eta Asiako liztorraren inguruko erakusketa ere antolatuko dute. Foruen plazan izango da.

Herrian badira oraindik ere sagardoa egiten dutenak

Larrañan, Garagaltzan, Berezaon eta Olabarrietan daude egile gehienak

OIHANA ELORTZA | OÑATI
Oraindik ere badira sagardoa egiten duten baserritarak Oñatin. Larraña auzoan daude gehienak. Saltzeko baino gehiago, etxeko kontsumorako egiten dute sagardoa. Laster sartuko dute botiletan azken uztako sagarrekin egindakoa.

1.000 litro
Garagaltza auzoko Garagaltza Haundia baserrian, esaterako, badira 200 urte, gutxienez, sagardoa egiten dutela. "Ni umea nintzela ere egiten zuten sagardoa gurean. Beti ezagutu dut nik hori. Egun ere etxean egiten dugu, eta etxerako. Bertan dugu sagarra zapaltzeko prentsa eta botiletan sartzeko makina ere bai. Landetxera datozen bisitariei ere eskaintzen diegu", dio Garagaltza Haundiko seme eta Arregi landetxeko jabe Luis Arkauzek.

Sagarraren uzta ez da beti berdina izaten. Normalean, urte batean uzta oparoa izaten da eta hurrengoan eskasa. Joan den urtea, esaterako, sagar gutxiko urtea izan zen. "3.000 litro sagardo ere egin izan ditugu, baina iaz 1.000 bakarrik egin genituen", dio Arkauzek. "Kupeletan dago, dentsitatea hartzen. Uste dut hil honen bukaeran sartuko dugula botiletan", gaineratu du.

Larrañan
Luis Arkauzen moduan, Larraña auzoan dagoen Leibar baserriko Bixente Urtzelaik ere egin du sagardoa aurten. Hiru anaiaren artean egin ohi dute. "Guk ere 1.000 litro inguru egin ditugu aurten. Bestetan baino gutxiago, baina urte guztiak ez dira berdinak izaten", aitortu du.

Leibarren ere etxean egiten dute. "Txopekuatik ekarri genuen sagarra prentsatzeko makina, eta etxean egiten dugu, bai. Kontsu-



Leibarko Bixente Urtzelai, sagardoa egiteko prentsaren ondoan. | MIREIA BIKUÑA

Txotx egingo dute gaztetxean

Herritik kanpora joan barik, Antixena gaztetxean egingo dute sagardotegiko plana bihar, zapatua.

Txotx egingo dute bihar gauean Antixenan eta askotariko jakiak izango dituzte gero afaltzeko: txistorra, txerri txuleta, tortilla bakailoarekin, gazta eta intxaurrak, hain zuzen ere. 50 lagunek baino gehiagok erosi dituzte dagoeneko afarirako txartelak.

Gainera, herriko sagardoa izango dute edateko, Garagaltza Haundikoa, hain zuzen ere.

mitu ere etxekook egiten dugu, geure artean banatzen ditugu botilak", argitu du Urtzelaik.

Leibarren ez ezik, Larrañako beste hainbat baserritan ere egiten dute sagardoa egun. Beste sei etxetan, hain zuzen ere. "Garagaltzan bik egiten dugu sagardoa, Olabarrietako Zelabarren baserrian ere egiten dute eta Berazaon ere badago beste bat egiten duena. Baina Larraña auzoan daude herriko sagardogile gehienak, bai", azaldu du Luis Arkauzek. Ohitura hori kontuan hartuta, Udaleko Auzotasuna programak Larraña auzoari emandako dirua, esaterako, sagarraren inguruko jardunaldiak egiteko erabili zuten iaz, besteak beste. Aurten, bigarren jardunaldiak egiteko asmoa dute eta fruta arbolak nola kimatu jakiteko eta tratamendu ekologikoa nola egin ikasteko erabiliko dute, adibidez.

'Kibubu', keinu bidezko antzezlan

bihar Santa Anan

Herriko ikasleek aurrez landu dute istorioa eta bi saio egingo dituzte, 16:00etan eta 18:30ean

O.E. | OÑATI
Testurik gabeko obra da *Kibubu*, keinu bidezkoa, baina hitzik ez egin arren, Xebas eta Coco pailazoak eta Kibubu gorila gai dira zabaldu gura duten mezua ikusleari helarazteko.

Familia osoarendako
Antzezlanak zabaldu gura dituen balioak, gainera, herriko ikasleek aurrez landu dituzte ikastetxeetan. Biharko emanaldietan, eurek landutako hori nola adierazten duten ikusteko aukera izango dute. Horregatik, eta inor kanpoan geldi ez dadin, bi emanaldi egingo dituzte Santa Anan: 16:00etan eta 18:30ean.

"Istorio honen inguruko gida didaktikoa atera dute eta herriko hiru ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 1, 2 eta 3. mailetakoko ikasleek obraren mezua landu dute aurrez. Sentipenak zer diren, nola adierazten eta adieraz daitezkeen, errespetua zer den...", azaldu

du Iñaki Akizuk, Udaleko Hezkuntza teknikariak. "*Kibubu* da istorio bat antzerkira egokituta, eta, gida didaktiko hori oinarri hartuta, ikastetxe bakoitzak bere erara landu du. Esaterako, kantu bat eta bideo bat ere baditu", zehaztu du Amaia Kerexetak, Udaleko Kultura teknikariak. "Pentsatu dugu ikasle asko joango direla zuzenean ikustera antzezlan, eta inor kanpoan ez gelditzeko antolatutako ditugu bi emanaldi", gaineratu du Kerexetak.

Xebasek benetako gorila erostea erabakitzen du Cocorekin batera prestatu gura duen ikuskizun berrirako, baina Kibubu gorila ez da ikusle erraza izango. Horixe da antzezlanaren sinopsia, gaia.

Kibubu antzezlan Marie de Jongh zigilu artistikoak (Tartean antzerki taldeak kudeatzen du) estreinatu zuen Bilboko Alhondigan abenduaren 29an. Familia osoarendako da.



Antzezlaneko une bat. | MARIE DE JONGH

Musika eskolako argazki zaharrak jasotzen dabilta, historiako

Jose de Azpiazu musika eskolak 25 urte beteko ditu aurten eta mendeurren horren historia argazkitan jaso gura dute. Horretarako, irudi eta argazki zaharrak jasotzen ari dira. Errekalden duten egoitzara eraman behar dira.

Berez, ikasturte honetan beteko ditu 25 urte herriko musika eskolak eta kurtsoan zehar askotariko ekintzak egingo dituzte urtemuga hori ospatzeko. Joan den urteko irailerako, esaterako, Musikaldia antolatu zuten, eta orain deialdi berezia egin dute musika eskolaren historia laburbiltzen duten argazki zaharrak berreskuratzeke. Disko bat ere grabatuko dute bertako musika ikasleek.

Gaur, egubakoitza, egingo dute otsaileko odol ateratzea

Gaur, egubakoitza, iluntzean egingo dute urteko bigarren odol ateratzea, otsailekoari dagokiona, hain zuzen ere.

Betiko moduan, Txantxiku ikastolako areto nagusian egingo dute odol ateratzea. Hantxe egongo dira 17:30etik aurrera Donostiatik etorritako mediku eta erizainak. 19:00ak bitartean egongo da odola emateko aukera.

Oñatiko Odol Emaileen Elkarteko kideek urtarrilean aditzera eman zuten moduan, hilero hiru herritarrek, batez beste, ematen dute odola lehen aldiz, eta sekula eman ez duten guztiak animatzen dituzte horretara.

Papalagi eta Fiachars taldeek zuzenean joko dute Bogan eta Pakon

Papalagi eta Fiachars taldeak zuzenean entzuteko aukera egongo da asteburuan Oñatin. Nork bere toki eta egunean joko du, baina. Talde oñatiarrak, esaterako, Boga tabernan joko du gaur, egubakoitza, 20:30ean. Bestalde, azkenaldian Euskal Herrian rock-folk musikaren gorakadan zerikusia izan duen eta Bergara topaleku duen Fiachars taldeak domekan joko du Pako tabernan, 19:30ean.

Bi kontzertu horiez gain, gaur, egubakoitza, Tolosako Bide Ertzean eta Arrasateko Gubernors taldeek joko dute gaztelekuan, 22:30ean. Sarrera bost euro da.

Serpentinekin katiluak nola egin ikasteko tailerra

Serpentinekin katiluak nola egin ikasteko tailerra egingo dute bihar, zapatua, gaztelekuko Kuboan herriko gazte-txoendako.

Hainbat koloretako serpentinak elkarren segidan jarri, bueltan-bueltan, eta katilu koloretsu eta originalak egiten ikasiko dute.

Eskulan hori egiteko serpentinak eta kola zuria baino ez dira behar, eta material hori gaztelekuan bertan izango dute gaztetxoek. Eurek ez dute ezer eraman behar etxetik. Interesa izanez gero, nahikoa da bihar 17:00etan Kuboara joanda; ez da aurrez izenik eman behar.

Garbigune ibiltaria datorren egunean egongo da, merkatuan

Mankomunitatearen garbigune ibiltaria datorren egunean, otsailak 20, etorriko da Oñatira. Berdura azokaren atzealdean egongo da, egun osoz: 10:30etik 21:00ak arte.

Garbigune ibiltari horrek etxean sortzen diren hondakin bereziak jasotzen ditu, adibidez: disolbatzaileak, aerosolak, bonbillak, motor olioak, bateriak, pinturak, inprimagailuetako kartutxoak, erradiografiak, etxetresna elektrikoak eta DVD eta CDak. Garbigune ibiltari hori herriz herri dabil bailaran eta Oñatira hileko lehenengo eta hirugarren egunetan etortzen da, berdura azokako atzealdera.

Olabarrietako Errota: betiko eran lanean oraindik

- Errotak ohiko zirenean baino askoz gutxiago, baina gaur egun ere ehotzen dituzte garia eta artoa
- Bere garaian amak jarraitzeko eskatuta dihardute Lourdes Ugartek eta haren senar Enrike Biainek

JULEN IRIONDO | OÑATI

Olabarrieta auzoan aurrera eta atzera, bertatik sarritan pasatzen diren askok ez dute jakingo, hantxe, auzorako bidegurutze nagusiaren parean, lehengo tabernaren aldamenean, bide bazterrean dagoen etxeetako bat errota denik, betiko erara gari eta artoak ehotzen jarraitzen duen errota, azken "200 edo 300" urteetan egin duen gisa bertsuan. Eta hori kanpoaldean pistak badituenik, bigarren argazkian ikusten den bezala. Ba errota da bai, eta ibili dabil: urak jarraitzen du mugitzen bertako gurpila; urak, eta joan zireneko leialtasunak.

Enrike Biain eta Lourdes Ugarte senar emazteek daramate errotaren martxa azkeneko urteetan. Lourdes da, jatorriz, etxekoa, eta haren amak eskatu zien, "mesedez", jarrai zezatela errotarekin bera ez zenean ere. Eta, gaur egun, inguruko bakarra izango da, gutxi baina, -garaian behintzat- erregulartasunez eta zereal ekoizleekiko zerbitzu boka-zioz, lanean diharduena.

Enrikek diosku errotak, kopuruz, gutxitu diren moduan gutxitu dela bertan egiten den lana ere. Lehen bazela "auzo bakoitzean bat", eta orain, bakarra izanda ere, ez dela beharrak asetzeko gehiagoren premiarik. Egiari zor, bakarrek ere harritu dezake bat baino gehiago, *ogibide* hau *desagertua* zela usteko baitzuen hainbatek -idazten duen honek, tartean-.

Lehen, argindarrarekin ere bai
"Gustua hartu genion eta segi egiten dugu. Hemen ez dago diru-



Enrike Biain, irina batzen. | JULEN IRIONDO

ESANAK

"Lehen, egunero egiten zuen lan errotak; gaur egun, astean egun batean ere ez. Baina segi egiten dugu"

ENRIKE BIAIN | ERROTARIA

rik, baina, beno, beste batzuei lagundu eta... Geuretzako ere, laguntasuntxo bat"; Enrike Biainek, baina, mugimendua -eta, ondorioz, etekina- handiagoa zeneko garaia aipatzen ditu,



Olabarrietako Errota. | J.I.

uraren indarra nahikoa ez eta argindarrarekin ere jarduten zutenekoak -oraingo bakarra beharrean bi errota-ardatz mugituko-: "Lehen egunero-egunero egiten zuen lan errotak; gaur

egun, astean egun batean ere ez". Urak mugituta kotik ateratzen zen emaitza bestea baino hobe zela ere badio: "Urak freskatu egiten du, eta harriak hobeto lan egiten duela esaten dute".

Halaxe dio urteetako esperientziaz pilatutako jakintzaren ahotsak, eta berresten du, besteak beste, ezagupen eta jarduteko modu horiek jaso eta gal ez daitezen diharduen Gopegitik etorritako baserritar biko gazteak: "Enteratu ginen hemen bazela aukera garia harri bitartez txikitze, eta horregatik etortzen gara; badira beste era batzuk, baina horiekin berotu egiten da alea, eta propietateak galtzen ditu". "Gaur egungo bizimodua ez zitzaigun gustatzen, eta nahi genuen lehengora apur bat bueltatu", jarraitzen du Ander Arrietak, Arabatik etorritako gazte horietan batek, eta: "Jende nagusiak dakiena galdu ez dadin, berreskuratu egin nahi dugu". Bizi-pentsakera horrekin datoz Oñatira, Gorbeape hartan errotak izan badiren arren, martxan dagoenik ez omen dagoelako dagoeneko. "Lehen arrunta zena, gaur arraroa da", dio gazteak.

Lehen, garagarra, oloa...

Eta arraroa da, baita ere, gaur egun, artoa edo garia ez den beste ezer eramatea inork errotara ehotzera; lehen bai: "Garagarra, oloa, baba txikia ganaduarentzako... Baina orain nola ez dagoen ganadurik... Orain, horietan, *ekologikoak*, gari apur batekin, artoa, eta besterik ez", dio Olabarrietako Errotako Enrikek.

Gaur egun, oro har, irina ere, erosi egiten da: "Hona ekartzeko kargatu egin behar duzu, ekarri, berriz ere kargatu... Gero eralki egin behar duzu irina; bestela eralkita dute, askoz errazagoa da". Gopegiko gazteok bezala, Arrasatetik, Itsasotik edo Azkoititik etorri izan zaizkie bezeroak errotara azken urteetan: "Azkoitiko bat etortzen da hilean behin, eta ehotzen ditu 200 kilo gari, ogi integrala egiteko. Hura dugu bezero onena, urte osoan etortzen da". Eta ur gutxi dagoenean? "Orduan ibiltzen gara gaizki; aurreikuspenez jokatzeko saiatzen gara, eta 200 ez badira 100 eramaten ditu, eta berriz etortzen da bueltan. Baina hori bi hilabeteetan izaten da asko jota, abuztuaren eta irailean"; hala dio Oñatiko azken errotari familiako kideak. Ba ez bedi gurrupila gera!

LOURDES UGARTE | OLABARRIETAKO ERROTAKO

"Gure sukaldeko atea ez zen inoiz ixten; etxean moduan ibiltzen zen jendea"

Lourdes Ugartek betidanik ezagutu du errota etxean. Lan gehiegi ez dute izaten egun: "Auzokoak hamar ere ez dakit etorriko diren urtean", dio. "Artoa ere ez da ereiten ia".

Txikitatik laguntzen zenuten?

Bai, beti. Batzutan lagundu egin behar izaten zen alea botatzen, poliki zetorrelako edo bizkorregi.

Ama-eta ez zirenean, zuek jarraitu zenuten.

Ama hil zenean, oraindik anaia eta ahizpa ondo nituen. Ahizpa eta biok ibiltzen ginen, eta ordurako nire gizona ere hasita zegoen, apur bat, errotan. Anaia arduratu zen, oster, berritzeaz. Duela 26 bat urte hasi genituen obrak, eta lan handiak egin



J.I.

genituen: ubidea estali, etxerako sarrera aldatu...

Amak agindu zizuen jarraitzeko.

Bai. Gure anaia gainera ezkongabea zen, eta oso langilea. Amak esaten zion: "Errota behintzat ez itxi; bestela, jendeak ezingo du arto-iririk egin". Orduan, anaiak, konponketa egin zion. Eta horrela jarraitu dugu. **Eta merezi izan du.**

Bai; batez ere, ematen digun satisfazioagatik. Amak esan zigulako, betiko gauza delako... Errotan asko hitz egiten da jendearekin, harremanak sortzen dira, eta merezi du. **Ikusten da ohituta zaudetela; neu ere primeran hartu nauzue.**

Bai. Gure sukaldean ez zen inoiz atea itxita egoten. Menditarrak ere etortzen ziren zorroarekin; oinetakoak aldatu eta kalera joaten ziren askotan. Bueltan, zorroa ehot, etxera eramaten zuten. Etxean moduan ibiltzen ziren.



Gopegitik Oñatira garia ehotzera etortzen den bikote gaztea. | J.I.

Gopegitik Oñatira, garia ehotzera

Ander Arrieta -argazkian, eskuinekoa- eta laguna aldiro-aldirotzen dira Olabarrietako Errotara, etxerako ogia egiteko garia ehotzera. Gopegin (Araba) bizi dira, eta ortua eta sorua dituzte. Beste bizimodu baten bila joanda, ortuak emandakoekin otarrak egin eta banatzen dituzte inguruan. Oraingoan eramandako 70 kilo garirekin, lau hilabeteen ogia egiteko irina izango ei dute.


Mozorroak egiteko lokala prestatu du Udalak Tavexen

Herriko kuadrillek erabili ahal izango dute, doan, kultura etxean izena emanda

MONIKA BELASTEGI | BERGARA
Aratusteak gero eta gertuago dau- de eta kuadrillak dagoeneko hasi dira mozorroak prestatzen. Bada, erraztasunak emate aldera, Uda- lak lokal bat jarri du herriko kuadrillen eskura, mozorroak bertan presta ditzaten. Tavexen dago eta erabili nahi duten kua- drilla guztiek izango dute erabil- tzeko aukera, inolako alokairurik ordaindu barik.

Lokalaren ordutegia hauxe izango da: astelehenetik eguba- koitzera, 16:00etatik 21:00etara; eta zapatu eta domeketan, 10:00e- tatik 13:30era eta 16:00etatik 21:00e- tara. Interesatuiek kultura etxera deitu beharko dute eta kuadrilla- ko ordezkari baten izena eman.

Sara Martinez, kartelaren egilea
Sara Martinez gaztearen lanak irabazi du Udalak Aratusteak iragartzeko deitu duen irudi lehia- keta. *Aratusteak gozatu herria mozorrotu!* leloarekin, San Pedro parrokia eta Olaso dorrea mozo- rrotu ditu eta sari gisa 350 euro jaso ditu bonutan, herriko komer- tzioetan trukatzeko.



Sara Martinez kartelaren egilea. | SARA MARTINEZ

Udaletik esan dutenez, "bi lan baino ez dira aurkeztu. Hori bai, biak maila onekoak". Bestalde, aurtun lehenengoz herritarrek Internetez bozkatzeko aukera izan dute eta hor ere Martinezenak irabazi du.

Ikuskizunetarako sarrerak

Udaletik jakinarazi dute Aratus- teetako kontzerturako eta Pirritx eta Porrotxek Aratuste-zapatuan egingo duten emanaldirako sarre- rak datorren astean jarriko dituz- tela salgai.

Kontzertuari dagokionez, pilo- talekuko aulkien lerro bikoitie- tarako sarrerak www.bergara.net helbidean jarriko dira salgai otsai- laren 17an. Lerro bakoitietarako sarrerak, berriz, kultura etxean salduko dira, otsailaren 17tik aurrera, 19:00etatik 21:00etara. Interneteko salmentak ez dio kul- tura etxeko salmentari eragingo. Kontzertu egunean 21:30ean ire- kiko dute leihatila. Dena den, aldeztatik sarrera guztiak salduz gero, emanaldi egunean ez da leihatilarik irekiko.

Paillazoen bi emanaldietarako, pilotalekuko aulkien lerro biko- itietarako sarrerak www.bergara.net helbidean salduko dira otsai- laren 19 goizean hasita. Lerro bako- itietarakoak kultura etxean salduko dituzte hilaren 19an hasita, 19:00e- tatik 21:00ak arte. Interneteko sal- mentak ez dio kultura etxeko sal- mentari eragingo. Emanaldi egunean 14:30ean zabalduko da leihatila bi saioetarako –aurrez guztiak salduz gero, ez da irekiko.

Informatika hastapen ikastaroa erretiratuentzat

M.B. | BERGARA

Tresna informatikoak erabil- tzen jakitea oso erabilgarria izan daiteke adin tarte guz- tiendako. Ordenagailuak, Internetera konektatutako aparailuak eta Internet bera oso baliagarriak izan daitez- ke, bai eguneroko bizitzako hainbat alorretarako, bai egoera berezietarako.

Bada, erretiratuen eta hirugarren adineko pertsonen artean informatikaren oina- rrizko ezagutza eta erabilera sustatzeko, otsailaren 17an hasita informatika ikastaroa izango da Aitonetan. Hastapen ikastaroa izango da emango dutena.

Izena eman behar da

Eskolak astean hiru egunean izango dira, astelehen, egua- zen eta eguenetan, 11:00etatik 13:00etara, informatika gelan.

Parte hartzeko, izena aurrez eman behar da Aito- netan bertan edo 943 76 21 40 telefono zenbakira deituta. Astelehenetik eguenera eman daiteke izena, 11:00etatik 12:30era.

Musika Eskolako hamar ikasle Andoaingo piano jaialdira

11 eta 14 urte artean dute eta zapatu eta domeka bitartean arituko dira Bastero aretoan

M.B. | BERGARA

Jon Irureta, Dai Hong Jiang Pan, Miriam Moñux, Eider Etxaniz, Ane Larrakoetxea, Maddi Iñarra, Saioa Galarraga, Naroa Arangu- ren, June Berraondo eta Itziar Mujika.

Horiexek dira Musika Esko- latik Andoaingo piano jaialdira joango diren hamar ikasleak. Izan ere, urteak daramatzate Musika Eskolako piano ikasleek jaialdi horretan parte hartzen eta aurtun ere halaxe izango da. Lan handia egin eta asko entsea- tu ostean, bihar, zapatua, eta etzi, domeka, hartuko dute parte Andoaingo Bastero aretoan egin- go den jaialdian.

11 eta 14 urte arteko ikasleak dira guztiak eta Eli Mendiaraz eta Amaia Urdangarin dira haien irakasleak. Urtarrilaren 29an, ikasleok pianoa nola jotzen duten entzuteko aukera izan zen, Deba- goieneko beste hainbat piano ikaslerekin batera Arrasateko Amaia Udal Antzokian egindako emanaldian.

10 urteko ibilbidea

Andoaingo piano jaialdiaren bederatzigarren aldia izango da aurtengoa eta, hain zuzen ere, 6 eta 20 urte arteko 880 piano-jo- tzailek hartuko dute parte, Seias-



Ikasle eta irakasleak Arrasaten, Amaian, egindako emanaldian. | MUSIKA ESKOLA

le elkarteak eta Andoaingo Uda- lak antolatuta.

Jaialdia egiteko ideia LOGSE hezkuntza legearen ezarpenaren ondoren jaio zen, 1992. urtean. Hain zuzen, azterketa libreen desagerpena eragin zuen legediak eta musika eskola bakoitzari autonomia eman zion.

Bada, jaialdia musika eskola guztiak batzeko helburuarekin jaio zen, irizpide eta programa bateratuak izan zitzaizkion. Hala, ikasturte oso bat eman zuten proiektuari forma ematen, eta lehenengo jaialdia 2006. urtean egin zuten.

Etxerateg eskerrak eman nahi dizkie herritarrei

Etxerateg eskerrak eman nahi dizkie herritarrei, euskal pre- soen izenean Gabonetan egin- dako ekintzetan eskainitako laguntzagatik. Erredakziora bidalitako ohar baten honela dio Etxerateg: "Gabonetan egiten dugun laguntza kan- painan gurekin bat egin duzuen guztioi eskerrik asko. Askok izan zarete, urtero beza- la, zuen elkartasuna bideratu duzuenok, dela ekitaldietan parte hartuz, dela ekarpen ekonomikoak eginez. Hortaz, Bergarako herritarrei, den- dariei eta gainerako guztiei, gure eta euskal preso- en par- tetik, eskerrik asko".



Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Amodiozko gutunik onenak sarituko ditu gaur Jardunek

Aurten ere sari banaketa kultur etxean izango da, 19:00etan hasita

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketako sari banaketa egingo dute gaur, egubakoitza. Kultura etxean izango da, 19:00etan hasita. Sari banaketa xumea izango dela eman du aditzera Maitane Arizabaletak. Sariak eman ostean, irabazleek euren eskutitzak irakurriko dituzte. Gero, luntx txiki bat egongo da, bertaratzen direnentzat".

Jardunek antolatzen duen sariketako irabazlea Amaia Arto-la tolosarra izan da; Diego Leon barakaldarra bigarrena; Uxue Agirre izan da epaimahaiaren ustez Bergarako lanik onena; eta Ainhoa Ortega algortarrarentzat izan da, ostera, gazteen saria.

Balorazio positiboa

Amodiozko Gutunen 22. Lehiaketara 65 lan aurkeztu dira aurten: "Gutxi gorabehera, urteroko



lazio sari banaketan, Iratxe Esnaola irabazlea, gutuna irakurtzen. | GOIENA

zifrak mantendu ditugu. Oraindik ere gizonezkoek baino emakumezko gehiagok bidali dituzte lanak, baina esan behar dugu bestetan baino gizonezko gehiagok hartu dutela parte aurten".

Eta lehiaketara aurkeztutako lan kopuruarekin pozik egon arren, datorren urterako erronka bat ipini gura diote euren buruari Jardunekoek: "Bergarar gehiagok parte hartzea gurako genuke".

OHARRAK

ZENBAKI SARITUA UBERAN

Uberako San Paulo jaietako zozketaren zenbaki saritua 578 izan zen. Irabazleak Uberako landetxean bi lagunentzako asteburua eta Tartufon lau lagunentzako afari edo bazkaria irabazi ditu.

SAN JOXEPEKO EKIMENAK

San Joxeppek martxoaren 4rako Aratuste-bazkaria antolatu du; bazkalostean dantzaldi mozorrotua egingo dute. Martxoaren 12an Donostiara txangoa egingo dute, Foru Aldundia bisitatu eta sagardotegian bazkalduko dute. Bietan eman daiteke izena.

EQUO-REN BERBALDIA

Equo Bergarak hitzaldia egingo du otsailaren 20an kultura etxean, 19:30ean hasita. Aldaketa klimatikoaz eta olatu handien kalteen erlazioaz, *Oparitu zuhaitz bat* egitasmoaz, banku etikoez eta kooperatiba energetikoez egingo dute berba.

Udalak 37.024,87 euro banatu ditu GKEentzako diru laguntzetan

Sentsibilizazio arloko laguntza eskaerarik ez da jaso

Z.V.D.M. | BERGARA

Bergarako Udalak, ohi duen moduan, gobernuz kanpoko erakundeei zuzendutako diru laguntza deialdia egin zuen, eta asteon argitaratu ditu laguntzen emaitzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Hori horrela, 37.024,87 euro banatu ditu diru laguntzetan Udalak: Bubisher, Ams Mundu Solidarioa, Amsogra, Serso San Viator, Oscar Romero, Ndank Ndank eta Komite Internazionalistak elkartearen artean banatu da diru hori.

Gizarte Zerbitzuetako batzordeburu Jabier Bengoak aditzera eman duenez, Udalaren filosofia Bergaran zein ibarrean errotuta dauden gobernuz kanpoko erakundeei laguntza ematea da: "Eta gainera, herrigintza bultzatu gura da eta kooperazio mailan ere ekarpena egin".

Laguntzarik jaso ez dutenak

Dirulaguntzak jaso dituztenez gain, badira baldintzak bete ez eta deialditik kanpo geratu diren GKEak ere, Gizarte Zerbitzuetako Mariaje Unamunok aditzera eman duenez. "Normalean, aurkeztu diren talde guztiei eman dizkiegu laguntzak; noski, ez dute dirurik jasoko bergararrak edo gure ibarrekoak ez direnek. Epe kanpo aurkeztutakoak ere egon dira".

Bestalde, oraingoan ez dute sentsibilizaziorako diru laguntza eskaerarik jaso, eta, ondorioz, hutsik geratu da arlo hori.

Irizpide berberak

Aurrerantzean Udalak irizpide berak izango ditu laguntza horiek emateko orduan. "Eta aurrekontua oraindik onartu ez den arren, GKEei bideratutako oraingo kopuru bera mantentzea aurreikusten dugu".



Beneit, Ferrerons eta Tornay, eguazteneko berbaldian. | GOIENA

Kataluniari buruzko berbaldi arrakastatsua

Z.V.D.M. | BERGARA

Eguaztenean jende ugari bertaratu zen Irizar jauregira Gure Esku Dago ekimenak antolatuta Kataluniari buruzko berbaldia jarraitzeko asmoz. Jordi Ferrerons, Miquel Beneit eta Josu Tornay izan ziren hizlariak; azken hori, Assemblée Nacional Catalanako kidea. Hark Espainiatik izandako hainbat eraso

aipatu zituen: "Bertako hizkuntza-murgiltze programa arrakastatsua da eta Wert ministroak atzera bota du, espainolaren alde eginez. Autonomia faltua dauka Kataluniak".

Etorkizuna erabakitzeko arrazoi ekonomikoez ere egin zuten berba eta aurtengo kontsultaren alde jardun zuten hizlariak Irizar jauregian.



Neska-mutilak Agorrosingo igerilekuan. | GOIENA

Haur eta gazteentzako ur jolasak antolatu dituzte domeka goizerako Agorrosinen

Z.V.D.M. | BERGARA

Etzi, domeka, ur jolasekin gozatu dute etxeko gazteenek. Hori horrela, 11:00etatik 13:00etara, bi multzotan banatuta jolaleko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Igerileku handian 8 urtetik gorako neska-mutilentzako gunea egokituko dute; eta puzgarriez

gain, begirale batek dinamizatu dute jolasak. Igerileku txikian, ostera, gurasoekin batera egiteko 8 urtetik beherakoentzako ekintzak antolatu dituzte.

Abonatuentzako eta abonatu ez direnentzako deialdia da; azken horien kasuan, 6,5 euro ordaindu beharko dute helduek eta umeek, berriz, 3,5 euro.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Zintzilik irrati libreari buruz jardungo dute gaztetxean

Z.V.D.M. | BERGARA

Domeka honetan, 19:00etan hasita, Bergarako Gaztetxean Oreretako Zintzilik irrati libreia izango da protagonista. Hain zuzen ere, *Zintzilik irrati - 27 urte ez dira ezer!* dokumentala ikusteko aukera egongo da eta jarraian mahai-ingurua egingo dute.

Dokumentalak hainbat gai lantzen ditu: batetik, irratiaren historia bera ezagutzeko aukera egongo da, eta, horrez gainera, hura sortu zeneko giroa zein zen jakingo dute kartzela zaharrera bertaratzeko direnek. "Oreretaren historiaren zati bat ezagutuko dute; horregatik darama dokumentalak *Herri baten historia* azpiztitulua".

Beste bi dokumental

Otsaila amaitu bitartean beste bi dokumental eskainiko dituzte gaztetxean. *Izan pirata* eskainiko dute otsailaren 2lean, eta, segidan, jai ereduaren gaineko mahai-ingurua egingo dute; eta hilaren 23an, osterar, *Hala Bedi 30 urte* lana aurkeztuko dute, eta tertulia egingo dute ondoren.



Etxeberria, Errandonea, Arrieta eta Ioldi martitzeneko partiduak hasi aurretik. | AMAIA TXINTXURRETA

Ioldi eta Errandonea, Soralue sariaren finalaurrekoetan

Martitzenean jokatu zituzten final-laurdenak biek eta mendean hartu zituzten Arrieta eta Etxeberria

ZURIÑE V.D.M. / AMAIA T. | BERGARA

Martitzenean jokatu ziren Soralue sariaren, hau da, Bergarako Lau terdiko Txapelketaren final-laurdenak Udal Pilotalekuan.

Senior mailan ez zen ezustekorik egon eta faborito zen Eneko Ioldik Arrieta hartu zuen mendean. Partidu lehiatua izan zen seniorrek jokatu zutena, bai-

na amaieran 22-13 erakutsi zuen markagailuak.

Bestalde, promes mailako norgehiagoka ere jokatu zuten, eta, kasu horretan, Xabier Errandonea izan zen irabazle Etxeberriaren aurkako partiduan. Hasieratik joan zen aurretik markagailuan Errandonea, eta 22-12 irabazi zuen.

Bada, Reyes Azkoitia entrenatzaileak txapelketaz egin zuen berba martitzenean, eta oraingoz ondo doala eta pilotariek erakutsi duten maila ona dela eman zuen aditzera.

Martxoan finalerdiak eta finala

Martitzeneko emaitzen ondorioz, martxoaren 4an, martitzena, finalerdiak jokatu dituzte Ioldik eta Errandoneak.

Aurrenekoak Albarado izango du aurrez aurre eta bigarrenaren aurkaria zein den jakiteko datorren martitzenera arte itxaron beharko da (otsailak 18). Izan ere, orduan lehiatuko dira Larunbe eta Irribarria finalerdirako txartela eskuratzeko.

Behin martxoaren 4ko partiduak jokatura jakingo da martxoaren 18an izango den final handian zein pilotarik hartuko duten parte.

LABEGARAIETA

EMAITZAK

T.C.C. - Komando Piperrak	16-2
Diego Valor - Irama Elgeta	9-1
Minimou Taldie - Brunet	8-4
Red Piranhas - Beti Jai	8-5
Birgerias - Poteo Izarrak	3-8

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Poteo Izarrak	34	13
2 Diego Valor	34	13
3 Minimou Taldie	33	13
4 Red Piranhas	18	13
5 T.C.C.	18	13
6 Brunet	16	13
7 Irama Elgeta	13	13
8 Komando Piperrak	12	13
9 Beti Jai	12	13
10 Birgerias	3	13

PARTIDUAK

OTSAILAK 15, ZAPATUA
18:30 Poteo Izarrak - Beti Jai / Brunet
19:30 Brunet - T.C.C. / Beti Jai
OTSAILAK 16, DOMEKA
10:30 Diego Valor - Red Piranhas / Komando Piperrak
11:30 Komando Piperrak - Birgerias / Diego Valor
12:30 Minimou Taldie - Irama Elgeta / Birgerias

Porra egiteko aukera webgunean

Webgunean (<http://bergarakofutbitoelkar-tea.es.tl>) porra egiteko aukera dago. Izena edo ezizena ipini, eta beti berdina erabili. Edozeinek parte har dezake, nahiz eta txapelketan aritu ez.

3. fasea hastera goaz! ARETXABALETA

165.000 €-tik aurrera (BEZ kanpo)

- 2 eta 3 logelako etxebizitzak
- Sukalde hornitua
- Trastelekua barne
- Horma-armairua

Iturrizar plaza



Informa zaitez, konpromisorik gabe:

ORTUZAL PROMOCIONES S.L Ibargarai 36 behea - BERGARA

Tel.: 943 79 40 00 - 943 76 11 18 - 619 71 82 78

www.grupoortuibar.com

Aratusteak gertatzeko lanetan bete-betean

Herri bazkarirako txartelak kuadrillak hartu behar dira kultur etxeko bulegoan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA


Badatoz Aratusteak... Aretxabaleta inguruan, behintzat, igarri-igarrikoa da hori. Kultura Sailsa, batetik, eta kuadrillak, bestetik, geratu barik dabilta lanean.

Hala, dagoeneko aukeratu dute jaiok iragarriko dituen kartela, Eider Encina eskoriatzarrak egindakoa, hain zuzen. Hamar lan aurkeztu dira lehiaketara eta herritarrek osatutako epaimahaiak erabaki du Durana kalean behe-atorren animaliaz betetako traktore koloretsuak iragarriko dituela Aratusteak. 200 euroko saria jaso du Encinak. Kartel guztiak Arkupeko harreran dau- de ikusteko.

Bazkaria 600 lagunendako

Aratuste-domekako herri-bazkarirako txartelak dagoeneko salgai dauzkate. Kuadrillak hartu behar dira txartelok Kultura Sailekoek Arkupen duten bulegoan (08:00-15:00). Astelehena ezkerro dituzte eskuragarri eta eguaztenerako ia 200 salduta zituztela jakinarazi dute Kultura Saileko kideek.

Helduen menua izango da: patatak errioxar erara; solomoa piper gorriekin; hostopilezko tarta izozkiarekin; ardoa eta sagardoa (Isastegi); eta kafeak eta infusioak. 16,50 euro balio du horrek. Eta umeena haxe da: makarroiak tomatearekin eta txorizoarekin; solomoa patata



Kartel irabazlea. | EIDER ENCINA

Kuadrillak muntaiak gertatzen

Kuadrillak ere ez daude geldi, eta txiki, gazte zein heldu, ilusio handiarekin dabilta karrozak eta mozorroak gertatzen. Bi lokal dituzte horretarako; muntaia handiak egiteko Eskoriatzako Torrebato pasealekuan dagoen G pabiloian -Almen azpiko birlilgunetik gertu- eta kontu txikiak gertatzeko Mitarte plazan.

Bi lokaletan oraindik badute lekua; hortaz, interesa dutenek Arkupeko harreran eska dezate- la giltza. Udalak zehaztutako arauen arabera, aurtan 20 euroko fidantza jarri beharko da -giltzak bueltatzerakoan itzultzeko-. Kuadrilla bakoitzak arduradun bat izango du, eta harena izango da taldekideen erantzukizuna. Adingabeen ardura nagusi batek izango du, eta umeak badira, lokalean bertan egon beharko du arduradun horrek.

erreekin; eta natillak. Hori guz- tiori, 13 euroren truke. Azken bi urteotan legez, Ibarra kiroldegian izango da bazkaria, eta 600 lagu- nendako dago tokia.

Txapel Txin, Olinpiar Jokoak gertatzen

Txapel Txin ere hasi da Aratusteak gertatzeko lanetan, eta aurtan sasoi betean egon gura du. Izan ere, Aretxabaleta, egun batez bada ere, olinpiar hiri bihurtuko ei da, eta, suzia eskuan hartuta, bertan jokatzeko asmoz dator.

Azken urteotan legez, Aratuste-domeka baino astebete lehenago ospatuko da Txapel Txin eguna: otsailaren 22an, hain zuzen. Txapela jantzi eta jai giroan murgiltzeko dei eginez laster bidaliko die gonbidapena herritarrei.

Galdetu dute: "Zein dabil hemen gezurretan?"

Bosgarren edukiontzia aldeko plataformakoek Udal Gobernuari galdetu diote

M.A. | ARETXABALETA

Udal Gobernuak Aretxabaletan atez ateko hondakin bilketa sistema jarriko zuela aurkeztu zuen egunean, urtarrilaren 29an, bosgarren edukiontzia aldeko plataformakoek gainean esandakoak argitu gura izan dituzte plataforma horretako kideek: "Kritikatzen jardun zuten gezurrak eta gezur erdiak esan ditugula salatuz, eta, atez atekoaren kontra jasotako sinadurak udaletxean aurkeztu ez genituela, desinformatzen gabil- tzala, jendea sutzeko nahia daukagula, proposamenik aur- keztu ez dugula eta beste hain- bat kontu esanez".

Diote 2012ko uztailean 27an atez atekoaren aurkako eta bos- garren edukiontzia aldeko 1.704 sinadura aurkeztu zituz- tela udaletxean notario-aktare- kin batera: "1.452 zenbakidun udal sarrera zigiluarekin". Eta argitu dute sinadura horiek ez zirela udaletxean geratu, "datu pertsonalen babeserako legedia ez haustearren".

Proposamenik ez aurkeztu izana ere egotzi diola Udal Gober- nuak diote: "2013ko ekainaren 14an, 1.087 zenbakidun udal sarrera zigilua daraman Are- txabaletarentzako hondakinen gaikako bilketa proposamena aurkeztu zuen plataformak".

Eta haxe gaineratu dute: "Udal Gobernuak dioenean hon- dakinak aukeratzea ezin daite- keela borondatezkoa izan, gizar-

te betebeharrak bat dela, platafor- makoen proposamena ez da horren kontrakoa. Ezta gutxia- go ere. Gure proposamena ira- kurri ere ez dutela egin demos- tratzen dute baieztapen horiek". Eta haxe ere esan dute: "Gezur eta gezur erdiei buruz jarduteko frogak eduki egin behar dira".

Udaletxeko atea zabalik

Udal Gobernuak, berriz, jaki- narazi du sinadurak gura duten lekuan aurkeztu ditzaketela, "bai- na zergatik ez udaletxean? Zer egingo du, ba, Udalak horiek? Ala beste zerbait dago atzean? Igual guztiak ez dira aretxaba- letarrenak, igual... Susmopean eurrak jarri dira".

Bestetik, txalotu egin dituz- te bosgarren edukiontzia erabil- tzen duten boluntarioak, baina "hipokritak" ez izateko diote: "Boluntarioen lanarekin ezin da herri bat aurrera atera, batez ere kontu honetan, %80ko emai- tzak lortu gura baditugu, esate- rako". Eta adibide bat jarri dute: "Zirkulazio araukin gauza bera gertatzen da, araurik ez balego errespetatuko lirateke zebra-bi- deak, aparkalekuak...".

Eta plataformakoei jakina- razi diote udaletxeko atea zabalik ditzutela: "Errespetuan elkar ulertzean eta akordioetan sinistuta lan egin gura dugu, diskrezioarekin". Eta prentsara jo beharrean "herriko giroa kaka-nahasteko", udaletxera hurbiltzera gonbidatu dituzte.

101 lagunek eman dute odola orain arte eta egunean autobusa dator

M.A. | ARETXABALETA

Hiru astelehenetan etorri dira Arabako Odol Bankuko kideak odola ateratzera gurera, eta 101 lagunek eman dute. Eman gabe geratu direnek beste aukera bat dute egunean, hilak 20, odola ateratzen duen autobus ibiltaria izango da-eta Durana kalean.

Aurrekoetan baino gutxiago

Negu parteko odol ateratzeak egin dituzte azken hiru astelehe- netan, eta, 112 lagun joan badira ere emateko gogoz, 101ek bakarrik eman ahal izan dute. Horietatik sei izan dira lehenengoz joanda- koak; hortaz, "ondo etorri eta eskerrik asko" esan die horiei

Odol Emaileen Elkarteko kide Ramon Erañak. Hala ere, berri gazi-gozoa da; izan ere, orokorrean aurrekoetan baino gutxiagok eman dute oraingoan. Dena den, badute oraindik beste aukera bat joan ez direnek. Egunean, hilak 20, odol ateratzen unitate mugi- korra izango da Durana kalean, Herriko Plaza parean, 09:30etik 13:30era. "Anima gaitezen eta ahalegintxoak egin guztiok berta- tik pasatzeko", dio Erañak, "eta mila esker aldeztu aurretik".

Gaur bukatuko da Udalak antolatutako gazteekin lan egiteko ikastaroetarako izen-ematea

Ume eta gazteekin lan egiten duten eta etorkizunean lan egin gura dutenei zuzendutako hiru ikastaro antolatu dituzte Udale- ko Euskara, Gazteria eta Gizarte Zerbitzuen departamentuek: kulturartekotasuna, erreferentzialtasuna eta hezkidetzatza/berdin- tasuna. Izena emateko epea gaur bukatuko da, eta horretarako Gazteria edo Euskara zerbitzuetara jo behar da (udaletxean), telefonoz deitu (943 08 10 01) edo posta elektronikoko bidez egin eskaera: gazteria@aretxabaleta.net. Debalde dira.

Guztiak bi saiokoak dira, zapatuetan egitekoak. Lehenengoa kulturartekotasuna da, eta bihar eta 22an dira saioak (09:00-13:00); erreferentzialtasuna, apirillean; eta hezkidetzatza, azaroan.

Jou Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

PIENSO

SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Zuhaitz Eguna egingo dute etzi bidegorri inguruan

Santa Kurtz kale osteko bidegorriaren inguruan izango da landaketa, 11:00etan hasita

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA
Zuhaitzak landatzera joateko dei egin du Udaleko Ingurumen Sailak domekarako –eguraldi ona zein txarra egin–. Ikastetxeetako umeak, haien gurasoak eta gainerako herritarrek gonbidatu dituzte ekitaldira, eta herriko Landaketa Taldiek laguntzen jardungo du. Herriko Plazan elkartuko dira, 11:00etan.

40 eta 50 zuhaitz artean
Santa Kurtz kalearen atzeko partetik pasatzen den bidegorri ingu-

ruan egingo dute landaketa, errepideraino dagoen aldapan, iaz legez. Eta landatuko dituzten zuhaitzen artean daude urkiak, haritzak, ezkiak, lizarrak, pago lizarrak, arteak eta gorostiak; 40 eta 50 artean, guztira.

Lanerako gonbidapena Kur-tzebarri eskolako eta Arizmendi Ikastolako Almen guneko ikasleei egin diete, baina lanerako gogoa duen edonor hurrera daiteke. Koordinazio lanetan, oster, Landaketa Taldie elkarteko kideak izango dira. Horretarako behar



M.A.

diren tresnak udal langileek eroango dituzte, eta zuloak ere eginda topatuko dituzte neska-mutikoei. Hortaz, aitzurrarekin lurra bota bakarrik egin beharko dute eta gero ingurua gogortu.

Behin landaketa bukatutakoan hamaiketako eskainiko die Udalak plazako arkupeetan lanean jardundako guztiei.

EMAKUMEEN FRONTENIS TXAPELKETA

Txapelketaren lehen fasea bukatu da

Lau taldetan banatuta jokatu dituzte partiduak orain arte –talde bereko lau bikote elkarren aurka–. Hori bukatuta, final-zortzirenak hasiko dituzte bihar; talde bakoitzeko bikote onenek elkarren aurka jokatuko dute orain. Hortaz, norgehiagoka biziak izango dira Iturrigorri pilotalekuan.

HIRUGARREN JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Lore Martinez - Rosa Ojuel / Dorleta Elkorobarrutia - Ainhoa Gallastegi	23-25
Lur Delgado - Lierni Zangitu / Ainhoa Galfarsoro - Urri Urizar	25-10
Ane Miren Zabala - Olatz Manuel / Maite Fraile - Maite Otxoa	5-25
Lur Delgado - Lierni Zangitu / Maite Fraile - Maite Otxoa	25-23
Larraitx Iñurrategi - Olatz Pagaldai / Marijo Bastardo - Oihana Irazu	25-24
Aitziber Kintanilla - Irati Urzelai / Marina Garmendia - Ane Benito	21-25

BIHARKO PARTIDUAK, OTSAILAK 15	
09:30 Maider Osa - Idoia Elkorobarrutia / Maite Fraile - Maite Otxoa	
10:00 Larraitx Iñurrategi - Olatz Pagaldai / Ane Lur Garin - Larraitx Madariagar	
10:30 Marijo Bastardo - Oihana Irazu / Iratxe Hernandez - Eider Zabala	
11:00 Dorleta Elkorobarrutia - Ainhoa Gallastegi / Ainhoa Galfarsoro - Urri Urizar	
11:30 Lore Martinez - Rosa Ojuel / Ane Miren Zabala - Olatz Manuel	



M.A.

Dantzan jardun dute ikasleek

Leizarra musika eskolako dantza ikasleek erakustaldiak egin dituzte asteen zehar. Senideen eta lagunen aurrean jardun dute dantzan astelehen, martitzen eta eguaztenean Arkupeko Zeraia aretoan. Ikasturtea aurrera doa, eta Aitor Villareal irakaslearen aginduetara orain arte ikasi dutenaren berri eman diete dantza saioekin, musika eskolako gainerako ikasleek egin izan duten legez.

Leizarra musika eskolako hiru piano-jotzaile joango dira asteburuan Andoainen jokatuko den txapelketara

Bederatzigarren piano jaialdia egingo dute aste bukaeran Andoai-nen, eta 18 urtez azpiko Euskal Herriko 800 bat ikasle elkartuko dira. Horien artean hiru aretxabaletar izango dira: Xabier Zuazabeitia, Ane Liang San Martin eta Malen Urkia. Paul San Martin irakasleak prestatu ditu Leizarra musika eskolako hiru ikasle gazteak. Bada, Xabier Zuazabeitiak bakarrik joko du eta neskek, berri, elkarrekin, lau eskutara.

Aurretik, urtarrilaren 29an, Arrasateko Amaia antzokian elkar-tu ziren Debagoieneko piano-jotzaileak, 50 bat guztira, eta senideen aurrean egin zuten ekitaldia orduan.

'Gure esku dago' bideoklipa grabatuko dute bihar plazan, eta herritarrei parte hartzeko dei egin diete

Gure Esku Dago ekimenak Gureskuklip lehiaketa deitu du. Gehienez hiru minutu dituen bideo klip bat grabatzea da kontua, eta Aretxabaletan ere egingo dute. Bihar, zapatua, Herriko Plazan grabatuko dute (12:00) eta herritarrek animatu gura dituzte parte hartzera.

Sari potoloak iragarri dituzte, gainera: lehenengoa herritarren botoek erabakiko dute eta klip bozkatuenaren egileek 800 euro jasoko dituzte. Bigarren saria, oster, epaimahai profesional batek aukeratutako klip onenarendako izango da, eta 500 euro izango dira. Bozkatzeko epea otsailaren 24an zabalduko dute, martxoaren 3ra bitartean, webgunean: gureskudago.net.

Gemes | Irudi aholkulariak

“Ile-apaindegi zerbitzu berriarekin gure eskaintza osatu egin dugu”

Estetika kontuetan adituak dira Gemes zentroko bost kideak, eta orain ile-apaindegi zerbitzua ere badute. Hala, irudiak behar dituen zaintza guztiak eskaintzen dituzte.

Urte asko estetikan, ezta? Bai; orain dela 28 urte hasi ginen, gurasoen etxean. Eta urte hauetan guztietan prestatzen eta eguneratzen ibili gara eten-gabe.

Eta gero egoitza berria etorri zen.

Bai, orain dela 11 urte zabaldu genuen; handiagoa, erosoagoa eta kalean bertan dago, bezeroarendako eskurago.

Estetika jarduerarekin jarraitu eta orain ile-apaindegizerbitzua eskaintzen duzue. Nolatan?

Ez da izan bat-bateko burutazioa, bezeroen aldetik eskaera geneukalako baizik. Izan ere, makillatzera etorritako askori orrazkeran ukituak eman izan dizkiegu urte askoan, eta pent-satu genuen profesiona-



Gemes: Mari Karmen, Iratzeder, Masaro, Xeli eta Nerea.

“Ileak dituen arazoetan espezializatu gura dugu, batez ere ile gutxi dutenen arazoa konpontzeko protesien bitartez”

lizatu egin behar genuela; pentsatu eta egin.

Erabaki horren ostean lan handia egon da?

Bai; batetik, lokala handitu genuen, eta bestetik, pres-takuntza saioetan hasi ginen. Bost lagunetik lauk dugu ile-apaintzaile titulua –Mari Karmen, Xeli, Iratzeder eta Masaro–, eta, oinarriko prestakuntza jaso arren, argi dugu etengabe ikasten segitu behar dugula.

Valentzian egon berri zarete ikasten, ezta?

Bai, ilea mozteko Londre-

sen sortutako teknika berri bat ikasten izan gara [Mari Karmen eta Xeli].

Zertan espezializatu gura duzue?

Ile-mozketetan, batetik, nesken zein mutilen ile-mozketetan, horregatik izan gara Valentzian; eta bes-tetik, ileak dituen arazoetan, batez ere ile gutxi dutenen arazoa konpontzeko protesien bitartez. Horretarako, Bartzelonara joango gara trebatzera.

Zer da garrantzitsuagoa, azala ala ilea?

Biak doaz batera, oso garrantzitsuak direlako itxuran, eta guk biak zain-tzen ditugu.

Irudian adituak zaretela esan daiteke orduan?

Halaxe da, irudi aholkula-riak gara. Gurean sartzen denak zerbitzu osoa topa-tuko du: estetika –depi-lazioa, tratamenduak, makillajea...– eta ile apain-degi mistoa –mozketa, kolorea...–. Horregatik dio-gu edozein konpromiso izanda ere gertu aterako zarela guretik.

Gemes

Zure irudi-aholkulariak

Orain, **ile apaindegia ere bai**, betiko estetika zerbitzuekin batera.

Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18 - ARETXABALETA

Mozorro lehiaketarako izen-ematea zabalik dago

Aurten, eguerdian egingo dute Aratusteetako desfilea; martxoaren 1ean izango da hori

M.B. | ESKORIATZA

Aratusteen bueltan, martxoaren 1ean egingo den mozzorro lehiaketan izena eman daiteke dagoeneko. Aurretik eman gura dutenek 943 71 46 88 telefono zenbakira dei dezakete, edo kultura@eskoriatza.net postara mezua bidali. Dena dela, egunean bertan ere eman ahal da, 12:30ean Huheziko aparkalekuan agertuta. Ordu erdi geroago hasiko da desfilea toki beretik.

Udaletik jakinarazi dute parte hartzeko modalitate bakarra dagoela: hain justu, gutxienez, lau lagunekin osatutako taldeekin. Horrekin batera, azaldu du kuadrilla bakoitzari zenbaki bat emango zaiola, desfilerako ordena adierazteko.

Sariak ematerakoan, Kultura azpibatzordeko kideekin osatutako epaimahaiak hona-

koak izango ditu kontuan: desfilean erakutsitako umorea, sortzen duen giroa, originaltasuna, janzkera, eszenografia eta mozzorroak egiterakoan birziklatutako materialak erabili izana.

Saria, axtrokitan

Bada, aurtengo lehiaketako sariak axtrokitan emango dituzte: helduen artean 300 eta 200 axtrokiko bina sari, 100 axtrokiko sari bat eta beste 100 axtrokiko sari berezia. 16 urtetik beherakoek merienda irabaziko dute, gehienez 100 Axtrokiko izango dena.

Desfilea eguerdian bada ere, sari banaketa arratsaldean izango da. Hain justu, 19:00 aldera plazan jakinaraziko da lehiaketako irabazleak zeintzuk diren, eta sariak banatuko dira.



Eguazten goizean Ibarraundi museoa egindako batzarra. | MIRIAN BITERI

Hondakinentzako kokaguneak aztertu behar dituzte orain eskoriatzarrek

Asteon atez atekoa jartzeko batzar informatiboak egin dituzte erdialdeko bizilagunekin; datorren astean, herri hegoaldean bizi direnekin izango dira

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Atez atekoa ezartzeko batzar informatiboak egiten dabilta egunotan herrian. Oraingo astean erdialdean bizi diren herritarrei zuzenduta egon dira horiek. Horren bueltan, esan beharra dago martitzenean eta eguaztenean Ibarraundin egindako hiru bilkuretan jende asko batu zela.

Lehenik eta behin, herriko iparraldean hiru hilabetez egindako proba pilotua zergatik ez den herri osoan ezarri azaldu zieten udal ordezkariak eta Debagoieneko Mankomunitateko teknikariak eskoriatzarrei. Jakina denez, azarotik otsailera bitartean, San Pedron, Intxaurtxuetan eta Gaztañaduin egindako probak ez ditu esperotako emaitzak eman, edukiontzi marroietan jasotako hondakinen kalitatea ez delako ona izan. Jasotako datuak azaldu zizkieten, eta, horren aurrean, banakora joan beharra dagoela jakinarazi zitzaion. Horren buel-

tan, honakoa esan zuen alkateak: "Jendeak ulertzen du zergatik ez duen funtzionatu: herritar zati batek ez du ondo egin nahi, edukiontzi guztia zapuzten duen zaborra uzten du; eta hori dela eta banakora jo behar dugu".

Organikorako bi kubo

Jarraian, sistema berriaren funtzionamenduaz jardun zuten. Esaterako, edukiontzi marroia komunitarioa izan beharrean, banakako ontziak banatuko direla. Modu horretan, gaikako sailkatzeak zei-

nek egiten duen ondo eta zeinek ez jakin ahal izango da. Proba pilotuan egin den moduan, papearendako eta kartoiarendako eta errefusarendako ontziak ere banatuko dira. Hondakinak ateratzeko egutegiari buruzko informazioa ere helarazi zuten. Organikoa astean hirutan jasoko da; ontzi arinak, bitan; eta papera eta errefusa, astean behin. Ordutegiari dagokionez, zaborra 19:00etatik 06:00ak arte atera ahal da.

Martxo amaierarako edo apiril hasierarako gura dute atez atekoa jarri; baina, hori errealtate bihurtzeko, lan handia dute aurretik. Otsailaren 27ra arte bizilagunek aukera izango dute zintzilikarioen kokaguneekiko alegazioak aurkezteko; martxo hasieran horiek erantzuniko dituzte, eta erakusketa egingo dute behin betiko kokapenarekin. Gero, azpiegiturak jarriko dituzte, eta gaika jasotzeko ontziak banatu.

Datorren astean, berriaz, Aranzuruzabala, Dorleta, Olaeta eta Aingeru Guardan bizi direnendako bilkurak egingo dituzte: hilaren 18an, 18:30ean, euskaraz; otsailaren 19an, 10:00etan, ele bitan; eta egun berean, 18:30ean, gazteleraz egingo dituzte batzar informatiboak, Ibarraundin.



Eskoriatzatik joango den ordezkaritza. | BEHEKO ERROTA MUSIKA ESKOLA

Herriko bost piano-jotzailek hartuko dute parte Andoingo Piano Jaialdian

M.B. | ESKORIATZA

Bihartik domekara bitartean, Andoingo IX. Piano Jaialdia izango da, eta, urtero moduan, Eskoriatzak ordezkaritza bikaina eroango du Andoingo Bastero Kulturunean egingo den urteroko ekimenara. Aurten, Idurre Elortzak, Onintza Markaidek, Leire Arratek, Ainhoa Ezkurdiak eta Ane Elortzak hartuko dute parte.

Eskoriatzako Beheko Errota Musika Eskolatik jakinarazi dute bi modalitatetan jo beharko dutela: bakarlaria eta lau eskutara; eta horietako bakoitza adinaren arabera banatutako hainbat mailatan egongo da banatuta. Hori kontuan izanda, musikari eskoriatzar batzuek bihar eskainiko dute emanaldia eta beste batzuek, oster, domekan.



Galdeketa egingo dute hilaren 23an

Eskoriatza Garbiak jakinarazi du hiri hondakinen gaineko galdeketa egingo duela otsailaren 23an. Plataformako ordezkariak agerraldia egitekotan ziren atzo, eguna, iluntzean, ekimen horri buruzko xehetasun guztiak emateko. Goienak astelehenean emango dizue deialdi horretan esandako guztiaren berri.

OHARRAK

DISKO FESTA ETA DESFILEA

Gaur, egubakoitza, arratsaldean disko festa eta desfilea izango dute herriko umetxoek Tortolis ludotekan.

BERBALDIA

Amuska emakumeen elkarteak antolatuta, *La igualdad también se aprende* izeneko hitzaldia eskainiko du Neus Alberto adi-tuak. 18:00etan hasiko da, kultura etxean.

MAHAI FUTBOLA

Asteburu aparta dute aurretik gaztelekuko erabiltzaileek. Gaur, sukaldean ibiliko dira gazteak; eta bihar, mahai-futbol txapelketa jokatu dute Eskoriatza eta Aretxabaletako gaztelekuen artean. Lehen jardunaldia, esan bezala, bihar egingo dute Eskoriatzan eta hilaren 22an bigarre-na, Aretxabaletan. Finala otsailaren 23an da, eta zozketa bidez erabakiko da non egin.

OLAZAR, HAUTAGAI BILA

Olazar erretiratuen elkarteak batzar orokorra egiteko asmoa du martxoaren 12an. Bilkura horretan, besteak beste, zuzendaritzarako kide berriak izendatuko dira, eta, horren bueltan, elkartetik jakinarazi dute dagoeneko zabalik dagoela izena emateko epea. Interesatuak martxoaren 6a baino lehen joan behar dute elkartearen bulegora, edo zuzendaritzako kideei esan.

Zirkulazioan eragozpenak izango dira mendi lasterketa dela eta

Antzuolako 8 Milien bigarren edizioa 10:30ean abiatuko da herriko plazatik

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA
Domekan Antzuolako 8 miliak mendi lasterketaren bigarren edizioa jokatu da herrian. Iaz bezala, 200 korrikalarik baino gehiagok hartuko dute parte lasterketan, eta, horretaz gain, jende asko hurbilduko da herrira eta ibilbideko hainbat txokotara. Hori dela eta, eragozpenak izango dira zirkulazioan.

Udalak bando bidez adierazi duenaren arabera, "260 korrikalari inguru espero dira eta kirol festaz goatzera hurbilduko diren beste horrenbeste lagun. Mendi eta umeen lasterketak arazorik gabe burutzeko asmoz, mesedez plazan autoa ez aparkatzea eskatzen dizuegu". Hori eskatu du Kirol zinegotzi Aritz Saidik.

Ez da zirkulazio mozketarik egongo, baina igande goizean eragozpenak sor daitezke. "Zuen ulermenagatik gure eskerrik beroena eman nahi dizuegu eta aldeztu aurretik barkamena eskatu oztupoengatik", adierazi du Saidik. Ekintza herrikoia izatea nahi dutela adierazi dute Udaletik: "Ekintza herrikoia antolatuta nahi izan dugu eta bertan guztiok partaide bilakatu. Berdin dio korrikalari, animatzaile edo ikusle zareten... Animatu eta gerturatu zaitezte plaza ingurura, eskolako patio estalira edo mendiko ibilbideko punturen batera, Boton, Irimo, Trekutz...". Lasterketa 10:30ean hasiko da, baina korrikalariak aurretik izango dira herrian; beraz, goizean goizetik izango da giro.



Iazko mendi lasterketan, korrikalariak Irimo gainean. | GOIENA

Aparkalekuak eta dutxak

Aparkaleku eta dutxei dagokienez, korrikalariak hainbat puntu izango dituzte erabilgarri. Hala, autoa lagatzeko orduan, Deskarga aldetik doazenei Balzers Oerlikon eta Goizper enpresen aparkalekua erabiltzeko eskatzen diete. Bergara aldetik doazenei, aldiz, Matz-Errekako aparkalekua erabiltzeko eskatzen diete.

Dutxen harira, bi gune prestatu dira 260 korrikalariak probaren ostean merezitako dutxa beroa har dezaten: alde batetik, Udal Pilotalekua; eta bestetik,

Udal Gimnasioa. Lehena, hau da, pilotalekua, emakumezkoendako prestaturik egongo da eta gimnasioa, gizonezkoendako. Banaketa hori egin dute "aldagelak kolapsa ez daitezen eta guztiek ur beroa izan dezaten ziurtatzeko", adierazi dute Udaletik. Dortsalei dagokienez, Olaranen banatuko dituzte.

Lasterketa 13:00 aldera abiatuko da. Eta, bien bitartean, herriko txikienak asper ez daitezen, plastikozko motorrekin egingo dute lasterketa, plazan, 11:00etan hasita.

Joan den egubakoitzeko lan istripuaren gaineko jakinarazpena

36 urteko gizon bat hil zen lanean zebilela

A.E | ANTZUOLA
Joan den egubakoitzean lan istripua izan zen Galartza auzoan: zuhaitzak moztzen zebilen gizon bat hil zen. Hori dela eta, Udalak jakinarazpen bat atera du. Hain zuzen ere, hauxe da Udalak bidalitako mezu osoa:

"Lehenik eta behin, Antzuolako Udalak bere samina eta elkartasuna helarazi nahi die hildakoaren senitarteko, lagun zein lankideei.

Antzuolako Udalak argi adierazi nahi du lan osasunari lehen-tasuna emango dion lan harreman eta prebentzio eredua bultzatu behar dugula, eta eredu horrek lan duina eta segurua izan behar duela ardatz. Horretarako, ezinbestekoa da gizarte eta ekonomia arloko eragile guztiek eta administrazio publikoek batera eta norabide berean jardutea.

Egiturazko arazo honi aurre egiteko, funtsezkoak dira preben-

tzioa, prestakuntza eta lan segurtasun eta osasunaren kontrako delituen jazarpena. Norabide horretan lan egin behar dute, hain zuzen ere, gizarte eta ekonomia arloko eragileek eta erakunde publikoek".

Ezbeharra

Herrizaingo Sailaren arabera, bi gizonetako zebiltzan arbolak moztzen, eta, argitzeke dauden arrazoiengatik, zuhaitz horietako bat gainera erori zitzaion langileetako bati. Ondorioz, zuhaitzaren azpian, gelditu ezinik, gertatu zen behargina. Gorrilaren bidean, Galartza auzoan, gertatu zen ezbeharra, 16:00 aldera.

SOS Deietan abisua jaso eta berehala joan ziren ezbeharren lekura bi anbulantzia, Zubillagako suhiltzaileak eta Ertzaintzaren helikoptero bat. Baina, heldu zirenerako, ezer gutxi egin ahal izan zuten.

Harremonak dinamikaren bigarren topaketa bihar

Gazteen eta indarkeria matxistaren gaineko bigarren saioa izango da bihar, zapatua, 10:00etan, Olaranen. Tailer dinamiko eta informatibo bidez osatutako saioa izango da, eta, nahiz eta bigarrena izan, herriko gazte guztiak daude gonbidatuta saio horretan parte hartzera.



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Baja garrantzitsuekin, Aurrera taldea bisitatuko dute etxeok

A.E | ANTZUOLA
Etxeko jokalariek zazpi partidua jarraian daramate galtzeke. Ez dituzte asko irabazi, gehienak berdinketarekin amaitu dituzte-eta, baina garrantzitsuena da aurten estreinatutako maila berrian tinko eta seguru jarraitzen dutela Juanina Garairen mutilek.

Joan den astean banakoa-ekin amaitu zuten partidua, nahiz eta etxeok aurretik joan ziren. Azkenaldian askotan gertatzen ari zaien kontua da hori. Bada, asteburu honetan Aurrera taldea bisitatuko dute; berriz ere etxetik kanpo jokatu dute, horrenbestez. Gainera, hiru bajarekin egin beharko diete aurre Ondarru-

ko jokalariei; izan ere, Josu Zubikarai, Jon Iturbek eta Iñaki Agirrek ezin izango dute jokatu, Ostadarren aurkako partiduan bosgarren txartel horia ikusi baitzuten hirurek. Baja garrantzitsuak, duda barik, bai aurrealdean eta baita atzealdean ere.

Gazteak ezinean

Gazte mailako futbolariak Kopako ligaxka jokatzen ari dira azken asteetan, eta, joan den zapatuan Ikasberriren aurka 1-4 galdu bazuten ere, hirugarren postuari eusten diote oraindik ere. Asteburu honetako partidua, beraz, irabazi beharkekoa da, Kopan zerbait lortu nahi badute, behintzat.



Erregional mailako futbolariak Estalan partidua jokatzen. | GOIENA

Erreforma fiskalaren gainean, Antzuolako EHBilduren oharra

A.E | ANTZUOLA
Antzuolako EHBilduk erreforma fiskala dela-eta duen iritzia ezagutzera emateko mezua bidali du. Bada, hauxe da alderdi politikoak bidalitako prentsa oharra:

"PNV, PP eta PSOEek azken legegintzaldian zehar EHBilduk Gipuzkoan aurrera eramandako erreforma fiskala oztopatu berri dute. EHBilduk aurrera zeraman erreformak, fraude fiskala saihesteko baliabideak ezartzen zituen, eta zerga bilketa justuago baterako oinarriak ezarri, gehien zutenei gehiago ordainaraziz.

PNV, PP eta PSOEek aurrera daramaten kontra-erreforma honek, 26 milioi euroko galera ekarriko dio Gipuzkoako Ogasunari, gehien behar dituztenentzako zerbitzu sozialak ahalbidetzea arriskuan jarriko duelarik, besteak beste. Ildo beretik, urtean 26.000 euro baino gutxiagoko sarrerak dituztenek gehiago ordaindu beharko dute.

Beste behin ere, langileez eta beharrik gehien dituzten pertsonez ahaztu eta aberatsenen zerbitzura ezarritako politikak daramatzate aurrera PNV, PP eta PSOE alderdiek".

GAILUR

taberna eta gozotegia

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

ARAMAIO



Aramaioko basoetako egurra –irudian– izango litzateke energia iturria. | J. DOMINGO

Jaurlaritzaren babes du biomasaren proiektuak

Asteon egindako bileraren emaitza "ezin hobea" izan da, udal ordezkariak adierazi dutenez

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaion martxan jarri gura den biomasa proiektua dela-eta Udaleko ordezkariak bilera izan zuten astelehenean Eusko Jaurlaritzan. Udal ordezkarien arabera, bileraren emaitza "ezin hobea" izan zen; izan ere, Jaurlaritzak kon-

promisoa hartu du proiektuaren alde egiteko. Oraingo, ez da zehaztu nola gauzatuko den konpromiso hori, baina "litekeena da" partida bat finkatzea. Bileran parte hartu zuten Jaurlaritzako ordezkariak, Energiaren Euskal Erakundekoak eta HAZIko kideek.

Aramaioko aitzindari litzateke

Egitasmoak aurrera egingo balu, Aramaio halako proiektu baten murgiltzen den Euskal Herriko zein Espainiako Estatuko herri bakarra izango litzateke. Izan ere, zenbait eraikin publikotan erabiltzen da biomasa, baina herri oso batendako basoetako egurra energia iturri moduan ez da erabili oraindik: "Herri osorako sarea litzateke; bai, behintzat, Ibarra-rako. 900 pertsonarendako litzateke, 400 etxebizitza", dio alkateak. Asmo handiko proiektua dela dio Ramon Ajuriak, baina urratsak pixkanaka egiten badira, proiektua bide onetik joango dela deritza. Izan ere, hainbat enpresa espezializatutako proiektua garatzeko baldintzak betetzen direla esan dute. Bestalde, Udala egunotan ari da 2014ko aurrekontuak auzoz auzo azaltzen. Bada, bilera horiek biomasa proiektuaren berri emateko ere baliatzen ari dira. Izan ere, proiektuak interes handia piztu du herrian eta Udalak eman dituen aurrerapausoak azaldu ditu bilerotan.

Datorren astelehenean, hilak 17, Diputazioko ordezkariekin bilduko dira, diru laguntza berri baten gainean berba egiteko.

Bertso bazkaria bihar Marixekan, Arabako Bertso Kuadrilla Artekoaren barruan

J.B. | ARAMAIO

Arabako Bertso Kuadrilla Artekoak geldialdia egingo du bihar Aramaio Marixeka elkartearen. Bat-bateko bi taldek hartuko dute parte lagunarte giroan egingo den desafioan: *Aramaioko Garraitzak* eta Gasteizko *Aizkorak Zorroztu*-k. Bazkarira joan ahal izateko izena emateko epea atzo

amaitu zen, baina, antolatzaile lanetan ari den *Aramaioko Garraitzak* taldeko kide batek jakinarazi duenez, Marixeka elkarteak ateak zabalik egongo dira azken ordura arte.

12 euro ordaindu behar dira bazkarian parte hartzeko, eta izena emateko 688 62 70 89 telefono zenbakira deitu behar da.

OHARRAK

1974AN JAIOTAKOAK

1974an jaiotako aramaioarrek afaria egingo dute martxoaren 8an. Izena emateko, herriko tabernetan zerrendak jarri dituzte eta honako helbide elektronikoa ere ireki dute: aramaio74@gmail.com. Iluntzean, 19:30ean, elkartuko dira Bizente Goikoetxea plazan Iturrieta sagardotegian afaltzeko.

LEINTZ GATZAGA

Guztia gertu luxuzko bertso bazkarirako

Bazkalaurretik angula porra egingo dute Toki Eder elkartearen, eta edozeinek egin dezake apustu

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Bihar, zapatua, 100 bat lagun elkartuko dira Soran etxean mahaiaren bueltan, Korrika batzordeak antolatutako bertso bazkarirako. Amets Arzallus eta Andoni Egaña bertsolariak dira luxuzko gonbidatu, bazkarirako erabat agortutako sarrerek erakusten duten moduan, benetako luxuzkoak. Bazkarirako hitzordua 14:00etan da.

Trikitilariak, ipuinak...

Baina bazkari horren bueltan bestelako ekitaldi batzuk ere izango dira. Aurretik hiru: 12:30ean Lutxurdio trikitilariak jardungo du; txikiteoa ere egingo dute eta, iaz moduan, aurten ere bazkari aurretik angula porra izango dela iragarri dute. Eta

bazkal ostean, beste bat: 16:30ean Vanesa Gonzalez arrasatearrak ipuinak kontatuko ditu.

Angula porra

Ekitaldion artean deigarriena, baina, angula porra da. Iaz egin zuten lehen aldiz, eta orduko arrakasta ikusita erabaki dute aurten errepikatzea. Ibon Oñederrak, 15 urtean Gatzagan bizi den debarrak gertu ditu angulok. Berak harrapatu eta Debako base-rriko iturburuan ondo zainduta izan ditu, angulek ur korrontea behar dute-eta bizirauteko.

Bihar, arrainontzi batean erakutsiko ditu, Toki Eder elkartearen. Bi euroren truke zenbat gramo angula dauden asmatzea da apustua. Eta pisura gehien gerturatzen denak etxera era-

mango du horren gutizia prezia-tua. Iaz, ia libra bete angula eskuratu zituen irabazleak (arrandegian 200 bat euro ordaindu beharko lituzke).

"Bazkal aurretik izango da porra. Bazkarira ez doanak ere badu aukera parte hartzeko. Korrika batzorderako da batutako dirua. Eta ahal da apustu bat baino gehiago egin. Iaz 70-80 lagun izango ginen jokoan. Apustu bakoitzarengatik bi euro ordaindu behar zen, eta hendeak bost euro, hamar euro... izan ziren 15-20 euro jokatu zituztenak ere", esan du Oñederrak.

Angula porra egitea zela pentsatu zuten ere kontatu du: "Bertso bazkaria egiten dugu Korrika batzordean sartuta gaudenok, Korrikari laguntza ematearren, sosak lortzeko. Eta iaz pentsatu genuen sos gehiago zela atera, krisiarekin gero eta zailtasun handiagoak daude-eta dirua lortzeko. Eta horixe proposatu zen: angulekin porra egitea. Udaberrian zizekin zozketak egiten diren moduan, orain angula garaia denez, bururatu zitzaigun angulekin egitea. Eta giro oso polita sortu zen herrian".

NIRE USTEZ

SONIA
ETXENAUSIA



Bihotza erre aurretik

Dei bat jaso nuen 1984ko apirilaren 13an. Etxetik irten eta han aurkitu nuen opari eder bat: nire gorputza.

Jarraian, behar bat sumatu nuen eta mugitzen hasi nintzen.

Desioak piztu zitzaizkidan gorputz honen barruan eta horiek mila koloretako bidaia egitera bultzatu ninduten. Bidaia horietako batzuk, arriskutsuak benetan!

Baina arrazoitzeko gaitasunak ere nirekin bidaia du eta honi esker, bizitako egoera guztiak ikasketa eraikitzaile-tara eraldatu ditut.

Erdia ere ez dut ikusi eta ametsek bizirik diraute. Orain-

dik ere, oztopoz apaindutako ibilbideetatik paseatzera naramate. Gaur egun, helduagoak eta naturalagoak dira ibilbide horiek.

Noizbait, oztopoen eraginez, bihotza ere erretzen sentitu dut, baina ez da inoiz kiskali, esperientziak esaten baitit: "Merezi du, neska!"

Gorputza pizten zait base-rritarren indarra eta irribarrea ikustean, noizbait lagundutako etorkinen edo emakumeen esker ona entzutean, bertako basoen hotsa sentitzean eta tabernarien alaitasuna konpartitzen dudanean.

Horregatik, neronen eta auzotarren bihotzak erre aurretik, zigarroa erretzea dut nahia-go!

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila Erlaneko koban!

"Egoerak eraldatu ditut ikasketa eraikitzaile-tara"

Lomceren gaineko hitzaldia San Martin eskolan hilaren 20an

San Martin eskolak eta Udalak antolatuta, Lomceren gaineko hitzaldia egongo da hilaren 20an eskolako liburutegian (18:00). *Defenda dezagun gure hezkuntza* izenburupean, Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak kide bat eta Gasteizko Hezkuntza plataformako kide bat izango dira saioa gidatzen.

Alaiak elkarteak Costa Brava aldera doaz apiril hasieran

Alaiak erretiratu elkarteak Costa Brava aldera bidaia antolatu du apirilaren 3tik 9ra. Izena emateko, Alaiak elkartearen Laboral Kutxako kontu korrontean 365 euroko ordainketa egin beharko da, martxoaren 1a baino lehen. Bartzelonan geldialdia egingo dute, besteak beste.

LEINTZ GATZAGA



MIRARI ALTUBE

Aretxabaletara joan da saria

Aretxabaletako Jon Kepa Zubillagak eskuratu du Dorletako Ama Txirindulari Lagun Elkartearen zozketaren saria: aste bukaera Debako Aisia hotelean eta spa bikote batendako. Otsailaren 7an eman zuen saria Alberto Altube elkarteak presidentea. Bada, zozketaren bitartez batutako dirua Gatzagako txirindulari probak antolatzen jarraitzeko erabiliko du elkarteak.

Ipuin kontalari boluntarioekin egindako lehen saioarekin pozik

0 eta 3 urteko umeendako 'Azaleko ipuinak' abiaraziko ditu Udal Liburutegiak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Azkenaldian animazio ekintza ugari ari da bultzatzen Elgetako Udal Liburutegia. Gabonetan haurrendako marrazki lehiaketa antolatu zuten, eta 19 lan jaso zituzten. Lanak ikusgai daude kultura etxeko hormetan, eta sarituek opariak jaso dituzte, baina, agindu bezala, marrazki irabazleetan oinarrituta irakurpuntuak egin ditu liburutegiak, eta erabiltzaileen artean banatzen ari dira dagoeneko. "Harrera oso ona izaten ari dira", adierazi dute liburutegitik.



Liburutegiko lau erabiltzaile gazte irakurpuntu berriak eskuan. | L.Z.

Ipuinen ordua

Animazio ekintzen artean martxan da baita ere *Ipuinen ordua* ekimena. Sei bat boluntarioen eskutik umeendako ipuin kontalari saioak izango dira hamabostean behin liburutegian.

Barikuan egin zuten aurreneko saioa, eta 2-8 urte bitarteko 26 haur elkartu ziren liburutegian Eneida Elorriagak eta liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak kontatutako ipuinak entzutera. Saio atsegina izan zela adierazi dute liburutegitik: "Kontalariak gustura aritu ziren, eta haurren balorazioa positiboa izan zen,

beste ipuin bat eskatzeaz gain, hurrengo saioa noiz izango den galdetu baitzuten". Apirilera bitartean beste lau saio iragarri

dituzte: otsailaren 21ean, martxoaren 7an, martxoaren 21ean eta apirilaren 4an, 17:20etik 18:00ak bitartean liburutegian.

Txikiendako 'Azaleko ipuinak' abiatzeaz

Proposamen berria da, eta 0-3 urte bitarteko umeendako da. Tailerra hiru saiokoa izango da —otsailak 26, martxoak 12 eta martxoak 26—, eta Saroa Bikandi ipuin kontalariak gidatuko du liburutegian bertan, 18:00etan hasita. Interesatuak zabalik dute izena emateko epea otsailaren 21era arte. Plaza mugatuak dira. Informazio gehiago batzeko, liburutegian galdetu behar da.

Elgetan estreinatuko dute 'Potologoak' ikuskizuna

L.Z. | ELGETA

Medikuarengana azpiko arropa garbiekin joaten ez bazara zer gertatzen da? Zergatik jartzen da Benitoren *Erribera* taberna guztiak ixteko? Ze Nobel saridunek asmatu zuen komuneko eskuila?... Galdera horiei eta beste askori erantzuna ematen saiatuko dira Nagore Aranburu, Egoitz Lasa eta Mikel Pagadi *Potologuak* ikuskizun berrian.

Txintxetakoek oso zapore goxoa utzi zuten Espaloian orain dela bi urte *Bodologuak* ikuskizunarekin. Orain, Elgetan estreinatuko dute ikuskizun berria hilaren 21ean, 22:30ean. Sarrerak salgai daude *espaloia.com* atarian eta antzokian. Prezioak hauek dira: aurrez 10 euro, leihatilan 12 euro eta bazkideendako 8 euro (Espaloian bertan).



Nagore Aranburu, Egoitz Lasa eta Mikel Pagadi. | TXINTXETA

Martitzenean hitzaldia bularreko minbiziaren detekzioari buruz

L.Z. | ELGETA

Bularreko minbizia da emakumezkoen artean heriotza gehien eragiten dituen gaixotasunetako bat. Gaitza lehenbailehen detektatzeak berebiziko garrantzia du gaixotasuna gainditzeko, eta elgetarrak horren inguruan sentsibilizatzeko hitzaldia egingo du martitzenean Arrate Plazaola sendagileak.

Plazaola Donostiako Onkologikoko sendagilea da, eta, Kattalin elkartearen eskutik udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da martitzenean, hilaren 18an, 18:00etan. Bularreko minbiziaren prebentzioa, tratamendua eta nork bere etxean egin ditzakeen auto-es-



Arrate Plazaola. | L.Z.

plorazio teknikak izango ditu hizpide. Saio irekia da; hala ere, Udalak 50 eta 69 urte bitarteko herriko 129 emakumezko gonbidatu ditu hitzaldira esku-titz pertsonalizatu bidez.

'Egin konpostatzaile!' kanpaina martxoaren 4ra arte luzatu dute

Udalak urte hasierarekin batera ipini zuen martxan *Egin konpostatzaile!* kanpaina. "Aste honetan bertan beste 20 familiak eman dute etxeko hondakin organikoa kudeatzeko pausoa", adierazi dute. Pozik dira emaitzarekin. Diotel elgetarren %30 ari direla konpostatzen eta hori portzentaje altua dela benetan. "Epea luzatuta, zalantzan daudenak ere animatu gura ditugu. Konpostatzaile izatea oso erraza da, eta hondakin organikoa herrian bertan kudeatzea da hondakinen arazoari adarretatik heltzeko modu eraginkorrena".

ARETO FUTBOLA

5. JARDUNALDIA

EMAITZAK

Intxorta's Crew - Txapela **4-9**

Nahaste Borraste-Jaitxo **0-16**

Gaztiak-Etxaon **5-2**

Astuan Villa-La Kokotxa **10-5**

6. JARDUNALDIA. PARTIDUAK

OTSAILAK 15, ZAPATUA

15:30 Intxorta's Crew-Astuan Villa

16:30 Jaitxo-La Kokotxa

17:30 Bandoileira-Gaztiak

OTSAILAK 16, DOMEGA

11:30 Nahaste Borraste-Txapela

OHARRAK

TAILERRA GAZTETXEAN

Gaur, barikua, *Indarkeria matxista gazteen artean* tailerreko bigarren saioa, 17:30ean.

SASKIBALOIA UMEENDAKO

Aitor Gorostizaren eskutik gaur, 18:30etik 19:30ra, gimnasioan.

KONTZERTUA GAZTETXEAN

Hilaren 22an, Toni Metralla y los Antibalas, Undecimo Man-

damiento eta Odolkiak Ordainetan izango dira Elgetan.

PODOLOGOA

Erretiratuendako kontsulta hilaren 20an. Txanda hartzeko deitu: 943 76 80 77.

KANTSATZEKE TALDEA

Oizera egingo dute txangoa hilaren 23an. Izen-ematea zabalik da hilaren 20ra arte.



Elgetako Udala

www.elgeta.org



Zorionak, Elgeta!

Elgetarron %25ak sortzen dugun hondakin organikoa Elgetan kudeatzen dihardugu.

egin konpostatzaile!

FUTBOLA

Amaitu da Kopako ametsa

- Joane koan Bartzelonan jasotako 'zigorrak' erabat baldintzatu du finalerdia
- Mikel Gonzalezek txalotu egin du zaleen babesa, partiduaren ordutegia kontuan izanda

XABIER URZELAI | ARRASATE

26 urte pasatu behar izan dira Realak Kopako final bat horren gertu izateko, eta eguaztenean, 26. minutuan zapuztu ziren Real-zaleen amets guztiak. Orduan galdu zuen Realak zelai erdian baloia, eta orduan egin zuen Messik horrenbestetan ikusi duguna: geldiezin bilakatu. Griezmannek sartu zuen 1-lekoak lagundu zuen Realak Kopari agur harrotasunez esaten, handienekin ere lehiatzen dakiela erakusten. Eta bai, Velak langan jotako zartakoak gehiago merezi izan zuen.

Edozelan ere, Bartzelonan jasotako zigorra gogorregia izan da kanporaketa gairakitzeko, batez ere epailearen partetik. Berez indartsuena denari, zer eta mesede. Onena, oster, zaleek emandako erantzuna: 28.000 lagunek babestu zuten Real Anoetan; otsaileko eguazten gau hotz batean eurek ez zuten hutsik egin. Beste batzuetan zelaian egon direnek egin izan dute huts, baina ez orain, egindakoaz harro esan dio-eta Realak agur Kopari.

ESANAK

"Zaleek saritu dute taldeak amore eman ez izana, serio jokatuta aurre egin diogu Bartzelonari"

MIKEL GONZALEZ | REALEKO JOKALARIA

Argazki gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Arrasateko zale kuadrilla, harmailetan; jendea zuzenean joan zen zelaira; alde zaharrean ez zen girorik egon.



Jagoba Arrasate, oihuka.



Bartzelonako izar Messi, Gontxa atzetik duela.



Zaleak Realaren autobusaren zain, partidua hasi aurretik.



Realaren hamaikakoa. | ARGAZKIAK: IÑIGO JIMENEZ



Agirretxe, Ansotegi eta Gonzalez, partidua hasi aurretik.

FUTBOLA

Sasoi onean dauden UDAREN eta Bergararen arteko derbia

X.U. | ARRASATE

"Gogoz gaude Aretxabaletaren kontrako derbirako...", esanaz amaitu zuen Bergarako kapitain Eloy Crespok joan den astean Goienari egindako elkarrizketa. Eta kazetariak ez zion derbiaren gaineko inongo aipamenik egin, Real Unionen kontra lortutako

garaipenaren (1-0) gainean baino ez zion galdetu. Horrek erakusten du mahoneroek presente zutela domekan (16:30, Ibarra) jokatu duten derbia, eta sasoi onean iritsiko direla hitzordura.

Baina Aretxabaletari ere momentu ezin hobean iritsi zaio hitzordua, joan den astean Hoda-

rribiari hiru gol sartu zizkioten -eta (0-3). Hala, ikusteko dago Bergara Aretxabaleta berriaren etxean zer egiteko gauza zen.

Aloña ere gora dator

Aloña Mendik ere etxean jokatuko du bigarren astez jarraian, eta joan den asteko erakustaldiaren ostean (6-0) Azkargortaren mutilak seigarren dira. Domekan Ostadar izango dute Azkoagainen (16:30). Antzuolak, azkenik, Aurre-rari laugarren postua kendu nahi dio bihar, Ondarroan.



Aretxabaletako eta Bergarako jokalaria lehian, 2011ko derbian. | GOIEN

MENDI LASTERKETAK

"Zapatuan botako duen euriak zaildu egingo du Irimorako igoera, lokatza egongo da"

Domekan 10:30ean hasiko dute Antzuolako 8 Miliak lasterketa

XABIER URZELAI | ANTZUOLA

Iaz moduko elurrik ez, baina nahi beste lokatz aurkituko dute korrikalariak domekan Antzuolako 8 Miliak lasterketako bigarren edizioan. Izan ere, azken egunotan tregoa apur bat izan badugu ere, bihar, zapatua, euri asko botako duela diote iragarpenek. Eta iragarpenak egunero jarraitu dituzte antolatzaileek: "Badirudi domekan eutsi egingo diola, baina zapatuan euri asko bota dezakeela", diosku antolatzaile lanetan dabilen Aritz Saidik: "Eta lehenago ere bidea oso lokaztuta dago; hortaz, batek baino gehiagok makilak erabiliko ditu behetik gorako bidea erosoago egiteko. Batez ere, Boton inguruetako malda gogorrean etorriko da ondo laguntza hori".

Otsailean, baina, mendia lokatzez aurkitzeak ez du inor ezustean harrapatuko. Aspaldian, gainera, halaxe entrenatzen dabilta korri-



Iaz, Irimoko tontorra zuri-zuri aurkitu zuten atletek. | GOIENA

kalariak (260 izango dira irteera puntuan). Tartean, oso maila onekoak: "Iazko irabazle Iker Oliveri proban izango dugu, eta baita Juanjo Igarzabal, Abdel Rahim eta Ekaitz Kortazar atletak ere. Nesketan, berriz, Leire Fernandez gaztea proban izango

da (16 urte ditu) eta adi ibili beharko dugu, esaterako, Nere Arregi arrasatearrak egin deza-keen lanarekin.

Antzuolako korrikalariak, berriz, aparteko *pikea* izango dute; ikusteko dago nor izango den azkarrena.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GAZTEAK, EUSKAL LIGA
Hernani-Aretxabaleta
Zapatua, 16:00. Zubipe.

OHOREZKO ERREGIONALA
Aurrera-Antzuola
Zapatua, 16:30. Zaldupe.
Aretxabaleta-Bergara
Domeka, 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Ostadar
Domeka, 16:30. Azkoagain.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Mondra-Urola
Zapatua, 16:30. Mojategi.

EMAKUMEZKOAK, IGOERA
Arizmendi-Allerru
Zapatua, 15:30. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

IGARREN MAILA
Bilbon Legorreta-Aretxabaleta
Gaur, 21:30. Legorreta.

ESKUBALOIA

LEHENENGO NAZIONALA
Ford Mugarrí-Urdaneta
Domeka, 12:30. Iturripe.

EUSKADIK, GIZONEZKOAK
Soraluce BKE-Urduliz
Zapatua, 20:30. Labegariaeta.

SASKIBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA
MU-Azkoitia
Zapatua, 18:00. Iturripe.

MAILA AUTONOMIKOA
Leioa-Natra Oñati
Zapatua, 16:30. Leioa.

SENIOR BIGARREN MAILA
Autobuses Al-Aloña Mendi
Zapatua, 16:00. Orio
Soraluce Bergara-MU A
Domeka, 16:00. Labegariaeta



JOSETXO ARANTZABAL

ARIZMENDIKO NESKAK, AURREAN Igoera fasera sailkatzeaz konformatu ez, eta fase berrian ere aurrean dabilta Arizmendikoak. Zapatuan, Allerru izango dute aurrean.

EGIN TXOTX! sagardotegietan



Oialume Bidea, 63 / Astigarraga
943 55 22 42
gurutzeta@gurutzeta.com
www.gurutzeta.com

Eskaintza

- Urtarriletik apirilaren 16ra arte irekita, astelehenetik larunbatera eguerdi eta gauean.
- Urte osoan sagardoa botilan salgai
- Eserita jateko jangela bat dugu eta upeltegian zutik
- Astelehen, astearte eta ostegunetan 20 €ko menua (B.E.Z. barne): txorixo pintxoak, bakailao tortilla, txuleta, intxaurrea eta gazta sagar dultzearekin eta sagardoa txotxean.
- Asteazkenetan "Asteazkena kantuz" otxote taldea.



Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Iturrieta

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa ekologikoa Eusko Labelarekin.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saihekiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

Larre-Gain

Eskaintza

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailao saltsan, aurrez deituta
- Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
- Domeketan, eguerdira arte zabalik
- Astelehenetan, itxita
- "Tolare" sagardotegia



OIHARTE SAGARDOTEGIA
943 50 10 13 - 686 29 91 58
OTATZA SAGARDOTEGIA
943 80 17 57

Oiharte / Otatza

Zeraingo sagardotegietara joateko autobus zerbitzua:

- Otsailaren 21etik martxoaren 28ra bitarteko ostiral guztietan, autobus zerbitzua egongo da:
 - 19.30ean Eskoriatzan.
 - 19.45ean Aretxabaletan.
 - 20.00etan Arrasaten.
 - 20.15ean Bergaran.
- Itzulera ordua: 00.15ean.
- Erreserbak egiteko deitu sagardotegietara: Prezioa: 5 € joan etorria (sagardotegiko menuarekin batera ordainduko da)



Zabala z/g
ARAMAIO
945 44 50 95

Unzueta

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua: 31 €
- Berezitasuna: txuleta.
- 70 lagunendako tokia.
- Parking eta terraza.



Garagartza baserria / ADUNA
(Andoain eta Billabona artean)
943 69 07 74 / www.rzabala.com


Zabala

Eskaintza

- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerditan ere zabalik.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2004an, 2006an eta 2010ean irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan.
- "Tolare" sagardotegia

Goiena Klubeko gaztetxoen hilabetea!

Goiena Klubeko etxeko gaztetxoek otsailean irabaz ditzakezen sariak hauek dira. Hartu parte!



Patinetea

Arrasateko Loramendi
Kirolak-ek emandako
kaleko patinetea.

INTERSPORT
LORAMENDI



PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Patinetea eta jokoak] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Patinetea eta jokoak] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KULTURA

Tanttakaren 'Zazpi aldiz elur' lan berria, Mikel Laboa gogoan

- Gabilondo, Salvador, Unzu, Berasarte eta Rikarte izango dira oholtzan
- Otsailaren 28an Oñatin izango dira eta apirilaren 13an, Arrasaten



Ikuskizunaren kartela. | TANTTAKA

A. ARANBURUZABALA | DEBAGOIENA
Gertuko laguna eta artista erreferentea izan da beti Mikel Laboa Bergarako Mireia Gabilondo aktorearentzako. Sarritan erabili ditu haren hitzak eta kantuak. Laboari buruz hitz egiteko zeukan gogoagatik sortutakoa eta askotariko osagaiak (poesia, musika, antzezpenak, bideo-proiektzioak...) dituen ikuskizuna da *Zazpi aldiz elur*. Atzo, eguna, Gasteizen estreinatu zuten.

Otsailaren 28an Oñatiko Santa Ana antzokira ekarriko dute; 10 eurotan daude www.barrabarra.eu atarian sarrerak salgai. Apirilaren 13an, berriz, Arrasateko Amaia antzokian izango dira; sarrerak Amaia antzokian eta Arrasateko Udalaren webgunean eskura daitezke.

Laboa oinarri, elurra irudikatuz
Bernardo Atxagak Mikel Laboaren omenez 2009an *Erleak* aldizkarian idatzitako artikulua du abiapuntu. Zazpi atal ditu, elurra hari moduan hartuta: "Mikel hil zenean, elurra ari zuela-eta elu-

Mireia Gabilondo eta Iñaki Rikarte, *Zazpi aldiz elur* ikuskizuneko entseguan. | TANTTAKA

rrak daukan ukitu poetikoarekin hasten gara. Mikel hurrekin lan egiten zuen psikiatra bazela erakutsiko dugu hurrengoan. Laboarentzako horren garrantzitsua zen umoreari beste atal pare bat eman dizkiogu, zine komikoa eta maite zuen Cantinflas aitzakia hartuta. Txoriei buruzko atala ere badago, eta baita heriotzarekin lotutakoa ere", azaldu du bergararrak.

Laboaren kantuak oinarri dituen ikuskizun intimista da, publikoarekin hitz egiten badute ere. "Testuek, kantuak eta interpretazioek daukate gidoian pisua; horiek guztiak, irudiz jantzita, besteak beste, Zumeta margolariak egindako Mikelen irudiaren marrazkiekin. Kantu batzuei hitzak kendu dizkiegu eta beste batzuei, berriz, erantsi edo beste osagai batzuk gaineratu dizkiegu. Antzerkia ere badago baina oso estilizatu dagoela diot nik; taularen gainean gauden bost interpretek, denetik egiten dugu, denon artean sortzen ditugu ikuskizuneko uneak", dio Gabilondok.

MIREIA GABILONDO | AKTOREA

"Asko lagundu zidan, profesionalki eta baita heziketa pertsonalean ere"

Mikel Laboak utzi dion hutsunea irensteko urte batzuk behar izan dituela dio Gabilondok. Beharrezko denbora pasata, haren omenezko ikuskizuna sortu du orain.

Nor zen Laboa zuretzako?

Oso artista handia. Haren ausardia ekarri dugu, besteak beste, ikuskizunera, haren kantu luze eta bereziak oinarri hartuta. Ez nuke, baina, kantu esperimentalengatik goraiatuko bakarrik, baita guztiok kantatzen ditugun kantu herrikoiak oholtzara eramane zitzutela ere.

Asko lagundu zizula diozu.

Bai; hala da. Sarritan sartu ditut Mikel Laboaren kantuak nire lanean. Zerbait eskatzen genionean, beti baiezkotzen erantzuten zuen.

Gogoan dut *Hnuy illa* ikuskizunera, esaterako, guretzako espresuki kantu batzuk grabatu zituela; sekulako altxorra da hori, beste inon argitaratu gabeko kantuak dira-eta. Txikitatik entzun izan

dut; gauza asko erakutsi zidan bere musika eta kantuekin. Nire heziketa pertsonalean oso inportantea izan da. Harreman zuzena

izan zenuten, beraz.

Bai, harreman polita genuen, Oso isila zen, ni ere ez naiz oso berritsua, komunikazio berezia genuen. Azkeneko urteetan elkarrekin zerbait egiteko asmotan genbiltzan, haren kontzertuei beste kolore bat eman nahian; ez genuen ezer egin azkenean, baina.

"Baiezkotzen erantzuten zuen beti, zerbaitetan laguntzeko eskatutakoan"



Iñaki Salvador, Angel Unzu, Maria Berasarte, Iñaki Rikarte eta Mireia Gabilondo dira protagonistak. | TANTTAKA

Bost interprete: bi musikari, bi aktore eta abeslaria

Idea sortu zitzaion momentutik jo zuen Gabilondok Salvadorrenegana, aurretik lan asko egindakoak zirelako elkarrekin, baina, bereziki, urtetan Mikeli lagundu zion musikaria zelako. Mikel Laboaz berba egiteko gitarraren soinua ezinbestekoa zuela-eta Angel Unzuri proposatu zion taldera gehitzea gero.

Urteetan Portugalen ibilitakoa den Maria Berasarteren ahots pertsonal eta politagatik ekarri zuen taldera abeslari donostiarra; bide batez, Laboaren fadoa gidoian sartutzeko aitzakia lortuz horrela. Bi aktoreekin lan egin gura zuen eta aurrez beste lan batzuetan elkarrekin jardun zuten Iñaki Rikarterengana jo zuen segituan.

2013ko Jokin Zaitegi sariketa bertan behera geratu da

27. sariketa ez deitzea erabaki du AEDk, baina 2014ko udazkenean berriz deitzeko finantzazio bila dabil

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Asteon AEDtik aditzera eman dutenez, ez dute 2013ari zegokion Jokin Zaitegi 27. itzulpen sariketa deialdirik egingo, arrazoi ekonomikoak direla eta. Halere, euskara elkarteak "sariketari etorkizuna emango dion babesle berri horren bila" jarraitzen du, eta helburua 2014ko udazkenean berriro ere sariketari heltzea izango da.

Nobel-trukek harrera ona

2012. urtean sariketak euskara elkarteari sortutako defizita estaltzeko ipini zuen martxan Arrasateko euskara elkarteak Nobel-truk egitasmoa eta urtarilera bitartean egon da ekimenarekin bat egiteko aukera.

Maite Agirre AEDko dinamizatzaileak aditzera eman duenez, Nobel-truk egitasmoaren bidez lortutako emaitzak onak izan dira: "Pozik gaude jendearen babesarekin. Baina tamalez, ez da ipinitako helburura iristerik lortu. Guztira, 40 lagunek egin

dute 50 euroko ekarpena, eta 2.000 euro batu dira, zuloa estaltzeko beharrezkoaren erdia, hain zuzen ere".

Hori horrela, 2013ari zegokion deialdia ez egiteko erabakia hartu dute, "erabaki gogorra", AEDtik azaldu dutenez. "Deialdi horren

bitartez Alice Munro idazlearen obraren bat itzuliko litzateke; zorionez, lehendik ere badago Munroren lanaren lagin bat euskaraz irakurtzeko aukera, eta, beraz, ez da horren hutsune handirik igarriko".

Sariketak aurrera

Eta nahiz eta iazko deialdia bertan behera geratu, AEDko kideek argi utzi gura izan dute erabakiak ez dakarrela sariketaren beraren desagerpena. "Jokin Zaitegi itzulpen lehiaketari etorkizuna emango dion babesle berri horren bila jarraitzen dugu", eta, modu horretan, 2014ko udazkenean berriro abian jarri ahal izateko.

Eskerrak babesleei

AEDtik eskerrak eman gura dizkiete Jokin Zaitegi sariketari eusteko ilusioz eta borondatez Nobel-truk egin duten guztiei: "Eta horrekin batera eskertu gura dugu baita ere jendeak bidalitako animozko mezu guztiak", eman du aditzera Agirrek.

ESANAK

"Pozik gaude Nobel-trukek izandako erantzunarekin"

"Udazkenean sariketaren beste deialdi bat egin gura dugu"

MAITE AGIRRE | AED



Jon Zabaleta baxu-jolea arrasatearra eta Aintzane Crujeiras abeslaria. | MARKELINE

Markeliñek folk eta rock kontzertua dakar 'Kapsulak' emanaldian

Haurrei eta familiei zuzendutako lana Arrasateko Amaia antzokian izango da bihar, 17:00etan

Z.V.D.M. | ARRASATE

Markeliñeren eskutik bihar, zapa-tua, *Kapsulak* ikuskizuna iritsiko da Arrasatera. Amaia antzokian izango da emanaldia, 17:00etan hasita; 5 euro ordaindu beharko da sarrera.

Markeliñek orain arte eginiko obra bereziena da, ez da-eta antzer-

ki soila: "Lehenik eta behin, esan behar dugu folk-rock kontzertu bat dela". Hala eman digu aditzera antzerki taldeko Jon Kepa Zumaldek.

Eta, hain zuzen ere, oholtza gainera lau musikari igoko dira: Aintzane Crujeiras abeslaria, Bjorn Mendizabal bateria-jolea, Piarres

Mendizabal gitarrista eta Jon Zabaleta baxu-jolea. Azken hori, gainera, arrasatearra da eta Los Cretinos taldeko kidea, besteak beste.

Haur baten ikuspegitik

Abestiek rock edo folk kutsua izan arren, letrak dira garrantzitsuak *Kapsulak* emanaldian, horien bidez istorio bat kontatzen da-eta. "Abeslariak, gainera, bere lagun baten, haur baten, istorioa kontatzen digu. Hark egunean gertatzen zaizkion gauzak eta sententzioak kapsulatan hartu, kutxa batean gorde eta gustukoak eta gustuko ez dituenak bereizten joaten da".

Bada, 50 minutuan zehar mutikoaren egunerokoa kontatzen joaten dira, narrazioa, kantua, eta askotariko proiektzioak baliatuta.

Lan berezia

Kapsulak ikuskizun-kontzertua ez da normalean haurrei zuzenduta egiten diren kontzertuen estilokoa. "Helduok kontsumitzen ditugun kontzertuen berdina da". Hala, Markeliñek aspalditik martxan daukan *Nire lehenengo aldia* proiektuaren baitan kokatuko litzateke *Kapsulak*, Zumalderen esanetan. "Ikustera datozen haur gehienentzat lehenengo kontzertua izango da. Aurrera begira beste obraren bat egiteko ideia ere badaukagu; kasu horretan, lehenengo aldia dantza ikuskizun batekin lotuta egongo litzateke".



Governors taldea zuzeneko bizia eskaintzen. | IMANOL SORIANO

Governors eta Bide Ertzean Gaztelekuko oholtza gainera

Z.V.D.M. | OÑATI

Bi talde handi igoko dira Oñatiko Gaztelekuko oholtzara gaur, 22:30ean hasita. Hain zuzen ere, Bide Ertzean eta Governors talde veteranoek hartuko dute Gaztelekua eta zuzeneko biziak eskainiko dituzte.

nitako kontzertuaren estiloari jarraituta eta ohitura duten legez, eszenaratzea, argiak, soinua eta oholtza gainera jarra-bikain zaindu eta kontzertu borobila eskainiko dutela zalan-tzarik ez dago.

Bide Ertzean eta '77'

Governorsekin batera Bide Ertzean izango da gaurko protagonista. 1999an lehen lana kaleratu zuten, dagoeneko bederatzi disko dituzte eta gaurko kontzertua 77 diskoa aurkezteko aprobetxatuko dute tolosarrak. Bertan, taldekideen kezkak azaleratzen dituzte.

Estilo propioa nagusi

Governors arrasatearrek *Morphinapolis* izeneko azken diskoa aurkeztuko dute. 2006an taldea sortu zenetik, estilo propioko kantuen sortu dituzte eta gaur ere horiekin gozatuko dute taldearen jarraitzaileek. Eta otsailaren 1ean Arrasaten eskai-



Keu Agirretxea & Fignu Experience, Oñatin. | IMANOL SORIANO

Keu Agirretxea eta Naica domekan Zabalotegin

Z.V.D.M. | BEGARA

Bi talde igoko dira etzi, otsailak 16, Zabalotegiko oholtzara, 19:00etatik aurrera. Keu Agirretxea Fignu Experience proiektuarekin dator Bergara; aurretik, Naica taldeak joko du. Sarrera, 8 euro.

Bi talde, bi estilo

Hondarribikoa da Naica taldea, eta *Saturnalia* diskoa aurkeztuko du Bergaran. "Euren bigarren diskoa da, eta pop-indie-elektronika egiten dute. Guk egiten dugunaren oso bestelako musika". Hala eman digu aditzera Keu Agirretxeak.

Naicaren ostean, Keu Agirretxea & Fignu Experience taldearen txanda izango da. Agirretxeak aditzera eman du laukote moduan arituko direla: "Gehienbat, *Behe presioaren erdigunea* lan berriko kantuen aurkeztuko ditugu, baina zaharrak ere joko ditugu. Diskoa instrumentu akustikoei grata genuen arren, zuzenekoan erritmo handiagoa dago".

Lagunak dira Naica eta Keu Agirretxea; horren erakusgarri da Naicako Carlos Noainek bizkaitarraren disko baten parte hartu duela. "Domekan ere egin dugu zerbait elkarrekin".

Zumalakarregi zonbia protagonista duen 'Joxean's Hileben' Bergaran

Gaztetxean emango dute 45 minutuko iraupena duen lana, 20:00etan hasita

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA
Gaur iluntzean, 20:00etan hasita, Bergarako Gaztetxeko zineklubaren baitan, *Joxean's Hileben* lana ikusteko aukera egongo da. Horren ostean, gainera, egileekin solasaldia egingo dute.

Beñat Iturriotz filmaren sortzaileetarikoa bat da eta *Joxean's Hileben* ikustera doanak film bitxi bat topatuko duela dio. Lehenengo begiradan, zonbiz eta banpiroz betetako lana da; baina gainera, pertsonaia historikoak dira protagonista; hain zuzen ere, Zumalakarregi eta Agirre lehendakaria. "Satira politikoa da, azken finean, egungo panorama politikoaren satira. Baina, gainera, istorioan klabe historikoak txertatu ditugu, karlistaldiari buruzkoak, esaterako. Informazio dezente dauka lan honek".

Filmeko musikak ere erreferentzia egiten die kantu tradizionalei; hori bai, apur bat eguneratuta, modu elektronikoan agertuz, esate baterako.

Idea, mendian lanean

Iturriotzek filmaren ideia lanean sortu zela eman du aditzera: "Xabier Padin eta biok arkeologoak gara, eta mendian lanean

ari ginel, B serieko filmak izan genituen berba, zonbiei buruz hitz eginez... Gustatzen zaizkigun gaiak elkartu, nahastu eta zonbi karlistak eta ezker abertzaleko momiak atera zaizkigu!".

160 pertsonaren laguntza

Katihotsak Logia kultur elkar-tearen lana da *Joxean's Hileben*. Eta esan bezala, Iturriotz eta Padin dira ideiarene sortzaileak eta baita argumentua idatzi zutenak ere.

Baina alboan izan dituzte lagunak, eta lagunak lagunak,

Iturriotzek berak aditzera eman duenez: "Proiektuan moduren batean edo bestean parte hartu duten 160 lagun inguruk. Gehienak, 110 pertsona, aktore moduan aritu dira; beste batzuek estra moduan agertu gura ez eta mikrofonoei eusten egin dute lan; txapelak utzi dizkigute beste hainbatek...".

Eta guztiak koordinatzeko sare sozialak baliatu zituzten: "Deialdiak eta filmatze egun bakoitzeko beharrak sarean bidez zabaltzen genituen, eta jendea agertzen joaten zen".



Filmaren une bat. | KATIHOTSAK

Epea amaituta, Huhezinemako sail ofizialean 96 lan jaso dituzte

Z.V.D.M. | ARETXABALETA
Gaur, egubakoitza, amaitu da Huhezinema jaialdirako lanak aurkezteko epea. "Ehundik gora lan jaso ditugu, guztira, eta pozik gaude deialdiak izandako erantzunarekin". Hala eman du aditzera Iban del Campo ekimenaren koordinatzaileak.

Hain zuzen ere, sail ofizialari dagokionez, 96 izan dira jasotako lanak. Bestalde, eta MU ikasleen lehiaketari dagokionez, beste hamar lan jaso dituzte.

Aurten jaialdiak beritasunak ditu. Iaz sari berezia sortu zuten gastronomiaren inguruan, Basque Culinary Center sartu baitzen laguntzaile bezala, eta aurten indartu egin gura izan dute; Basque Culinary lehiaketa ipini dute martxan.

"Kalitate aldetik eta oraindik ez dakigu zer nolakoak diren. Orain horretan hasiko gara, lanak ikusi eta Huhezineman lehiatuko diren lanak hautatzeko ordua da". Hala, del Campok aurreratu duenez, martxoaren 4 inguruan finalistak zeintzuk diren emango dute aditzera eta martxo amaieran izango da aurtengo Huhezinema jaialdia.



IKASTAROAK %100 DIRUZ LAGUNDUTA LANGILEENTZAT ETA LANGABEENTZAT

IKASTAROA	IRAUPENA	DATA	EGUNAK	ORDUAK
PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIA DAUKATEN IKASTAROAK				
Tratamendu termikoak eta entsegu mekanikoak (UF1834)	40 ordu	Martxoaren 3tik 25era	Astelehena, martitzena, eguaztena eta eguena	09:30-12:30
Pneumatika eta hidraulika (UF0459)	90 ordu	Martxoaren 3tik maiatzaren 26ra	Astelehena, eguaztena eta eguena	15:30-18:30
Tolerantziak plano mekanikoetan (dimentsionalak, gainazalekoak eta geometrikoak) (UF0453)	40 ordu	Martxoaren 10etik apirilaren 9ra	Astelehena eta eguaztena	14:30-18:30
Fagor 8050/55 CNC fresatzeko-makina programatzea: oinarritzko maila eta aurreratua (UF0879)	80 ordu	Martxoaren 24tik maiatzaren 12ra	Astelehena, martitzena, eguaztena eta eguena	14:30-18:30
Linea automatizatueta PLC programatzea (UF0626)	70 ordu	Apirilaren 2tik ekainaren 11ra	Astelehena, eguaztena eta eguena	09:00-12:00
Marrazketa teknika (UF0453)	40 ordu	Apirilaren 28tik maiatzaren 21era	Astelehena, eguaztena eta eguena	14:30-18:30
Autocad Mechanical eta Solidworks (UF0454)	90 ordu	Apirilaren 28tik ekainaren 20ra	Astelehena, eguaztena eta egubakoitza	14:30-18:30
Eskuzko makinaren erabilera: fresatzeko makina, tornua, zulatzeko makina eta artezteko makina (UF0463)	70 ordu	Maiatzaren 14tik ekainaren 20ra	Astelehena, eguaztena eta egubakoitza	14:30-18:30
PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIRIK EZ DAUKATEN IKASTAROAK				
.NET garatzeko ikastaro aurreratua	80 ordu	Martxoaren 4tik ekainaren 5era	Martitzena eta eguena	09:00-13:00



MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARZUMENDIARRREA, KOOPE E.

Loramendi 4, 20500 ARRASATE

INFORMAZIOA
ETA IZEN-EMATEA

Isabel Mangana
943 71 21 83
imangana@mondragon.edu



Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDAD E INVESTIGACIÓN

Ainhize Barrainkua | Triatloilaria

"Menoniten ezkontza batera noa Ameriketako Estatu Batuetara Aste Santuan"

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ainhize Barrainkua Agirre (Aretxabaleta, 1997) batxilergoko ikasketak egiten dabil. Ikasketak bakarrik ez, hainbat afizio ditu, gainera; pasio dituen afizioak.

Lehenengo mailako batxilergoko ikasketak egiten, ezta?

Bai, zientzien adarretik nabil ikasten.

Gero zer ikasteko asmoarekin?

Zientzien adarreko zerbait: medikuntza, biokimika, kimika...

Hainbat afizio dituzu, gainera; horietako bat kirola. Urte asko igeriketan ala?

Bai, txikia nintzela hasi nintzen ikastaroetan, eta, gaztetzen nindoan heinean, serioago hartzen joan naiz.

Eta orain igeriketa eskolak ematen dizkiezu umeei. Zelan moldatzen zara?

Igeriketa taldean dagoen lagun batek ematen ditu eskolak eta hark ezin duenean joaten naiz ni. Hasieran, konfiantza hartu arte, kostatu egin zitzaidan, baina orain oso gustura nabil. Batzuetan zorrotz jarri behar izaten dut, gustuko ez izan arren.

Igeriketaren ostean triatloirako saltoa etorri da.

Bai, aitzak animatuta. Beti ikusi izan dut aita halakoetan, eta kanpotik kirol polita dirudi, baina barruan sartuta oraindik politagoa da.

Noiz eman zenuen salto hori?

2013an federatu nintzen eta lehenengo triatloia maiatzean egin nuen.

Ordutik hona zenbat egin dituzu?

Zumaiako txapelketa (Gipuzkoako txapelketa), Hondarribikoa eta Donostian beste bat irailean, baina azken horrek ez du balio Euskadiko zirkuiturako.

Eta zelako esperientzia izan da?

Uf... Hasieran gogorra. Gogoan dut lehenengoan, Zumaiakoan, 100 metro igerian egin eta erretiratu egin gura nuela. Hainbeste jende, ura oso hotza... bakarrik sentitu nintzen eta urduri jarri. Baina geratu, lasaitu eta jarraitu egin nuen. Hori gertatzeko egingako esfortzuaren ondoren ez nuen inolaz utzi gura.

Eta jarraitzeko asmoarekin?

Bai, noski. Irailean bukatu genuen denboraldia, eta kostatu egin zait berriro martxa hartzea, baina hartu diot eta orain gustura nabil, animatuta jarraitzeko.

Zure adineko neska asko ez dira, bada, ibiliko halakoetan?

Uste dena baino gehiago, zazpi edo zortzi badaude federatuta eta federatu barik ere egongo dira.

Musika ere baduzu zaletasun: biolontxelo jotzen duzu; noiztik?

7 urte nituenetik. Eta irailean hasita Bergarako orkestran nago.

Eta zer moduz?

Oso gustura; orain, behintzat, helburu batekin ikasten dut. Bestela, ikasi eta ikasi egiten dugu, baina zertarako jakin barik.

Kontzertuak ere eman dituzu?

Bai, Santa Zezilia egunekoa eta Gabonetakoa. Orain, Aratustetakoa etorriko da, eta gero, ekainean, ikasturte bukaerakoa.

Eta zelan sentitu zara?

Oso gustura. Denok batera jotzen dugunean ateratzen den soinuak inpresionatu egiten du, eta ni horren parte naizela sentitzea...

Hainbeste zaletasunekin lagunekin planak egiteko astirik geratzen zaizu?

Bai. Ondo antolatzea da kontua. Gauza bakoitzari bere denbora emanez gero, gerorako ezer utzi barik, guztiarendako dago astia. Eta noizbait sentituz gero derriortuta nabilela eta sakrifizio handia dela, utzi egingo nuke. Gustura jardutea da kontua.

Ameriketako Estatu Batuetan izan zara bi udatan. Zelako esperientzia izan da?

Oso ona. Bi familia guztiz ezberdinak tokatu zitzaizkidan; lehenengoan, Pensilvanian egon nintzen, menonita komunitateko familia batean, oso erlijiozaleak, zortzi seme-alabarekin... Izugarri ondo pasatu nuen. Eta bigarren, Washington estatuan egon nintzen, Seattletik oso gertu.

Eta Aste Santuan berriro ei zoaz hara.

Bai, menoniten familiako seme zaharrena ezkondu egingo da eta gonbidatu egin naute. Oso pozik nago, guztiak berri ikusteko izugarritzko gogoz.

MARRA AZKARREZ

Zure herriko txoko maiteena: Urkulu.

Gosari gustukoena: Fruta, tostadak eztiarekin eta esnea.

Jasotako mezu pozgarriena: AEBetako ezkontzarako gonbidapena.

Kantu gustukoena: Kukutza.



Gernika plazako txintxaunetan, zapatilak esku artean.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Aita Gabirel Jauregi kolean 80 metro koadroko etxebizitza salgai. Garaje eta ganbararekin. 198.000 euro. Errentan hartzeko aukera ere bai. 638 21 63 39

Aramaio. Toki argitsua. 105 metro koadrokoa: hiru logela, egongela, sukaldea etabikomun. Sukaldea eta komunak guztiz ekipatuta ditu. 18 metro koadroko garajea etxe azpian. Erabilgarriak diren 15 metro koadroko ganbara.652 72 83 60edo945 44 53 52

Bergara. 40 metro koadroko apartamentua salgai Zubieta kolean. Eguzkitsua. 45.000 euro. Errentan hartzeko aukera ere bai. 679 45 57 62

Bergara. Erdigunean 104 metro koadroko etxebizitza salgai. Lau logela, bi bainugela, egongela-jangela handia eta sukaldea. Bizitzera sartzeko moduan. Dena kanpokaldera begira. Igogailu eta berokuntza-ekin. Ikusi eta gero, prezioa zeuk ipini. 626 65 99 94

